



2015-04-17  
EGUBAKOITZA  
635. ZENBAKIA  
15. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM

## Arrasate Rugby Taldea txapeldun

Datorren astean ospatuko dute | 27



Kapitaina, taldekideekin. | GOIENA

UNEDen egoitza berriari dagozkion lanak lehiaketara atera dituzte | 14



Leintz Gatzagako lur-azpia mugitzen dabil etengabe | 9



ARG! Argazki Festibalak Oñatiko kale eta aretoak hartuko ditu, bigarrenaz | 29

## Kortazar eta Goñi faborito Arrasate-Udalatz lasterketan

Domekan 250 lasterkarik egingo diote aurre mendi probari | 26

## Aluminio produkzioa bikoiztu egingo du Ederlanek | 4

## Aurkeztu dituzte alkategai gehienak | 'Herriak' saila



**Antonio Martin Cardenas**  
Sacco Wanzetti (CNT)



**Antonio Izagirre Peron**  
Abellaneda Batailoia



**Antonio Telleria Bilbao**  
San Andres Batailoia (ELA-STV)



**Benito Martin Barrios**  
Kultura eta Kirola Batailoia (Gazte Sozialistak)



**Baltasar Delgado Aguado**  
San Andres Batailoia (ELA-STV)



**Claudio Usobiaga Albizu**  
Amuategi Batailoia (Gazte Sozialistak)



**Gerardo Bujanda Sarasola**  
Saseta Batailoia (EAJ-PNV)

## Egiari zor

Intxortako lubakietan borrokatu ziren hamasei gudari izango dira Intxortako Erresistenteen Egunean | 2



Egiaren iturria eskultura.

ARGAZKIAK: MAURO SARAVIA, IBAN GORRITI, INTXORTA 1937 KULTURA TALDEA




**Gregorio Urionaguena Arriaga**  
Eusko Indarra Batailoia (EAE-ANV)



**Inazio Ernabide Ezenarro**  
Loiola Batailoia (EAJ-PNV)



**Jose Moreno Torres**  
San Andres Batailoia (ELA-STV)



**Juan Azkarate Araukua**  
Araba ontziko itsas gudaria



**Luis Etxeberria Urrutia**  
San Andres Batailoia (ELA-STV)



**Luis Ortiz Alfau**  
Casero Batailoia (Izquierda Republicana)



**Marcelo Usabiaga Jauregi**  
Rosa Luxemburgo Batailoia (PCE-EPK)



**Regino Biain Guridi**  
Itxarkundia Batailoia (EAJ-PNV)



**Manuel Sagastibeltza Negrete**  
Abellaneda Batailoia (EAJ-PNV)

### SINADURAK

	AITOR BIAIN   6
	6   LEIRE KORTABARRIA
	ANDRES OSA   15
	19   MIKEL ARANBURU
	NURIA FERNANDEZ DE ARRIABE   20
	40   AGURNE BARRUSO

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 11 | KIROLA 26 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38



ASTE HONETAN PUNTUAN:  
Lur azpia, nork esploratuko zain  
Juan Ramon Garairekin memoria historikoaz

JASO PUNTUA ETXEAN: 943 25 05 05

943 71 48 45

## Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

## SEAT LEON ST X-PERIENCE

## DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

## Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

# Gudariei agur eta ohore Intxortan

- ▶ Elgetako lubakietan borrokatu zirenei omenaldia egingo diete etzi, domekan
- ▶ Errepresioa eta hilketa jasan zituzten zibilek, alderdi politikoek eta sindikatuek ere izango dute aitortza

UBANE MADERA | ELGETA

Antoni Telleria Lamarain (Elgetako Zestogain baserria): "14 urte zituen. Goizaldeko hirurak inguruan joan ziren baserrira bera bortxatzeko asmoarekin. Aitak aurre egin zien, eta aitari buruan bala bat sartu zioten. Alabak aita odolduta ikustean, eskua jarri zion buruan, eta bigarren tiroa bota zioten aitari burura, Anttoniri eskua txikituz. Amari, berriz, burua apurtu egin zioten kulturekin behin eta berriz kolpatuz; ez zuen berriro konortea berres-

kuratu, eta handik hamar egunera hil egin zen ospitalean. Eta Anttoni, 14 urteko neskatila elgetarra, kontatutako guztia ikusi ondoren, bortxatu egin zuten. Hori Anttonik berak kontatu zigun 2003an, eta grabatuta dugu. Bizi guztirako markatuta geratu zen. Orain dela hiru urte hil zen". (Juan Ramon Garai, Intxorta 1937 Kultura Taldea)

1937ko apirillean egin zioten Telleria Lamarain familiari basakeria hori faxistek, Intxortako lubakietan aurre egin zieten mili-

zianoak garaitu eta Elgetara sartu ondorengo egunetan.

Baina Historia ofizialak ez du halakorik jaso. Ezta bestelako basakerien gaineko kronikarik edo aipamenik ere.

Eta egiari zorra zaiolako, eta horrek ekar lezakeelako Espainiako gerraren eta ondorengo diktadura frankisten biktimeei dagokien baina gauzatzeke dagoen justizia eta aitortza, antolatu dituzte bihar eta etzi Elgetako ekitaldiak, Intxortako Erresistenteen Eguna izenarekin.



Intxorta 1937 Kultur Elkarteko, Sare Antifaxistako, Goldatu Elkarteko eta Elgetako Udala

Antolatzaileak dira Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma osatzen duten elkarte memorialistak, fundazioak, erakunde sindikalak eta bestelako erakundeak. Eta bultzatzaile horien artean daude Debagoieneko Intxorta 1937 Kul-

tura Taldea, Elgetako Udala, Goldatu Elkartea eta Sare Antifaxista. Bestalde, Debagoieneko udalak diruz lagundu dute ekimena.

**Gudariak, alderdiak eta zibilak** Bada, Erresistenteen Egunean, besteak beste, omenaldia egingo

JOSU IBARGUTXI | GOLDATU ELKARTEKO ORDEZKARIA

## "Bizirik diren frankismoko elementu gehienak boterean daude"

Josu Ibargutxi eibartarra Goldatu elkarteko bozeramailea da. Frankismoaren diktadura garaian izandako euskal presoek eta errepresaliatuek inpunitatearen aurka diharduten borrokan buru-belarri sartuak dira. Goldatu elkarteak ere bada asteburuan Elgetan izango den Erresistenteen Egunaren deitzaile.

**Gerrako gertakariei dagokienez, justizia beharra aldarrikatzen duzue. Zela gauzatuko litzateke justizia?**

Modu zuzenena izango litzateke erantzukizunak dituztenak barruratzeko eta, gutxienez, garantiazko epaile baten aurrean euren burua aurkeztea; ez dute euren burua aurkeztuko, jakina, baina epailearen aurrean agertu egin behar-kolukete, behintzat. Hori ez da askotan

gertatzen; Argentinan bai; han 300dik gora militar eta gobernu arduradun daude kartzeletan, eta epaiketak ez dira bukatu. Horrek estatu espainolean 1977ko Amnistiaren Legea ezabatzea dakar, bera baita egungo inpunitatearen zutabe. Justizia gauzatzeke beste modu bat da biktimen duintasuna aldarrikatzea. Eta hirugarren modua, kolpe militarren aurka eta diktaduraren aurkako borrokalari guztien errekonozimendua aitortzea gizarteak, eta hurrengo belaunaldietan garbi-garbi agertzea kolpe eta diktadura haren benetako egia —ehunka milaka erailak, espetxeratuak, atzerritatuak, torturatuak...— zein izan zen, berriz ez errepikatzeke.



**Erantzukizuna zeini dagokio?**

Estatuari.

**Espainolari?**

Edo euskaldunari biharko egunean, berdin zait. Administrazioari, orokorrean. Botere publikoari. Eta ez dugu guk bakarrik esaten du estatuek dutela erantzukizun subsidiarioa aurreko memoria historiko guztia lantzeko eta plazaratzeko eta eginiko hondamendi eta kalte guztiak erreparatzeko.

**Aldiz, momentuz, justizia bila Argentinara jo behar izan duzue, Servini epailearengana; handik fruituren**

**bat etorriko dela uste duzue?**

Bistan dagoena da oraingo estatu espainolaren gobernuarekin ez datorrela ezer. PPko gobernuak behin eta berriro esan digu ez dela estradiziozik eta ezta epaiketarik izango hemen. Horrenbestez, borrokan jarraituko dugu datozen gobernu berriek ea hori egingen duten.

**Hala, bada, non da botereen arteko independentzia?**

Ez dago. Sekula ez da egon; ez hemen, eta ezta Txinan ere. Hori utopia da, momentuz; ezagutzen ditugun sistema

demokratiko guztietan funtsean ez dago botereen independentziarik, jakina independentzia judizialik ere ez. Argentinara jo dugu jurisdikzio internazionalaren bitartez, momentuz behintzat, posible delako frankismoaren inpunitate plazaratzea. Eta hori guretzat nahiko inportantea da. Internazionaliki ere izan du bere oihartzuna. Martin Villa bat eta beste sei-zazpi ministro ohi inputatuak izateak bere eragina izan du, eta mediatikoki jendea berriz

gogorarazi egin dio Frankismoa ez dagoela bukatuta, elementu gehienak, bizi direnak estatuaren aparatuan edo boterean daudelako. Beraz, Frankismoa bukatu, nola? Eta Frankismoa bukatu ez bada kolpe militarren erantzukizunak ez dira bukatu, orain dela 80 urteko kolpe militarren erantzukizunak.

80 urte Historian ez da ezer. Ginebrara ere jo dugu, Nazio Batuen Giza Eskubideen erakundera, eta martxoan Europako Parlamentuan egon ginen. Hari esan diogu ozen eta garbi

beraiek ere badutela Frankismoaren erantzukizuna, orain dela 80 urte ez zutelako ezer egin Frankoren aurka. Batzuk, alemaniarrek eta italiarrek, zuzenean, militarki, egin zuten alde; eta besteek (estatu frantsesak, Britainia Handiak...) ere "no intervención" esaldiarekin funtsean Frankismoari lagundu zioten garaile izaten. Beraz, garbi esan behar diegu eurek ere badutela erantzukizuna Frankismoa argitzeke eta egia eta justizia azaltzeko.



## ATE IREKIAK

Jakinarazi etorriko zarela! 943 71 21 91

Apirilaren 22an 18:00etan



**Automatizazioa eta Robotika Industrialak**

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

**Mekatronika Industrialak**

Robotaren muntaiaz eta mantentzeaz arduratzen dira

**Fabrikazio Mekanikoko Diseinua**

Robota diseinatzen dute

**Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak**

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoz eta energia hornitzeaz arduratzen dira

**Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa**

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

**Sareko Informatika Sistemen Administrazioa**

Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira



ko ordezkariak, Intxortako atea-n. | UBANE MADERA

diete Intxortako lubakietan orain dela 78 urte borrokatu ziren milizianoek. Eta bizirik dauden 21 milizianoetatik eta gudarietatik hamabostek baieztatu dute domekan Elgetan izango direla.

Gudari horiek guztiak 90 urte-tik gorakoak dira eta Euskal Herri osotik etorriko dira. Eta horien artean bada badiena debagoiendar ere: Inazio Ernabide osintxuarra eta Regino Biain oñatiarra.

Beste miliziano batzuek, berriz, etorri ezin izana adierazi dute, baina euren senideek ordezkatu dituzte Elgetako ekitaldian.

Eta gudariokin batera, aitortza jasoko dute, baita ere, errepresioa jasan zuten lau zibilen senideek —Anttoni Telleriarenak tartean— eta baita alderdi politiko zein sindikatu historikoen ordezkariak ere: ELA-STV, CNT, EAJ-PNV, EAE-ANV, POUM, PCE-EPK eta Izquierda Republicana. PSOE eta UGT ere gonbidatu gura izan dituzte antolatzaileek, baina ez dute erantzunik izan. Eta horren ordez, oroitarria jasoko dute alderdi politiko zein sindikatu horietako kide izan eta fusilatu zituzten bi lagun senideek —Jesus Uranga Arrasateko zinegotzi sozialista eta Segundo Olazagoitia Dragonas Batailoiko komandantea—. Beraz, guztira, 30 bat lagunek.

Guztiak jasoko dute Iñigo Arregi artista arrasatearrak ekitaldirako sortutako artelana: *Egiaren iturria*. "Une hunkigarriak izango direlakoan gaude", adierazi du Intxorta 1937 Kultur Taldeko ordezkari Julia Mongek. "Erresistenteak adineko pertsonak dira eta zaindu egin behar ditugu".

#### Garaipen ez horren gozoa

Juan Ramon Garaik, Intxorta 1937 Kultur Taldeko ordezkariak, gogora ekarri du 1937. urteko apiril hartan Elgetako Intxortan gertatutakoa eta omenduko dituzten milizianoek egindakoa, salaketa egiteaz batera: "Historiografia frankistak beti ezkutatu dizkigu borrokaldietan izandako porrotak, nahiz eta askoz ere

baliabide gehiago izan: armak, hegazkinak, borroka hegazkinak, obusak, kanoiak eta, jakina, nazioarteko faxismo osoaren laguntza. Ziur zeuden Intxortak konkistatuko zituztela 1937ko apirilaren 20an; Franco bera etorri zen Bergarara 19an, garaipenaren lekuko izateko. Apirilaren 20 hartan, goizeko lehen orduan, Junkers bonba-hegazkin alemanak eta Savoias bonba-hegazkin italiarrak euskal erresistentziaren lubakiak hausten eta txikitzen hasi ziren; gero, kanoi bateriak, eta garaitu zituztela uste zutenean, infanteria bidali zuten eraso egitera, baina behin eta berriro oposizio latz batekin egin zuten topo. Erasoan baja ugari izan zuten; hainbeste, bi egun behar izan zuten indarberritzeko. Ordurako, Franco joanda zegoen Burgosera. Apirilaren 23an, berriro, lehengo errepikatu zen, eta antzeko emaitzarekin. Ondorio lazarriak izan zuten porrot haren umiliazioak. Hurrengo egunean, arratsaldean, Intxortako erresistentzia egileek ez zekiten frontea hautsita zegoela Udaltzetik; Elorrio matxinoen esku dago eta behartuta egongo dira atzera egitera Ermurantz eta Eibarrerantz. Bidea libre dute, eta mendekua errukigabea izango da, gogorra. Camilo Alonso Vegak eta Emilio Mola Vidalek 'dena libre' utziko diete euren soldaduei 48 orduan, nahi dituztenak egiteko, eta hori da gudariak, milizianoak, pertsona zibilak hiltzea, emakumeak bortxatzea, iraintzea, eta abar, Euskal Herrian eta estatu espainiarrean oso ohikoak izan ziren ankerkeriak".

Hain justu, "dena libre" hori baliatuta errepresioa eta hilketa jasan zituzten lau lagun dira Elgetan omenduko dituzten zibilak.

#### Sarrasketako batzuk

Zibilok omentzen, lau herrialdeak batu gura dituzte ekimenaren antolatzaileek: Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroa. Izan ere, "sartzen ziren leku guztietan 'dena libre' izaten zuten faxistek", Garaik azpimarratu duen moduan.

Elgetan, honako lau hauek izango dituzte gogoan: Anttoni Telleria —kontakizuna sarreran—, Maravillas Lamberto, Jose Sagarna eta Miguel Gil.

"Maravillas Lamberto (Larraza, Nafarroa): neska gazte bat zen. Atxilotu zuten bere aita, eta bera aita zergatik atxilotu zuten galdeztera joan zenean atxilotu zuten, bortxatu eta aitarekin batera hil. Jose Sagarna (Zeanuri): abade egin zen eta Markinako auzo batera bidali zuten. Frankistak sartu zirenean atxilotu, soka batekin lotu eta fusilatu egin zuten. 24 urte zituen. Familiak oraindik gordeta dauka soka. Miguel Gil (Zalduondo, Araba): beste bi maisurekin batera fusilatu eta Ochoportilloko kobazulora bota zituzten hiruren gorpuak. Maisu izatearren fusilatu zituzten, beste barik", esan du Intxorta 1937 Kultura Elkarteak kideak.

#### Errekreazioa eta omenaldia

Bestalde, domekako omenaldiaren aurretik, 1936-37ko gertakarien errekreazioa ere egingo dute aurtten. 150 boluntarioak hartuko

dute parte —iaz baino 25 bat gehiago—. Jantzi berriak dituzte, gudariaren lubakietan kanoi berri bat egongo da eta hobekuntzak egingo dituzte piroteknia efektuetan zein megafonian. Errekreazioa eserita ikusteko aukera ere izango dute 300-400 bat lagunek. Errekreazioan parte hartuko duten boluntarioek oinez egingo dute herrirainoko ibilbidea, manifestazioan. Memoria historikoa, justizia eta erreparazioa eskatuko dituzte. Jarraian etorriko da erresistenteen omenaldia. 13:00etan izango da, herriko plazan. Eta, adibidez, Mauro Saravia txiletar argazkilari profesionala ere izango da han; senide euskaldunak ditu, eta hemen gertatutakoa Txileko Villa del Mar jaioterrian kontatu gura du argazki erakusketa eran, 2016an. Miliziano guztien argazkiak ateratzen dihardu, adibidez.

## INTXORTAKO ERRESISTENTEEN EGUNA

### ZAPATUA, APIRILAK 18

**18:00**etan Espaloitik, *Elgetako kaleak gerra sasoi*an bisita gidatua.

**18:00**etan, herrian, kalejira elektro-txarangarekin.

**20:00**etan, Espaloian, Oroimenaren Gaua kontzertua. Rap musika. Taldeak: Indarrap (Gasteiz), MKSoldierZZ (Bilbo), La Medizina (Bilbo) eta Bastard's Noise (Bilbo). Sarrera: bost euro.

### DOMEKA, APIRILAK 19

**10:00**etan Elgetan, azoka oroimen taldeen materialarekin.

**11:00**etan, plazatik, gudari

igoera lubakietara.

**11:30**ean, *Intxortako atea-n*, Intxortako borrokaldien errekreazioa.

**12:30**ean, Asentziotik, manifestazioa Elgetara. Lore eskaintza Salvador ermitako oroitarrian.

**13:00**etan, herriko plazan, omenaldia erresistenteei. *Egiaren iturria* eskulturaren entrega; Manex Agirrerren eta Enaiz Alustizaren bertsoak; Josean de Miguel Gilen poesia irakurketa. Debagoieneko udaletako, Elorriko Udaleko, Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariak ere izango dira.

**15:00**etan, frontoian, bazkaria.

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko bada. **erronkarako #prest**

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**DONOSTIALDEA • MAIATZAK 9**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE • MAIATZAK 16**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI • MAIATZAK 21**  
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BIDASOA • MAIATZAK 9**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**OÑATI • MAIATZAK 16**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO • MAIATZAK 23**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORIATZA • APIRILAK 25**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA • APIRILAK 25**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA • MAIATZAK 23**  
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

Katalin Madariaga,  
Lidergo ekintzailea eta berruntza,  
3. maila.

# Lantegi berria eskuratuta, aluminio produkzioa bikoiztuko du Ederlanek

Geysarren pabiloia errentan hartu du kooperatibak, erosteko eskubidearekin, 2016an ekoizten hasteko

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Fagor Ederlanek Bergaran izango duen lantegi berriari esker –gaur egun CNA taldeak duen Geysar lantegia, hain zuzen–, presio txikiko aluminio produkzioa bikoiztuko du. Izan ere, Arrasaten duen lantegiak bere horretan jarraituko du, eta Bergarakoak, pixkana-pixkana, Arrasatekoaren adinako ekoizpen gaitasuna hartuko du. Horrela baieztatu dute Fagor Ederlaneko zuzendaritzako iturriek.

GOIENAK martxo bukaeran aurreratu zuen moduan, Fagor Ederlanek alokairuan hartuko du Geysarren lantegia, erosteko eskubidearekin. 2016ko ekainera arte CNAk jarraituko du bertan; gero, Ederlanek hartuko du eta ia urte bete emango du lantegia egokitzen, instalazio berriak ipintzen, e.a. Iturri berberen arabera, 2017an egongo litzateke Ederlan produkzioa hasteko gertu. Bizpahiru urtean, tamaina hartzen joango da lantegia. Honela esan du Fagor Ederlaneko iturriak: "Espero dugu urte batzuetan Arrasatekoak gaur egun egiten duen adinako produkzioa egitea Bergarakoak".

Automobilgintzarako suspentsioko osagarriak egingo dituzte Bergaran presio txikiko aluminioarekin. Horren merkatua asko hazten dabil eta produktu horiek eskaera handia dute.

## Proiektu berrien bila

Lantegi berriak beste baten geldialdia konpentsatuko du, neurri



Geysarren lantegia, Bergarako San Juan auzoan. | L.K.

baten behintzat. Izan ere, Geysarren ondoan Ederlanek duen lantegiaren ekoizpena erdira jaisten hasiko da datorren ekainean, denborarekin erabat bukatu arte. Hori gertatuko zela bazekien Ederlanek, baina jaitsiera 2017an hasiko zela aurreikusten zuten. Ezustekoari aurre egiteko, asmoa da Bergarako langileak –105 dira, baina jaitsierak erdiei eragingo die oraingo– Ederlanen beste lantegietan birkokatzea eta, 2017a ezkerro, Geysarren lantegian.

Bergarako lantegia Continental Teves multinazional alemanarekin tratua egin eta gero sor-

tu zen. Volkswagenendako produktu bat –bezero bakarra eta produktu bakarra, beraz– egiteko sortu zen aliantza hori; Continental-ek ingeniari eta teknologia ipintzen zituen, eta Ederlanek, ekoizpena, eta royaltya ordaintzen zuen ekoizteagatik; irabaziak biendako ziren. Bitarte honetan, Fagor Ederlanek lortu izan du zazpi urterako zen enkargua 17ra luzatzea; beraz, bazekiten 2017an ekoizpena gelditzen hasiko zela eta dagoeneko bazebiltzan proiektu berrien bila. Bada, jaitsiera hori aurreratu egingo dela jakinarazi diete.

## Herritarrek erabakiko dute 2 milioi lau urteotan zertan inbertitu

L.K. | DEBAGOIENA

Foru Aldundiak 20 milioi euro ipiniko ditu Gipuzkoako 10 eskualdeen artean banatzeko eta eskualde bakoitzeko biztanleek erabakitzeke zertan inbertitu nahi dituzten datoen lau urteotan; beraz, eskualde bakoitzak bi milioi izango ditu, urtero 500.000 euro inguru inbertitzeko. Debagoieneko Mankomunitatea da eragileetako bat.

Proposamenek bi baldintza bete behar dituzte: Foru Aldundiaren eskumeneko zerbait izan behar da; eta eskualde ikuspegi izan behar du, hau da, ezin da herri bakarerrako proposamena izan, nahiz eta onartzen diren herri baterako baino gehiagorako proiektu proposamenak.

### Parte hartzeko hiru modu

Parte hartzeko hiru modu daude. Alde batetik, tailer batzuk izango dira herri guztietan, datorren astean hasita. Egundak eta toki hauetan izango dira:

Antzuolan, Orlanen, apirilaren 22an, 18:30ean; Aretxabaletan, hilaren 23an, Arkupen, 17:30ean; Leintz Gatzagan, apirilaren 24an, udaletxean, 19:00etan; Arrasaten, Kulturaten, apirilaren 28an, 18:00etan; Bergaran, hilaren 29an, Irizar jauregian, 18:00etan; Eskoriatzan, maiatzaren 5ean, Ibarraundin, 18:30ean; eta Oñatin, maiatzaren 6an, Eltzian (Eteon), 18:00etan.

Parte har daiteke ere *Gipuzkoa* aldizkariarekin batera bidaliko duten esku-orria bete eta horretarako herri guztietan ipiniko diren buzoietan sartzea; eta [www.aurrekontuahobetzen.net](http://www.aurrekontuahobetzen.net) webgunean. Internetez eta buzoien bidez, aportazioak apirilaren 30era arte egin daitezke.

### Proiektu pilotua egin zen

Partaidetzazko aurrekontuen egitasmoa Urola Erdian jarri zuten martxan, 2013an; iaz, Gipuzkoako lau eskualdetara hedatu zuten, eta orain lurralde osora iritsiko da.

## Ekarpenetatik datozen errenta negatiboak, tratamendu hobea

L.K. | DEBAGOIENA

Mendeko finantza ekarpenek, mendeko zorrak eta lehentasunezko partaidetzek eragindako errenta negatiboak integratzeko eta konpentsatzeko aukera zabalagoa emango duen foru araua onartu da apirilaren 7an.

Diutatuen Kontseiluak martxoan onartu zuen foru arau proiektua berriazko arau bihurtu da. Helburua da inbertsio horiek ekarritako errenta negatiboak "modu malguagoan" integratzea eta konpentsatzea. Krisi garaian, zerga alorretan "zenbait sektoreri erantzuteko" neurrien multzoan sartzen du

hori Foru Aldundiak. "Kalteen ondorio negatiboak nolabait arindu" nahi ditu, "egoera larria baita", Aldundiaren hitzetan.

Honakoa dio Foru Aldundiak: "Informazio desegokia jaso ondoren, hainbat aurreztailek arrisku handiko finantza produktuak eskuratu zituzten, eta galera handiak izan zituzten. Besteak beste kooperatibismoaren mugimenduak sustatutako mendeko finantza ekarpenak, Eroski eta Fagorrenak, eskuratu zituzten aurreztaile txiki askok eta inbertsio horiek galera nabarmena ekarri zieten".

Gipuzkoako Partaidetzako Aurrekontuak

2 MILIOI euro DEBAGOIENA hobetzeko


Egin zure proposamena [www.aurrekontuahobetzen.eus](http://www.aurrekontuahobetzen.eus) webgunean eta parte hartu zure herriko tailerrea:

ANTZUOLA, APIRILAK 22, asteazkena, 18:30ean, **Olara**  
ARETXABALETA, APIRILAK 23, osteguna, 17:30ean, **Arkupe Kultur Etxea**  
LEINTZ GATZAGA, APIRILAK 24, ostirala, 19:00etan, **Udaletzeko Udalbatzar Aretoa**

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

 Gipuzkoa BERRIA



# 'Herri hezitzailea, eskola herritarra', ametsa ekimen

- ▶ Egitasmoaren bultzatzaile dira, besteak beste, Huhezi eta Txatxilipurdi
- ▶ Haurren hezkuntza eta aisia beste modu batean egin daitekeela uste dute

**ARANTZAZU EZKIBEL** | DEBAGOIENA  
Herri hezitzailea, eskola herritarra ekimena aurkeztu zuten atzo, eguena, Arrasaten. Haurren hezkuntza eta aisia beste modu batean egin zitekeela amesten zuten sei eragilek bultzatutako ekimena

da. Egun, hainbat taldek egin dute bat ekimenarekin, eta egitasmoan daude, besteak beste, Huheziko Sorguneak ikertegia eta Txatxilipurdi aisialdi taldea. Zazpi kontzeptutan oinarritzen da taldeak proposatzen duen aisia-

redua, eta oinarrian haurrei parte hartzeko eta erabakitze ahalmena aitortzea dago: "Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortu, eta hori oinarri hartuta, haurrei benetako parte-hartze eta erabakitzeko ahalmena eman, eta eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinean eta parekide izanez, eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate sarea eta auzolana indartzea eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea".

## Aholkuak

Lantaldeak bost liburuxka atera ditu; proposatzen dituzten aisia eredu gainera aholkuak eskaintzen dituzte. *Nola egin ludoteka parte-hartzailea* liburuxka, adibidez, Txatxilipurdik egin du. Horrez gain, *Herri hezitzailea, eskolara herritarra* jardunaldiak antolatzen dituzte Donostiako Kursoalean, apirilaren 24rako eta 25erako.



Ekimeneko ordezkariak atzoko aurkezpenean, Arrasaten. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Goiaz!, Lanbide Heziketa gertutik

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE  
Bisita gidatuak baliatuta, ikasketeen eskaintza akademikoak ezagutzen ibili dira bi egun inguruko ikasle eta herritar ugari Arrasateko Kulturaten,

Goiaz! azokan. DBH 4ko eta Batxilergoko ikasleak izan ziren gehiengo, etorkizuneko ikasketen gaineko informazio bila. Ikasleen proiektuak ere ikusi zituzten eta hitzaldiak entzun.



Ikasle taldea eskaintza akademikoaren gaineko azalpenak entzuten. | M.B.

## Grafenoa ikasgai, Arizmendiren eskutik

**KOMUNITATEA GOIENA**  
ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Eraikuntzako Heziketa Zikloak *Grafenoa duten Margota eta Mortero ekologikoen belunaldi berria* hitzaldira gonbidatzen zaituzte. Graphenstone enpresako ordezkari Yoana Iturain izango da hizlaria. Grafenoa zer den argituko digu. Bere funtzionalitatea, fabrikazioa eta beste mate-

rialetan eragin ditzakeen onurak. Profesionalei, arkitekturen eta hirigintza estudioei, enpresa eraikitzaile eta sustatzailei, instalatzaileei, erakunde publikoari eta interesa duen edozeini zuzenduta dago. Apirilaren 23an da, 11:30ean. Ferixalekuan (Arrasate). Izena apirilaren 22a aurretik eman behar da [lanbide@arizmendi.ikasola.net](mailto:lanbide@arizmendi.ikasola.net) helbidean edo 943 71 20 25 telefonora deituta.



Arantza Tapia eta Miren Elgarresta, eguaztenean, Oñatin. | ARGAZKILARIAXXX

## EAEko ekonomia, enpresak eta Candy, besteak beste, berbagai

**MIREN ARREGI** | OÑATI

EAEko ekonomiak eta enpresek dituzten erronkez eta horiei aurre egiteko hartu beharreko bideez jardun zuen herenegun, eguaztenea, Arantza Tapia Ekonomia sailburuak Oñatiko kultur etxean.

Besteak beste, Tapiaren iritziz, EAEk jarraitu behar du izaten "oso industrial". Haren esanetan, demostratu baita herri industrialek askoz ere hobeto jasan dutela krisialdia. "Beraz, asmatu genuen eta bide horretan jarraitu behar dugu".

## Orain arte, elkarrekin

Candyren gainean Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko aferaz galdetuta, Tapiak azaldu zuen orain arte halako arazo bat egon denean

erakundeek elkarrekin lan egin izan dutela. Eta hala erantsi du: "Candyko kasua badirudi zerbait berezia dela eta norbaitek ez du gura Jaurlaritza bertan egotetik".

Gaineratu zuen Candyko langileekin bilera bat baino gehiago egin dituztela eta etorkizunean bertan aktibitate industrial mantentzea dela helburua. Bide horretan, Jaurlaritzaren konpromisoa berretsi du aldundiarekin, udalekin eta bereziki, langileekin. Betiere, hori egin ahal izateko leialtasuna eskatu du: "Lortu behar duguna da proiektua ez uxatzea, ze inbertsore pribatuak uxatzeko aukera handia dago. Proiektuak landu behar dira, izan ere, ezin ditugu langileak atzera bueltarik ez dagoen bide baten ipini".



Langileak elkarretaratzean, eguaztenean, ospitalearen aurrean. | M. DEOGRACIAS

## Apirilaren 23an eta 24an greba egingo dute ospitaleko langileek

**MARIJO DEOGRACIAS** | DEBAGOIENA  
*Kalitatezko Osakidetzaren alde* lekoarekin protesta egin zuten herenegun, eguaztenea, Debagoieneko Ospitaleko hainbat langilek. SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta ordezkariak duten gainerako sindikatuen deiarri erantzunez. Euren "eskariei entzungor" egitea leporatzen diote Osakidetzaren zuzendaritzari. Hori dela eta, "benetako negoziazioa" behartzeko bi eguneko greba deitu dute: apirilaren 23rako eta 24rako.

Apirilaren 23rako, elkarretaratzeko Donostiako Pio XII, Gasteizko Santiago eta Barakaldoko Gurutzetako ospitaleen aurrera deitu dituzte. Apirilaren 24an,

berri, Bilbon egingo dute manifestazioa. Eta bi protesta horien aurretik, biharko, zapatua, manifestazioa deitu dute, Bilbon.

## Ordezkapenak, lan eskaintza...

Enplegu publikoaren benetako eskaintza egin dezala exijitzen diote Osakidetzaren zuzendaritzari, bai eta aurreko jardunaldira buelta eta lizentzien berreskuratzea ere. Horrez gain, ordezkapenak lehenengo egunetik indarrean sar daitezela eskatzen dute eta 2011ko Garapen Profesionala amaitzea. Sindikatuen ordezkarien iritziz, "egingarriak dira puntu guztiak, gainontzeko administrazioetan argi geratu den moduan".

## Arizmendiarieta, Beneragarri izendatzeko bidean

**TXOMIN MADINA** | DEBAGOIENA

Hilaren 22an beteko dira 100 urte Jose Maria Arizmendiarieta apaiz ekintzailea jaiotzeko, eta haren kanonizazio bidean beste urrats bat egin dute: Erroman, kanonizazio eskaria aztertu duten bederatzita teologok osatutako batzordeak aho batez erabaki du Arizmendiarietak merezi duela Beneragarri izendapena.

Orain, teologoaren iritzia Kardinalen Batzordera erango dute, eta hark erabakiko du proposamena bere egin eta aita santuaren aurrean aurkeztea. Aita Santua bera da Beneragarri izendatu edo ez erabakiko duena.

Arrasateko parroko eta Arizmendiarieta kanonizatzeako batzordeko kide Horazio Argarateren esanetan, teologo batzordeak azterketa sakon baten ostean hartu du erabakia; besteak beste, Arizmendiarietaren bizitza eta idazkiak aztertu dituzte. Kanonizatzearen aldeko batzordeak egindako lana ere goraiatu du Argaratek, baina gaineratu du bidea oraindik ere luzea dela.

## ZABALIK

AITOR BIAIN  
goiena.eus/komunitatea/



## Teknologia berrien ajeak

Teknologia berriek gudan duten dependentzia ikaragarri handitu da. Gazteak etxetik kanpora doazenean eta taberna edo espazio batera sartzen direnean, lehenengo galdara hau izaten da: "Badago wifirik?".

Teknologia berriek erraztasun asko ekarri dizkigute: informazioa momentuan, komunikazioa, edozein lekutatik lan egitea... baina badituzte beste eragin eztabaidagarriago batzuk ere. Teknologiak aukera zabala ematen du: ordenagailua, mugikorra, iPada, iPod...

Teknologia eta aplikazio ugari daude, eta pertsona bat koberturik ez dagoen toki batera iristen denean haserretu egiten da. Eszena kuriosoak ere izaten dira: pertsonak sabaian kobertura bila, eramangarriarekin kalean wifi bila... Modan ipini den beste egoera bat: jatetxe batera doan kuadrilla bateko kideak, eseri bezain pronto, mugikorrak mahai gainean ipintzen dituzte, mahai-tresna bat izango balitz bezala.

Roser Gatell-ek dio: "Arazoa da teknologia berrien erabileraren kode deontologikorik ez dagoela". Eta dio teknologia horien erabilera zuzena etxean, eskolan, familian, komunikabideetan... egin beharko litzatekeela.

Non daude teknologia berrien erabileraren mugak? Eskoletan, adibidez, ezin da mugikorrik eraman, baina, eskoletan ordenagailuak erabiltzen dituztenez, hor egiten dute erabilera. Unibertsitateetan, aldiz, ez dago kontrolik, irakasleak eskolak ematen ari diren bitartean, gazteak Whatsappekin edota Facebooken aritzen dira.

Debekatzea ez da praktika zuzena, baina erregulatu egin beharko lukete. Hala ere, dagoeneko esaten da laster hegazkintan hitz egiteko aukera eta nabigatzeko aukera egongo dela.

Gainera, badago beste arazo bat: belaunaldi berriak konexio iraunkor eta jokabide berrietara ohitu dira dagoeneko. Badu honek konponbiderik?

**Pertsonak sabaian kobertura bila, eramangarriarekin kalean wifi bila...**

## USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabaria@goiena.eus

## Inbasioa arkupeetan

Oñatiko plazan badaude arkupe eder batzuk. Entzunda daukat -nik ez baitut horren bizipenik- herritarrek paseatzeko, aterpean egoteko, elkarbizitza egiteko... erabiltzen zituztela lehen. Nik eta beste oñatiar askok ez dugu horren bizipenik, gaur egun ezinezkoa delako hori egitea; hango tabernetako terrazek inbadituta dute lekua, eta inbasioa zabaltzen doa urteak pasa ahala. Ez hori bakarrik: herritar guztion diruarekin egindako bankuak ere tabernen mahai artean galduta geratu dira, bezeroendako bakarrik balira bezala. Inoiz ibili ahal izango gara berriz libreki gora eta behera, paseatzen, jolasten, berriketan, mahai eta aulkiek horrelakorik galarazi barik?

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Erretzaileen kluba

Jon Goikolea  
http://goo.gl/ROpNNE

Elkarri bostekoa eman diote Raul Castro eta Barack Obama Panaman egindako Ameriketako VII. Goi Bileran. Kanalaren herrialdean izan da, Ozeano Pazifikoa eta Karibe itsasoa ur-marra fin batek lotzen dituen lekuan bertan. Hortxe metafora. Tamaina eta izate oso ezberdineko bi itsaso eta bosteko humano bezain fin bat biak lotzeko.

Kuba Karibea da, noski, ezberdina, Antilletako itsasoa. Estatu Batuak ozeano handi eta pazifikoa dira. Eta bi urak komunikatzeko konportak irekitzeko prest daudela dirudi berrogei eta hamar urte eta gero.

Obamak une historiko baten aurrean gaudela esan du, itsaso handiaren aldean nabigatzeak ematen duen segurtasunetik. Raul Castrok ordea pazientzia hitza erabili du. Ez du kontrolik gabeko korronterik nahi, badakielako hau, egotekotan, bere herriaren kontrakoa izango dela eta badakielako ere, iraganeko iraultza-haizeek ez dituztela kubatarren bela zaharrak gehiago puztuko.

Cuban deitzen diete Estatu Batuetan Kubatik inportatutako zigarroei. Plazer ilegala da *kubatarrak* erretzea. Ikusiko dugu pasa den asteburuko bostekoarekin ez ote zaion erretzaileen klub berri bati hasiera eman. Kubatarrak eskusiboki erretzeko sortutako klub eskusiboki bat, atak itxita dituen gutxi batzuentzat salbu, eta konportak, aldiz, guztiz irekita. Guztiz irekita Estatu Batuen ozeano handiak Kubako urak uholde bihurtu ditzan. Historia orriek esango digute. Bitartean erre dezagun denbora apur bat, ordulariaren klub honetako kide, guztiak gara eta.

matrikuladun autoak ezarri dion erritmo makala, bereziki Oreretako paper-fabrikaren paretik aurrera. Gidariak inguruotako kirats kronikoa laket duela egin dio apustu bere buruari gaizto, eta espantuka hasi da itsuski, aitona-amonon baserriko mandoa gogora ekarriz.

Kaputxinoetako tunelaren irteera ikusi orduko hartu ahal izan dio aurea turista despistatuari, hain zuzen, alimaleko burrunba batek bazterrak inarrosi dituen. Hekatonbe belikoa zirudiena aspaldidanik ezagutzen du ordea, inguruan koskortu diren guztiek bezala: Pasaiako portuko garabiak txatarra kaira ateratzen egiten duen harrabotsa izan da, ezbairik gabe. Berehala ikusi ditu herdoil mendiak.

Kaka-mokordo robotiko erraldoiak dirudite, oraintxe egin berri-berriak, halako ke trinko zikina dariela.

Ispilutik begiratuta, ziraldoka ikusi du matrikula frantsesdun autoa, ezusteko trumoi-izua kontrola galtzeko zorian jarri izan balu bezala, eta errukia sentitu du, eta damua, gogaitarazteagatik. Bere aldarre txarraren errua inguruneari egotzi dio gero, bere asmaren ardura bezala.

## Errepidean

Garbiñe Ubeda  
http://goo.gl/kbEWmf

Ordu lasaia denez, sorterria ikusiz egingo du Donostiarainoko bidea gaur, gizon asmatikoak; Bidasoa-Txingudiko eskualdetik abiatu eta Oarsoaldean barrena, beraz, hitzordu esturik ez duen aitzakian. Berezko presarik ez, baina pazientzia handiegirik ere ez antza, ezin eraman baitu aurreko frantses

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


**Maketazioa** Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Zortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetzea eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Erramu Zapatuko bazkaria 2015

### Beñat Iñarra Lasa

(Erramu Zapatuko lagun taldearen izenean)  
Bergara

Jun jaku aurtengo Erramu Zapatua be, eta herri bazkaixa antolatzen ibili gazenon izenian, eskerrak emon nahi dotzau hainbat jenter, dana hain ondo juten lagundu zebelako. Hau horrela izanda, ezin gara herriko hainbat merkatarikin ahaztu: Mizpildi eta Konde okindegixak; Bixain harategixa; Mujika, Raizabal eta Larrañaga gozotegixak; Miner ardauek; Mertxe urdaitegixa; Berroia inprentia eta Bergarako Udala.

Honez gain, ezin aipatu barik laga zerbitzarixen lana eta baita hasieratik gurekin dabizen sukaldarixena be. Ze esan txaranga eta trikitilarixei buruz, eurak barik egun hortako girua ez litzake inundik inora berdiña izango. Desmontaian laguntzen geratu zan jente dana be aipatu nahi dou, lanak asko erreztu zien-eta danon artian egindda. Arratsalde partian be giro ikeragarrixa egon zan kalian txarangiak esker, eta ze esanik ez gabeko gaztetxeko kontzertuetan.

Gozategi eta DJ DZrekin gaztetxia goraiño –pena jentia kanpuan geratu behar izatia– eta beste behin gaztetxeko jentia lan aparta, aupa zuek!

Honekin batera, lerro honek aprobe txau nahi diltugu bazkaixa eta gainontzeko gauzak antolatzen ibili gazenon izenian eskerrak emuteko ekintzetan parte hartu dozuen guztixoi. Izan be, datorren urtiai begira bazkarixa antolatzia izagazteko asmua daukou, gure ziklua bukatu dala uste doulako eta haize freskua bihar dalako antolakuntzan. Gustauko jakun egun honi emun nahi izan dotzau baloriekin –euskal kultur, herriko merkataritza, elkarlana... herrigintza, azken batian– jarraituko dabean egun bat datorren urtian be ikustia. Ia ba norbait animatzen dan; bittartian, gora Erramu Zapatua.

## Bestelako Bergara eraikitzeo ideiak

### Juan Jesus Alberdi

(Begarako EAJ-PNVren alkategaia)  
Bergara

Begarako Udalerako aurkezten garen EAJ-PNVren taldekideok eskerrak eman

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

nahi dizkizuegu bergararroi, etxeetara bidali dugun parte hartze orriak izan duen arrakastagatik. Eskerrik asko 350etik gora ekarpen jaso ditugulako. Zuen ekarpenei esker, Bestelako Bergara lortzeko, galdutako denbora berreskuratzeo jasoko ditugu ideiak.

Ia gehienok hondakinen kudeaketan erabateko aldaketa eskatzen duzue, 5. edukiontzia aldarrikatuz. Gehienek kudeaketa eta gobernatzeo beste modu bat eskatzen duzue, inposaketatik erabatu urrun, eta Donostian eta Arrasaten 5. edukiontzia zergatik bai eta Bergaran ez galdetzen duzue, eta Azkoitian eta Deban egindako kontsultak zergatik ukatu dituen hemen Bilduk.

Zuen kezka dira garbitasunik eza, pintadak, kaleen asfaltoaren egoera, argiteria eskasa zenbait lekutan, sasi eta landareen garbiketarik eza, txakurren hondakinak nonahi... Bergarar gehienok aldarrikapena da Bergara garbiago mantentzea eta propaganda gutxiago egitea.

Ekonomia eta langabezia: Udalak gehiago egin dezakeela aldarrikatzen duzue, enpresari, autonomo, merkataritza eta hezkuntza zentroekin elkarlanean, baita Foru Administrazioarekin eta Jaurlaritzarekin, eta bat gator horretan; Udalak proaktiboia izan behar du Bergarako ekonomia sustatzeko. Aldarrikatzen duzuen Udalak Bergarako iragan arrakastatsua, egungo egoera gainditzea eta etorkizun hobia izan dezan asko egin dezake.

Zuen hitzetan, lana sortzeo lehentasuna eman behar zaio, baina ez alderdikeria eta faboritismoko adjudikazioak eginez. Kezka handiz azaltzen duzue.

Gazteei dagokien ez faltan igartzen dituzue formazio ez akademikoa, lokalak eta gazteentzako ekintza bereziak. Gazteen partaidetza aldarrikatzen da Bergararen parte garrantzitsu bezala, eta ez arazo bezala, nahiz eta badagoen kekuren bat boteloiaren eta gaueko ekintza konkretu batzuen inguruan.

Kezka nagusienetakoa mugikortasuna dugu, erdigunetan eta auzoetan ere aparkalekuaren beharra

aipatzen duzue behin eta berriz. Jende askok kanpora joateko joera daukalako, herrian bertan aparkatzeko dagoen arazoagatik. Arazo larria da hau eta orain 8 urte gure alderdiak parkinga egiteko proiektua bertan behera utzi zuen ezker abertzaleak. Arazoa areagotu egin da bergararentzat, eta, batez ere, merkatarientzat. Parkinga egin beharra dago.

Beste kezketako bat Udala modu profesionalagoan kudeatzeko beharra da; Gobernu eraginkorragoa behar dute, beste modu batera kudeatzea. Eta zer esanik ez auzo urbano eta landa auzoek; hauek kontuan hartzeko eskaerak ugariak dira.

Ekarpen hauek guztiak eta jasotzen ari garenak dira prestatzen ari garen eta datozen egunetan ezagutzera emango dugun programaren oinarri.

Mila esker zuen ekarpenengatik eta jakizue zuen eskaerak jasotzen jarraituko dugula datozen egunetan eta agintaldian zehar.

## Arrasatearrei, Azoka Plaza biziberritzeko GUreztatu prozesua dela eta

**Maider Sagredo (Emaus), Elena Zarate (Arrasateko Garagunea), Gorka Martinez (Harreman denda), Nagore Iraola (Bagara), Mireia Baz (Txatxilipurdi) eta Jesus Mari Elkoro (Ibai-Arte)**  
Arrasate

Arrasateko Udalerako EAJko alkategai Maria Ubarretxenak GUreztatu ekimenaren inguruan eta konkretuki Arrasateko Azoka Plazaren kokalekuaren desegokitasunaz egindako adierazpenen harira, pasa den azaroan gertatu zitzaigun bezala, gure nahiaren kontra prentsa bidez erantzutera beharturik sentitu gara prozesuaren Talde Eragilea osatzen dugun eragileok. Orduan adierazitako hainbat kontu errepikatu nahi ditugu berriz: -Hiru urte daroagu azokaz hausnartzen, norbanako eta

eragile askoren iritzia jasoaz, eta duela bi urte erabaki zen Azoka Plaza egun den kokagunean ezartzea. Lehen sakoneko erabakia, asko pentsatua, ekonomia, herri antolaketa eta plano soziala aintzat izan zituen.

-Erabaki horrek bideratu du urteotako lana. Sorturiko lantalde ezberdinek eraikin horren gainean egin zuten lan, kokagune hori buruan. Udalak ere, zuen aldeko botoaz, eraikin hori kontuan izan du eta horren seinale igogailua edo herribusaren ibilbidea aldatzea.

-Udan kokagune berria proposatu zenuten, erabakia aldatzeko oraindik ez ei zen berandu. Talde Eragileak ikusirik zuentzat eskaerak zuen garrantzia Hirigintza Sailari txosten bat eskatu zitzaion Biteri plazan azoka jartzeko aukera aztertuz. Txostena eskuan ez dugu bideragarri ikusten azokaren osotasuna bertan jartzea. Zuen asmoak ez du jasotzen Azokarako eginiko egitasmoa eta azken urteotan adostutakoa zakarrontziratzen du.

-Biteri estrategikoa da aire libreko ekitaldiak antolatzeko. Estalaz gero, zein da geratzen zaigun aukera, Iturribe? Prezio altuegia da hori, herrian eztabaida merezi duena. Azoka Plazak ez du kokaleku txarra, gertu dago Seber Altube, Kulturate edo Biteririk. Eraikinak berak uste dena baino aukera gehiago ditu, eragileok praktikan egiaztatu moduan.

-Sinatzaileok uste dugu eraikina ez dela berme, atzetik jarduerarik ez bada. Biterik oso metro karratu gutxi ditu jarduerak egiteko, eta eragozpen teknikoak (zimentazioa, etab.) Honela ezin dugu azoka bultzatu ez beste hamaika kontutarako baliatu. Bideragarriena da egungo kokagunea, zentzudunena eta arrisku gutxien asumitzen dituen.

-Zenbait eremutan, prentsan esaterako, gaiak izan duen isla ez dugu gustuko izan. Utz dezagun Azoka Plaza alderdi lehiatik at.

Udal hauteskundearen atarian gauden honetan, azken puntu hori nabarmendu nahi genuke. Azoka Plaza biziberritzea herri erronka da herri eragileontzat, eta beharrezkoa da guztiok norabide berean lan egitea.

Iritzi guztiak dira zilegi, baina erabakia hartu zenean GUreztatu parte hartze prozesuaren parte zen EAJ eta bertan ez zuen kontrako iritzirik eman.

Seriotasuna, errespetua eta elkarlana da eskatzen duguna, eta ez garai jakin batean egindako kalkulua elektoral.

## Begarako 'Atomium'

### Valen Moñux

Bergara

Aurretik inongo erreferentziarik izan gabe eskultura berri bat topatu nuen San Lorentzoko industrialdeko errotonda baten.

Estruktura atomiko bat irudikatzen du eta erdian W letra dago. Lehenengo ikuspegi Bruselako *Atomium* monumentua bururatu zitzaidan, baina ez da zaila konturatzeko wolframioaren errepresentazioa dela.

Oso eskultura fina eta ikusgarria da eta bere sinbologia oso argia da.

Jakin dut Bergarako Filber galdaragintzan egina dela, baina ez dut lortu jakiterik nor edo nortzuk izan diren diseinatzailak. Hala ere, zoriondu egin nahi ditut eskultura berri honen bultzatzaile eta egileak. Oso ondo dago leku publiko baten hain modu dotorean Bergarako historian hain garrantzitsua izan den wolframioaren –edo tungstenoa– deskubrimendua goraitpatzea.

Azkenik, Errege Mintegia sortu zuten ilustratuei beste omenaldi bat egitea lortzen da eskultura honekin, eta, zalantzarik gabe, gure herriarendako ikono edo ikur berri bat sortzea lortu da.

Traba txiki bat jartzekotan, adieraziko nuke garbi dagoela Amillagako errotonda ez dela oso leku aproposa argazkiak ateratzeko, bere inguruan ia ezinezkoa delako turisten *souvenir* argazki tipikoak ateratzeko. Hori dela eta, proposatzen dut eskultura horren beste erreplika bat jartzea, nahiz eta txikiagoa izan, beste leku *fotogeniko*ago baten –Munibe plazan, adibidez?-. Amillagan egin den bezala, hemen ere, bere oinarrian Markinako harri beltza erabilteko proposatzen dut.

Aukeratu da wolframioaren antza duelako, baina gogorarazi nahi dut Markina herria dela Munibe familiaren sorlekua eta bertan lurperatuta dagoela Xabier Maria Munibe, Peñafloreda VIII. kondea, Elhuyar anaiekin batera, wolframioarekin zeharo lotuta dagoen izena.

# Erabili Goiena Klubeko txartela komertzio eta zerbitzu hauetan:



## ALZU SL. Ehiza eta arrantza

Aranburuzabala 2. Oñati. 943 78 30 67  
 • Arropetan %10eko deskontua

## CARAVANAS OÑATE. Galdaragintza. Bizikletak

Otadui zuhaitzia 25. Oñati.  
 943 71 63 50 / 943 78 05 65  
 • 50 euroko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan (Ez du balio beste promozio batzuetarako).

## NAREN. Fisioterapia eta osteopatia zentroa

Belorrieta 5, behe. Aretxabaleta. 943 08 21 89 - RPS: 289/13.  
 • %15eko deskontua zerbitzu guztietan (errehabilitazioan izan ezik).

## ESKO SPORT. Kirol denda

Intxaurtxueta 5. Eskoriatza. 943 71 52 96  
 • Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

## ESTACION SERVICIO ARRASATE. Gasolindegia

San Andres 7. Arrasate. 943 71 24 72  
 • % 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.  
 • % 2ko deskontua dendako produktuetan.

## GAHIR. Fisioterapia / Osteopatia

Aranburuzabala 6, behe. Eskoriatza. 943 71 43 41 - RPS: 320/13.  
 • %50eko deskontua lehenengo kontsultan.

## NINIKA. Loradenda

Ramon Maria Lili 8. Bergara. 943 76 10 01  
 • %10eko deskontua artikulu guztietan.

## GAES. Entzumen zentroa

Otalora 18. Arrasate. 943 71 27 93 - RPS: 56/10.  
 Zurradero 10. Bergara. 943 76 94 55  
 • %10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

## MO Multioplicas. Optika

Juan Carlos Guerra 1, behe. Arrasate. 943 79 29 95 - RPS: 149/10.  
 Ibargari 16. Bergara. 943 76 15 75  
 • %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

## ARRIKRUTZ KOBAK. Aisialdia

Araotz auzoko bidea. Oñati. 943 08 20 00  
 • Sarreran %10eko deskontua (gehienez bost pertsona).

## LILURA EDERTZE INSTITUTUA. Estetika zentroa

Bidekurutzeta 7. Bergara. 943 76 31 71 - RPS: 299/13.  
 • %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).  
 • %20eko deskontua elikagai-intolerantzia proban.  
 • %10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.  
 • %10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat.

## KUTTUNA. Estetika zentroa

Aranburuzabala 19, behe. Eskoriatza. 943 71 51 20 - RPS: 285/13.  
 • %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).

## OÑATI GARAJEA. Autoen garajea. Konponketak

Goribar auzoa 9. Oñati. 943 78 13 50  
 • %5eko beherapena egiten diren konponketetan.

## TXURI URDIN. Izotz jauregia

Anoeta ibilbidea 24. Donostia. 943 46 44 04  
 • % 20eko deskontua zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia).  
 • % 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

## JAUJA KIROLAK. Kirol denda

Irizar pasealekua 1, behe. Bergara. 943 76 14 95  
 • Produktu guztietan %10eko deskontua.

## SARA MERENDERUE. Jatetxea

Meatzerreka auzoa 19, Kanpazarrera bidean, 3 km-ra. Arrasate.  
 943 77 15 86  
 • Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, bazkarian, kafea doan.  
 • Aste bukaerako afarian, eguneko menuarekin, kafea doan.  
 \* Eskaintza honek kafe bat hartzen du barne, Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko.

## AZPEITXI. Jatetxea

Aranerrekalea 13, Bergara. 943 76 55 00  
 • Eguneko menuan, bazkarian, kafea doan.  
 • Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian, kafea doan.  
 \* Eskaintza honek kafe bat hartzen du barne, Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko.

## ALDAPE. Jatetxea

Iturriotz 41. Arrasate. 943 79 63 69  
 • Astelehenetik ostiralera, eguneko menuan, bazkarian, kafea doan.  
 • Aste bukaerako menuan, bazkarian edo afarian, kafea doan.  
 \* Eskaintza honek kafe bat hartzen du barne, Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko.

## ZABALA. Jatetxea

Labegarieta 14, Bergara. 943 76 42 57  
 • Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian, kafea doan.  
 • Eskaintza honek kafe bat hartzen du barne, Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko.

## GRACIAN MERTZERIA. Mertzeria

Bidekurutzeta kalea 6, Bergara. 943 76 10 25  
 • 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.

## INSTITUTO OPTIKOA Optika

Erdiko kalea 22, Arrasate - RPS: 115/13.  
 943 79 71 68  
 • %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta audifonoetan.

## IONE MOÑUX. Fisioterapia zentroa

Burdiñate plaza 2, Bergara - RPS: 301/14.  
 943 76 21 31  
 • Lehenengo saioa, prezio erdi.

## LONBIDE OINETAKOAK. Oinetako denda

Bidekurutzeta kalea 5, Bergara. 943 76 10 57  
 • Produktu guztietan %10eko deskontua.

## MARKIEGI. Jantzi denda

Olarte kalea 2, Arrasate. 943 79 15 32  
 • Produktu guztietan %10eko deskontua.

## MIREN GARAI ESTETIKA ETXEA. Estetika zentroa

Zarugalde kalea 23, 2 ez. Arrasate. 943 79 96 90  
 • Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.

## ML ILE APAINDEGIA. Ile apaindegia

Alfontso X Jakintsua plaza 1 behe, Arrasate.  
 943 79 79 65  
 • "Nanokeratin system" proteina tratamenduan %20ko deskontua.  
 • Beste edozein zerbitzutan %5eko deskontua.

## NEBRASKA. Taberna

Zarugalde 35 - Arrasate. 943 79 09 39  
 • MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat  
 • Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxitoa doan  
 • Interneteko menuetan %5eko deskontua

## PORTALOI OPTIKA. Optika

Erdiko kalea 10, Arrasate - 943 79 65 56 - RPS: 262/13.  
 • %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

## P. MANSO OPTIKA. Optika

Irizar pasealekua 2, Bergara - 943 76 27 86  
 • Produktu guztietan, %15eko deskontua (beste promozio batzuekin ez metagarria).

## ARRASATE HOTELA. Hotela **BERRIA**

Biteri etorbidea, 1. Arrasate. 943 79 73 22  
 • Aste bukaeretan edo jai egunetan bi eguneko egonaldia, 100 euro (BEZa barne). %20ko aurrezpena tarifatik.

## EGAZKA TABERNA. Taberna **BERRIA**

Loramendi kalea, 1, behe. Arrasate. 943 79 00 34  
 • Egunero bi garagardo (kaña) edanez gero, hirugarrena euro baten truke.

## HILARION TABERNA. Taberna **BERRIA**

Larrea plaza, 5. Arrasate. 943 77 01 69  
 • Astelehenetik ostiralera, eguneko menuarekin, kafea doan. Aste bukaeran karta edo menu bereziarekin, kafea doan.

## BUENUENA JATETXEA. Jatetxea **BERRIA**

Jokin Zaitegi plaza, 8. 943 79 79 60. Arrasate  
 • Astelehenetik ostiralera, eguneko menuarekin, kafea doan. Aste bukaeran karta edo menu bereziarekin, kafea doan.

## IRUDI SPORT GIMNASIOA. Gimnasioa **BERRIA**

Uarkape, 2, behe. 943 77 20 87. Arrasate  
 • Maiatzean matrikulatuz gero, matrikula doan.

## IZADI BELAR DENDA. Belar denda **BERRIA**

Seber Altube plaza, 8. 943 79 75 79. Arrasate.  
 • %5eko deskontua kosmetika naturaleko produktuetan (eskaintza ez metagarria).

## AKER TATTOO&PIERCING. **BERRIA**

Ferrerias 44, behe. Arrasate. Tel.: 943 79 92 84  
 - %10eko deskontua 2. tatuajea (2. tatuajea, gehienez, lau hilabeteko epean egin behar da).  
 - Pertsona berak bi piercing egun batean eginez gero, 2. piercing-ak %20ko deskontua.

## HAURTXOA. UME DENDA. **BERRIA**

Erdiko kalea 16, behe. Arrasate. Tel.: 943 79 14 90  
 - %10eko deskontua produktu guztietan (Eskaintza ez metagarria).

Eskaintza gehiago ikusteko: <http://goienakluba.com>

**goienakluba**  
 Euskara irabazle, denok irabazle!



# HERRIAK

## Mugitzen dabilen udalerrria

- ▶ Lur-mugimendu handi batek sortutako erdi-lautada batean eraiki zuten Leintz Gatzaga
- ▶ Herritarrek igartzen ez dituzten arren, etengabeak dira mugimenduok, lur azpian

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Hogeita hamar metroko lur sako-neraraino, Leintz Gatzagan ez dago harkaitzik. Lurra eta ura da bakarrik. Hala, lurra desplazatzen denean, ez dago ezer hari eusteko. Eta horren ondorioz, lur mugimenduak gertatzen dira.

Udalerrriaren sorreratik izan da horrela. Eta horrela izaten segitzen du gaur egun ere.

Horrek, besteak beste, pitzadurak, arrakalak eragiten ditu herriko eraikinetan. Etxe barruetan, fatxadetan... Halakoetan ohi denez, handienak etxe zaharretan eta hutsetan azaltzen dira. Soran jauregia, adibidez, goitik behera berritu behar izan zuten, lur mugimenduek jauregiaren zutoinak ere kaltetu zituztelako. "Oinarririk desplazatuta zeuden, nahiko nabarmen", esan du Asier Ugartek, Gatzagako Hirigintza zinegotziak.

### Eremu osoa mugitzen da

1980ko hamarkadan hasi zen Gipuzkoako Diputazioa mugimenduak kontrolatzen, Leintz Gatzagatik pasatzen diren errepideak aitzakia.

Geroxeago, udalerriko pilotalekua eraiki zenean eta udal-terrea desmuntatu eta muntatu zutenean –orain dela 30 urte–, mugimenduak modu orokorra goan kontrolatzen hasi ziren. Adibidez, udal-terrea gaur egun dagoen tokian eraikitzerik baze- goela ziurtatzeko; edozein modutan, eskoilera erraldoi bat eraiki zuten, frontoia zein udal-terrea eraikita dauden gune horretako mugimenduak apur bat egonkor- tze aldera.

Orduantxe jabetu ziren Leintz Gatzagan mugitzen den eremua "pack" osoa dela, udalerriri eta inguruari dagokion esparru osoa, alegia. Eta ez direla mugimendu solteak izaten.

### Jarraipen zehatza

Orain, datuekin jantzi dituzte mugimenduak, azken lau urteotan Gipuzkoako Foru Adundiak eta Euroestudios enpresak mugimendu horien uneoroko jarraipena egiten ibili ondoren.

Ugarte zinegotziak jakinarazi duenez, zeregin horretarako teknologiarik modernoena darabilten tresnak baliatu dituzte: GPSa, zundaketak, hitoak eta satelitea. Horri esker, datuak Gatzagan bertan batu –etxeen



Pitzadurarik handiena. | U.M.



Arlabango mendatean orain dela bi urteko luizia. | UBANE MADERA



Kiroldegi barruan. | U.M.

fatxadetan jarritako prismen eta fisuometroren bitartez –eta Madrileran bidaltzen dituzte. Gatzagan bertan jarritako zentralita baten bitartez: "Zentralita hau konektatuta dago Madrillgo euren zentralera –Euroestudios enpresarena–, eta neurketak egiten dabil- tza, egunean, ordu laurdenean

behin. 80ko hamarkadan, mugimenduak neurtzen hasi zirenean, hona etorri behar izaten zuten hiru hilabete behin. Eta gainera, kontrol hori ez zen oso zehatza, ez zen-eta konstantea: hiru hilabete behin etorrita, agian ikusten zuten mugimenduak egon zirela, baina ez zekiten egunero apur bat mugitu zen, edo bi hilabetez lurra gelditu egon zen, eta azken hilabetean dema- seko euria botata mugitu zen... Orain, dituzten teknologia berrie- kin, momentu oro daude konek- tatuta hemengo sentsore hauek guztiak euren zerbitzarietara, eta datuak etengabe hartzen dabil- tza. Gero egiten dutena da sate- liteetako irudiak hartu, dena kontrastatu eta emaitzak atera", esan du Hirigintza zinegotziak.

## Satelite bidezko jarraipena egiten dabilta

Udalerriri inguruan kokatutako GPS bitartez funtzionatzen duten 22 hito jarri dituzte; haiek satelite batera bidaltzen dute informazioa. Bestalde, fisuometroak eta prismak ere jarri dituzte; haiek estazio batera bidaltzen dituzte datuak, eta estaziotik, berriz, Madrileran, Euroestudios enpresaren zentralera. Han egiten dute datu guztien jarraipena eta kontrola.



Ugarte, hito bat erakusten. | U.M.



Fisuometroa, pitzaduran. | U.M.



Prisma bat. | U.M.



Estazioetako bat. | U.M.

### Etorkizun tragikorik ez

Bada, ikerketa horren guztien emaitzen arabera, ondorio orokorra da Leintz Gatzagaren ezker- rraldea –Arlaban ingurua– gehi- go mugitzen dela eskumakoa baino –udalerrriaren erdigunea.

Hori bai, ondorio nagusia eta herritarrendako garrantzitsuena da ez dela inolako "etorkizun tragikorik" ikusten herriarendako. "Mugimendua agerian dago, baina ez dago arriskurik", dio Ugartek.

### Pitzadurak aurreikusteko

Eta haien eraginez sortutako pitzadurak ere ez direla larritzekoak dio, ezta frontoikoak ere; handie- nak dira horiek, ageri-agerikoak. "Estetika kontua da, oraingoz. Eta gainera, etxebizitza berriak egiten direnean irizpide jakin batzuk kontuan hartuta segurta- sun maila on batekin eraiki dai- tezke. Eta udalerriko lehengo etxe zaharrak, ba hortxe daude; gehie- nak, baina berrituta daude; beraz, bai, seguru gaude", bukatu du Asier Ugartek.



UGARTE

ASIER UGARTE  
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

## "Ikerketa egin da ikusteko benetan ez dagoela arazorik"

Azken urteotako ikerketaren gaineko arrazoiak azaldu ditu Asier Ugartek, Hirigintza zinegotziak:

### Orain dela 30 urte hasi ziren mugimenduak kontrolatzen; zergatik orain berriro?

Diru laguntza batzuk aprobetxatu dituztelako ikerketa sakonagoa egin eta ziurtatzeko segurtasun maila minimo bat badugula. Hau da, eurek egiten dituzte euren jarraipenak, eta guk ziurta dezakegu ez dagoela arriskurik desplazamendu bizkorrek gertatzeko. Ikusten da desplazamenduak betidanik egon direla, baina gehiago nabarmentzen dira euri sasoietan, normala den moduan, lurra aseta dagoenean gehiago mugitzen da. Esan beharra dago, hori bai, mugimenduak nahiko konstante ikusten direla ikerketa hasitako garaitik hona. Ez da inolako etorkizun tragikorik ikusten herriarendako. Gainera, gura izan dute saihestu alarma sortzea herritarren artean. Arazoa sakona izango balitz, beste neurri batzuk hartu beharko liriteke. Aprobetxatzen dute jarraipena egiteko eta bide batez erakusteko ez dagoela arriskurik. **Beraz, esan genezake Gatzagak baduela etorkizuna?** Bai, noski. Are gehiago, orain egin diren jarraipenak eta neurketek lagundu egiten dute jakiteko etxe berriak egiterakoan edo konpontzerakoan ze neurri hartu behar dituzten.

# "Akordioak lortzeko gai izan gara oso gatazkatsuak diren arloetan"

Inazio Azkarragaurizar, "oso pozik" Udal Gobernuaren lau urteotako lanarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Amaitzear dagoen agintaldiaren balorazio "oso positiboa" egin du Inazio Azkarragaurizar alkateak. Honela esan zuen Goiena telebistako *Harira* saioan: "Legealdi gogorra izan da, baina gustura egin dugu lan. Modu pertsonalean egin dezaket balorazioa, baina herritarrak dira gure lana baloratu behar dutenak". Bereziiki pozitu duen lorpenen artean dago oposizioarekin "orokorrean" izan duten "harreman ona": "Elkarriketaren bidez akordioak lortzeko gai izan gara oso gatazkatsuak diren arloetan. Hondakinena da adibide garbiena, gai izan gara ezberdinen artean akordiora heltzeko". Plan Orokorra ere nabarmendu du Azkarragaurizarrek: "Oso gai konplexua izan ohi da politikoki, eta parte hartzeari esker lortu dugu alderdi politiko guztiak ados jartzea". Hori bai, badu arantza-txo: "Okerrena da etxerako astirik ez dudala izan. Politikan sartu eta proiektuak aurrera ateratzea ondo dago, baina lana eta norberaren bizitza uzartu behar izateak hainbat gabezia sortzen ditu. Hala ere, sekulako esperientzia izan



Azkarragaurizar udaletxean, Eneko Azkarateren galderak erantzuten. | GOIENA

da, benetan aberasgarria. Jende asko pasa beharko litzateke udaletxetik hau zer den ezagutzeko".

Bestalde, Udalaren zorra lau urteotan sei milioi euro murriztu dela aipatu zuen alkateak: "Zuhurtziaz jokatzeko izan da gure politika". Enpleguari dagokionez, Fagor Etxetresnen itxierak "kolpe latza" eragin zuela aitortu eta eskumena Jaurlaritzarena bada ere, enplegu plana abiatu izana positiboki baloratzen du.

## Arrasate pasealekuaren auzia

Legealdi amaieraren polemika handia piztu duen proiektuetako bat da Arrasate pasealekuaren plataforma bakar baten utzi -altuera

berean, oztopo arkitektonikoak kenduz- eta oinezkoen lehentasuna ematearena. Mugikortasun eredu aldatzeko apustuaren barruan sartzen da, TAO sistema ezarri -orain arte "harrera ona" izan duela dio alkateak- edo 2016an hasita Etxaluz eta Musakolokola arteko bidegorria egiteko erabakiaren antzera. Pasealekura bueltatuz, Azkarragaurizarrek dio "oso garrantzitsua" dela obra: "Onartu dena da obra egitea, eta hurrengo Udal Gobernuak erabakiko du oinezkoendako jarriko den edo ez. Saneamendua ere berrituko da... Auzoak asko irabaziko du". Era berean, alkateak nabarmendu du proiektuari, "oso-

tasunean", alderdi guztiek eman zutela aldeko botoa: "EAJk kritikatu du obra egiteko modua baina errei bat zabalik uztea planteatzen dute. Horrek obra luzatuko eta garestituko luke eta arriskutsua izango litzateke".

## Azoka berrirako lanak, aurten

Agintaldiko proiektu estrategikoen artean Azoka Plaza biziberritzeko egitasmoa dago. Udazkenean hasiko dira lanak eta 2016an amaitzea aurreikusten da: "Bi milioi euro inguruko inbertsioa da eta azoka guztia berritzea da asmoa. Beste azoka eredu bat gura dugu, kontsumo arduratsua eta jarduera jasangarriak lehenetsiko dituen". Obrek iraun artean saltokiak modu probisional baten eramango lirateke Seber Altube plazara: "Kaseta batzuk jarriko dira, eta bertara doazen saltoki finkoak izango dira hasiera baten Azoka Plaza berriari jarraituko dutenak. Hala egin izan da beste herri batzuetan; Zarautzen eta Donostian, kasu".

## Auzoetan, "ahalegin berezia"

Era berean, alkateak uste du "ahalegin berezia" egin dela hainbat auzoetako egoera hobetzeko. Oraindik amaitzeko daude, esaterako, San Josepe berriro urbanizatzeko lanak; irisgarritasuna hobetuko da aurten eta saneamendua datoreen urtean. Makatzenan ere hainbat lan egin dira Jaurlaritzaren Revive planari esker eta Meatzerreka auzoari "buelta" bat eman gura zaio, auzoaren "garrantzi historikoa" balioan jarrita.

# Javier Otero donostiarra da PPren alkategaia

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Azken agintaldian izandako zinegotzia "mantentzeko" eta herritarren alde "lan egiteko gogoz" aurkeztuko da 30 urteko gaztea maiatzaren 24ko Udal hauteskundeetara. Beste herri batzuetako hautagaiekin egin zuen atzo (eguna) agerraldia Javier Oterok Arrasaten, "gogotsu eta irribartsu". "Aurreko legealdian baino lan hobea egin gura dugu. Udal jardunean presente egon gura dugu. Herritarren ideiak defendatuko ditut eta horien kezka entzun eta irtenbideak ematen saiatu", esan zuen aurkezpenean.

Alkategaia aurkeztu ostean, Arrasate zerrenda osatzea falta zaio alderdi popularrari.



Javier Otero. | MIREIA BIKUÑA

# Debekatutako guneetan zaborrik ez uztea eskatu dute: "Jarrera arduragabea da"

Gaizki bereiztea "zentzu guztietan" garestiagoa dela ekarri du gogora Udalak

J.B. | ARRASATE

Hilabete eta erdi pasa da dagoeneko txip bidezko edukiontzien sistema berria ezarri zenetik. Bada, herritar batek helarazitako argazkietan ikusten denez, badira zenbait herritar zabor-poltsak debekatutako guneetan uzten dituztenak. Horren adibide da herriko irteeran, Lidl supermerkatuaren atarian, gertatzen dena. Udalak salatu du "jarrera arduragabeaz" jokatzeko duten horiek arrasatear guztiei egiten dietela kalte. Markuletako industrialdean

ere halako beste gune bat dagoela jakinarazi dute.

Udalak, "jarrera arduragabe" horiek salatzeaz gain, hondakinak ondo bereiztearen eta dagozkien edukiontzietan uztearen garrantzia azpimarratu du: "Sistema berriarekin emaitza onak atera ahal ditugu hondakinaren bilketa selektibo mailari dagokionez, baldin eta denok ganoraz jokatzeko badugu. Azken finean, gaizki egitea gehiago kostatzen da eta garestiagoa irtetzen da, zentzu guztietan". Izan ere, Udaletik

gogora ekarri dutenez, hondakinak behar bezala sailkatuta ateratzea "ezinbestekoa" da Hondakin Mahaiak adostutako %70eko bilketa selektibo mailara heltzeko aurreikusitako bederatzita hilabeteko probaldian.

## Plastikozko poltsak organikoan

Sistema berriak eman dituen lehen emaitzen berri emateko goiz bada ere, hasierako fasean igarri duten arazo nagusietako bat da organikoaren edukiontzietan plastikozko poltsak agertu direla: "Bestalde, hasieran zenbaitek poltsa lurrean uzten zuten, baina orain badirudi arazo hori konpondu dela", gaineratu dute.

Amaitzeko, Udalak gogora ekarri du adostutako helburuak betetzea arrasatear guztien ardurara dela: "Oraindik hondakinak gaika biltzeko modu hau probatzen hasi berriak gara. Badakigu hasieran kosta egiten dela, baina berriz azpimarratu gura dugu arrasatear guztion ardurara dela proba-garai honetan markatutako helburuak betetzea: guztiak animatu gura ditugu hondakinak ondo bereizteko eta dagozkien edukiontzietan botatzera".



TXATXILIPURDI

## Aspertzeko astirik ez ludotekan

Pazko astean ederto ibili gara ludoteketan: Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko parkean denetarik jolasak egin ginen, Azoka Plazan herri kirolekin gozatu genuen, Monterronen *slackline* jardura probatu genuen eta amaitzeko zinema izan genuen Okendon. Ez gara aspertu!

KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK  
TXATXILIPURDI | ARRASATE



Zabor-poltsak debekatutako gune baten, Lidl supermerkatuaren atarian. | GOIENA

## Posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri du martxan PSE-EEK

Maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetan posta bidez bozkatzeko aukera zabaldu du PSE-EEK bere egoitzan (Martxoaren 8 kalea, 1). Asteleheneetik egubakoitzera -10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara- egongo da horretarako aukera, maiatzaren 14a baino lehen. Argibide gehiagorako: 943 79 69 42.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50



Hautesleen zerrenda aurkeztu ostean Kulturateko klaustroan ateratako talde argazkia. | EH BILDU

## Eneko Barberena: "Lantalde prestatua eta gaztea eratu dugu"

EH Bilduk aurkeztu du udal hauteskundeetarako zerrenda; gehiengo osoari eustea dute helburu

IMANOL GALLEGU / J.B. | ARRASATE

"Herria ondo ezagutzen duen lantaldea sortu nahi izan dugu. Lanerako gogoz dagoen lantalde prestatua eta gaztea eratu dugu". Hitz horiekin laburbildu zuen EH Bilduko alkategai Eneko Barberenak udal hauteskundeetara berarekin batera joango diren hautesleen profila. 26 hautesle

eman zituzten ezagutzera martitzenean Kulturaten egindako aurkezpenean. Emakume zein gizon kopuru bera dago, Barberenak azaldu zuenez, "talde orekatua" eratu gura izan dute-eta.

Horretarako, herriko "errealitate ezberdinak" ezagutzen dituen lantaldea batu dutela adierazi zuen.

### "Lan handia" aurretik

Jendea aukeratzeko arazorik izan ez duten arren, Barberenak jakinarazi zuen familia edo lana eta udaletxeko lana bateratzeko arazoekin topo egin dutela: "Hala ere, oso gustura nago eratu dugun lantaldearekin". Zerrenda osatu ostean eta hauteskundeak iritsi bitartean, "lan handia" egin behar dute: "100 bat pertsonarekin batu gara, eta beste hainbat eragilerekin egoteko asmoa ere badugu", esan zuen EH Bilduren Arrasateko alkategaiak.

Zerrendari dagokionez, honako hauek dira lehenengo 11k-egun koalizio abertzaleak Udalean dituen zinegotzi kopurua aintzat hartuz: Eneko Barberena, Amaia Larrañaga, Eneko Fernandez, Maialen Zabaleta, Piter Encinas, Itxaro Artola, Urki Larrea, Larraitz Trojaola, Jose Migel Salaberri, Eneritz Urrutia eta Jokin Zufiria.

## Ahal Dugu-Podemosek Baleike eratu du hauteskundeetarako

J.B. | ARRASATE

Arrasate Ahal Dugu-Podemos zirkulua maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan egongo da, Si Se Puede-Baleike hautesle elkar-tearekin. Hala erabaki zuten apirilaren 11ko bileran: "Orain arte egindako lanaren berri eman genuen eta, besteak beste, kode etikoa, primarioetarako araudia eta oinarrizko programa aurkeztu eta onartu genituen. Hasiera baten ez genuen aurkezteko asmorik, baina jendeak animatu egin gaitu eta, gainera, kon-turatu gara badugula jende prestatua zeregin horretarako", dio lantaldeko kide Igor Urizarrek.

### Zerrenden berri bihar

Hautesle elkarteak sortzeko 500 sinadura behar dituzte Arrasaten eta lehen hiru egunetan

200dik gora lortu dituzte. Zerrendak aurkezteko azken eguna hilaren 20a izanik bihar zehaztuko dituzte zerrendaburua eta gainerako hautesleak. Sinadurak biltzen dihardute; gaur goizean azokan egongo dira eta bihar eta etzi, arratsalde, Seber Altube plazan eta Arbolapetan.



Baleike-ko kide Igor Urizar. | GOIENA

## Udaberriko lehen baserritarren azoka egingo dute bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara

Udaberriko produktu etarako "goiz" bada ere, biharko baserritarren azokan ez da eskaintzarik faltako. Hemeretzi postu egongo dira, Arrasateko bost eta Debagoieneko lau -Idurre Aranguren eta Nerea Altuna arrasatearrek Uberan duten mintegiko landareak barne- eta gainerakoak kanpotik datozenak: "Kanpokoan artean Behe Nafarroatik datorren Arnabar nabarmenduko nuke; ahate-deribatuak saltzen dituzte, freskoa eta oso kalitate onekoa". Ohi bezala, Seber Altuben izango da, 09:00etatik 14:00etara.

20 urte baino gehiagoko esperientzia implantologian

CLINICA DENTAL  
BERGARA

Bidekurutzeta 36 BERGARA • Tel.: 943 76 05 77  
www.clinicadentalbergara.es

Kontsulta eta aurrekontua doan  
Zure tratamendua finantzatzen dugu.

Espezialitate bakoitzerako mediku-talde kualifikatua dugu

#### ODONTOLOGIA

A. Pastor doktorea  
U. Artetxe doktorea  
I. Goikoetxea doktorea

#### ORTODONTZIA

Y. Otero doktorea

#### PERIODONTZIA

I. Goikoetxea doktorea

#### INPLANTOLOGIA

F. Juarros doktorea  
U. Artetxe doktorea

#### ENDODONTZIA

G. Campos doktorea

DKV • MAPFRE • IMQ/ADESLAS • SANTA LUCIA • EROSKI  
OCASO • PREVISORA BILBAINA • ORBITA • ACUNSA • AEGON

# Arrasate Kirol Elkarteak indartuz, beste kirol eredu bat sortzera

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasaten kirol ohikoena ez izan arren, zale talde batek urtetxo batzuk badaramatza tenisaren

bueltan Mojategin elkartzen. Orain bertan VNRC deritzon txapelketan -EAEko, Nafarroako, Kantabriako eta Errioxako taldeek

osetzen duten liga- murgilduta daude, azken mailan, eta hirugarren mailara igotzeko lehian.

## AKE, hausnarketa prozesuan

Tenisean jokatzeko ikasteko zailtasunak daudela aitortu zuen Arrasate Kirol Elkartearen presidentek Eneko Fernandezek astelehenean Goiena telebistako *Harmailatik* saioan: "Tenisak teknika ondo lantzea eskatzen du eta ez dago apenas jenderik hori irakasten dakienik. Horregatik, AKE elkarteak eratu zegoela aprobetxatu genuen tramiteak aurreratu eta funtzionatzen hasteko. Gasteiztik ekarri genuen oso ona den

entrenatzaile bat eta Oñatin antolatzen dituzten txapelketa ereduak baliatu genituen guk gureak antolatzeko". Tenisaren etorkizuna bermatzeko eskola on bat izatea beharrezkoa dela sinistuta, Leintz Eskola Kirolarekin batera koordinatzen dituzte saioak, 8 urtetik gorako umeendako.

Tenisaz gain, frontenis, padel eta squash taldeak martxan dira, baina ezin da ahaztu AKE aspaldi sortu zela: "Hainbat kirol klubek osatzen zuten elkarteak, sailka. Bultzada eman gura diogu eta gogoeta prozesuan gaude orain; elkarteak euren kabuz aritu dira urteetan eta uste dugu une ona dela batzea, norabide berean joateko. Kirol eredu bateratu bat zehaztu nahiko genuke. Helburua beti izan da denondako kirola bultzatzea. Zentzu horretan, uste dut garai onak datozela herriko kirolarendako", dio Fernandezek.



Arrasate Kirol Elkarte barruko tenis klubeko kideak. | ARRASATE KIROL ELKARTEA

## Zubia: "Ederra izan da campusa, uztailean beste bat egingo dugu"

J.B. | ARRASATE

Pazko astean 80 bat ume hartu zuten parte Gipuzkoa Eventos enpresak eta Mondra klubak lehengoz antolatu duten futbol campusean: "Futboleko egiten ikasi baino gehiago, futbolaren balio hezitzaileak transmititzen saiatu gara; taldeko lana, errespetua,

emozioak... Opor egunak izanda 80 ume izena ematea itzela izan da, oso pozik gaude. Ederra izan da esperientzia; uztailean beste bat egingo dugu, jarduera gehiagorekin, luzeagoa eta osatuagoa", adierazi du Mondrako lehen taldeko entrenatzaile eta campuseko arduradun Josu Zubiak.



Campuseko saioetako bat Mojategin; 80 bat ume ibili ziren. | JOKIN MUXIKA

## Kurtzetxikiko ibilbide berria ezagutzeko aukera hilaren 26an

Besaidek eta Udalak Kurtzetxikiko ibilbide homologatu berriak ezagutzeko irteera antolatu dute apirilaren 26rako. Herritar guztiei zabalik dago, ez dago izena eman beharrik eta umeekin egiteko ibilaldi aproposa da, 6,6 kilometrokoa da-eta. Herriko Plazan elkartuko dira, 10:00etan.

## ZALDIBAR

### SAILKAPENA

A MULTZOA	P
1 Dribling 2.0	10
2 Haizea's Weah	6
3 Betrayer	5
4 Abokajarro	5
5 Jibaros F.C.	4
6 Arrasate taberna	1

B MULTZOA	P
1 Aldatz	10
2 Sonografos	8
3 Lasagabaster	6
4 Alytis F.K 2.0	4
5 Ostantz	2
6 Drink Team	1

### PARTIDUAK

APIRILAK 18, ZAPATUA

11:00 Dribling 2.0 - Betrayer / Drink Team  
12:00 Drink Team - Lasagabaster / Dribling  
13:00 Abokajarro - Jibaros F.C. / Lasaga.

APIRILAK 19, DOMEKA

11:00 Aldatz - Ostantz / Arrasate Tab.  
12:00 Arrasate Tab. - Haizea's / Aldatz  
13:00 Sonografos - Alytis / Haizea's.

### OMEGA URBAN SERVICE, IGOGAILU ZERBITZUETARAKO ZURE KONFIANTZAZKO ALTERNATIBA

IGOGAILUEN KALITATEZKO MANTENTZE-LANAK    PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN PLANA

Marka guztietako igogailuen mantentze-lanak eta konponketak egiten ditugu, baita plataforma industrialenak ere. Lan horiek egiteko, goi mailako langile kualifikatuak ditugu, eta, horri esker, zure igogailua ezin hobeto ibiliko dela garantizatzen dizugu.

Gure talde teknikoak hilero egiten dituen mantentze-lanek zure igogailuaren funtzionamendua eta kontserbazioa hobetuko dute, eta haren bizitza luza dezakete, igogailu bakoitzaren funtzionamenduari eta modeloari egokitutako plan teknikoa beteta.

945 290 308

debagoiena@omegaurban.com

www.igogailuak.com

Birgaitzeak  
Modernizazioak  
Ordezkapenak  
Zero Kotarako Jaitsierak

Izogailu Mantenua

# Ipuin kontaketak eta ikuskizunak Liburuaren Egunaren bueltan

Ekuadorko, Portugalgo eta Euskal Herriko kontalariak izango dira gaur Kulturaten

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan ekitaldi mordo antolatuta dituzte, beste behin, Arrasateko Bibliotekako kideek. Ipuin kontalariak izango dira protagonista oraingoan ere. "Urtero gonbidatzen ditugu helduak zein haurrak narrazio ezberdinetara; horrelakoetan hitzak du lehen tasuna, hizkuntzarekin jolastu, barre egin, emozionatu... Hori izango litzateke helburua", jakin

narazi du Udal Bibliotekako Asun Agirianok.

Oraingoan, munduko kontu kontalariak eman die berba, eta hiru elkartuko dira gaur iluntzean, 19:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan: Angela Arboleda (Ekuador), Luis Correia (Portugal) eta Josu Kamara (Euskal Herria). Helduendako saioa da, eta euskaraz eta gazteleraz egingo dute. Umeek, oster, apirilaren 21ean, martitzena, izango dute

ipuin kontaketa Pello Añorga idazlearekin, Kulturaten (18:00).

Ikuskizun bi ere izango dira datorren astean: Shakti Olaizola kontortsionistak *Irakurriz* eskainiko du eguaztenean, apirilak 22, 17:00etan, Santa Marina auzoko bibliotekan eta 18:00etan, Kulturaten. Eta eguenean, hilak 23, *Noctis: Fotografia & Literatura* ikuskizuna izango da, 19:30ean, Kulturateko areto nagusian. Argazkiek eta literaturak egingo dute bat orduan; hiru argazki lanekin osatutako ikus-entzuzko emango dute argazkilariek irakurketa saioa egin bitartean.

## Irakurketa erraza jardunaldia

Bestalde, apirilaren 22an, 10:30ean, Jokin Zaitegi gelan, irakurtzeko zailtasunak dituztenei zuzendutako irakurketa erraz jardunaldia izango da; aurrez izena ematea komeni da, Udal Bibliotekan.

## Imanol Ituiñoren magia ikuskizuna Koolturen

M.A. | ARRASATE

Ez da ohikoa musikarik gabeko ekitaldiak izatea gaztetxean Kooltur Ostegunen barruan, eta, hain zuzen, ezohikoa delako eskainiko dute magia ikuskizuna datorren eguenean, hilak 23, 22:00etan (sarrera, 5 euro).

Bilboko Imanol Ituiño magoak *Magia parrastan* ikuskizuna eskainiko du: "Espektakulu parte-hartzaile, dinamikoa eta magikoa", dio. Kartak, bolatxoak eta sokak erabiliko ditu horretarako beste batzuen artean, eta agerpenek eta desagertzen diren erakutsiko ditu eta bi eskolek batera ere eskainiko dituzte pieza batzuk".

## Tronboi, tuba eta bonbardino elkartrukea

M.A. | ARRASATE

Arrasate Musikaleko tronboi, tuba eta bonbardino instrumentu-joleek musika elkartrukea egingo dute Bergarako musika eskolako musikariek. Astelehenean, apirilak 20, izango da emanaldia Kulturaten, 18:30etan (debalde).

"Orain dela bi urte joan ziren arrasatearrak Bergara eta oraingoan eurei tokatzen zaie gurera etortzea", jakinarazi du Arrasate Musikaleko Edorta Aiastruik, eta gaineratu: "Nork bere trebeziak erakutsiko ditu eta bi eskolek batera ere eskainiko dituzte pieza batzuk".



Gaztetxeak Arrasateko udaletxe bakoian zapatuan. | MIRARI ALTUBE

## Gaztetxearen 24. urteurrena borobiltzeko poesia emanaldia dago gaur

M.A. | ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak 24 urte bete dituela ospatzen dabilta azken egunotan bertako kideak, eta gaur ere izango dute ekitaldia, egubakoitza. *Burdin hariak eta plastikozko koilarak* kartzelari buruzko gogoeta musikatu eskainiko dute Markel Ormazabalak eta Oier Gonzalezek, gaztetxean bertan, 20:00etan.

## Ospakizuna zapatuan eginda

24. urteurrenaren egun handia joan den zapatuan ospatu zuten, Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak antolatuta. Udaletxea hartu zuten lehengo, eta pregoia egin bertatik; Herriko Plazan bazkaldu zuten gero 60 bat lagunek; eta kontzertuekin borobildu zuten eguna jai giroan.



## Kontxi Tamayo

Dermatologoa eta Espainiako Dermatologia eta Benereologia Akademiako kidea

## "Dermatoskopia digitala; melanomaren prebentzio eta diagnostikorako"

**D**ermatoskopia digitala diagnostiko teknika bat da. Gaur egun minbizia prebenitzeko detekzio teknika fidagarriena. Era berean, lunarren egoera kontrolatzeko esplorazio teknika onena da.

### Zertan datza dermatoskopia digitala?

Lunarren argazkiak egiten dira, lente berezi bat erabiliz, eta modu horretan, begi bistara ikusi ezin daitezkeen estrukturak ikusten ditugu. Irudiak ordenagailura pasatzen dira ondoren, eta han artxibatu. Gero, konparaketak egiten dira. Hala, lunarren denboran aldatuak jasan dituela ikusten bada, erotik ateratzen da, txarrak diren kasuetan. Hori goiz egiten bada, pronostikoa asko hobetzen da. Bestetik, ikusten badugu lunarren ez duela aldaketarik izan, bere horretan uzten dugu, lesio onberak erazte saihestuta.



### Fotofinderra: lunarren kontrol digitala

#### Norendako da egokia?

Bereziki 50 lunar edo hortik gora dituzten pertsonendako; ezaugarri ezohikoak dituzten lunarren dituztenendako; familia aurrekariak edo melanoma aurrekariak dituztenendako eta melanoma garatzeko arrisku mutazio eramailen direndako.

#### Minik sentituko dut proba egiterakoan?

Ez. Minik ematen ez duen teknika da.

#### Zer hartu behar da kontuan proba egin aurretik eta ondoren?

Makillatu barik joan behar da proba egitera; gauza bera, pomada eta kremen

kasuan. Halako barik joan behar da. Probaren ondoren, ez du zaintza berezirik eskatzen.

"Minbizia prebenitzeko detekzio teknika fidagarriena da dermatoskopia digitala"

"Minik ematen ez duen teknika da eta ez du zaintza berezirik eskatzen"

#### Zenbat irauten du, estudioak?

Lunarren arabera aldatzen da, baina 30 eta 45 minutu artean.

#### Zenbatean behin komeni da proba egitea?

Dermatologoak berak zehaztuko du zenbat hilabete itxarotea komeni den berriz estudioa egiteko. 3-12 hilabete bitartean izan ohi da, normalean.

### Kontxi Tamayo dermatologoa

ZUATZU klinika

(egungo EDERSALUD klinika)

Nafarroa etorbidea 4, behe

(ambulatorioko biribilgunean)

ARRASATE

Tel.: 943 79 20 18 // 620 12 48 43

- Azaleko minbiziaren diagnostiko goiztiarra eta lunarren kontrol digitaleko unitatea
- Kirurgia dermatologikoa
- Laser tratamenduko unitatea: eguzkiak eta adinak eragindako azalaren orbanak eta gorriuneak ezabatzea, azakaletan ondoak... laser depilazioa
- Estetika dermatologikoko unitatea: azal edo zimurren betetzeak azido hialuronikoarekin, botoxa...

RPS: tramitatzen ari da



## Antzezlanak ikasleentzat egunotan

25. eskola-antzerki topaketen barruan profesionalen lanak ikusteko aukera daukate egunotan 12 urte arteko ikasleek -Arizmendi Ikastola eta Herri Eskola-. Eguaztenean Ganso & Cia taldeak *Babia* lana eskaini zien eta gaur, egubakoitza, Vaiven Producciones konpainiaren *New Orleansko Cyrano* ikusiko dute. Martitzenean, oster, Markeliñe taldearen *Makinista* antzezlan izango dute 15 eta 18 urte artekoek.

# UNEDen egoitza berria izango den jauregiko lanak lehiaketara

Apirilaren 10eko GAO n argitaratu dute Arrizuriaga berritzeko proiektu deialdia

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Iaz irailean sinatu zuten permuta UNED-Bergara Patronatuko kideek. Hitzarmen horren arabera, UNED Arrizuriaga jauregian kokatuko da. UNED-Bergara Fundazioak kontratuaren esleipena egin eta gero 26 eguneko epea izango dute eskaerak aurkezteko berritze lanak egitera aurkeztu diren eraikuntza enpresek.

Lanak egiteko 20 hilabete izango dituzte. Ia 3,5 milioi euroko obra da -3.484.558 euro, BEZa eta guzti-, bere garaian Iñaki Aspiazu arkitektoak egindako proiektuan oinarrituta. Proiektua 2009koa denez, eta egilea hilda dagoenez, Bergarako Zetabi arkitektura enpresa arduratu da hura eguneratzeaz.

Bai Bergarako UNEDek eta baita Udalak ere pozik hartu dute berria. Iñaki Espartza UNED-Bergarako zuzendariaren esanetan, "Bergarako UNEDen kokapenaren gaineko eztabaida gaindituta, aurrera doa guztia".

## Beirazko galeria bat

UNED unibertsitatearen eskakizunak eta ondoko urbaniza-



Ina Aspiazu arkitektoak egindako proiektua. | INA ASPIAZU

zioan plataforma horizontal bat dagoela kontuan izanik, espazioak lurraren mailaren azpitik garatzearen aldeko apustua egiten da. Esku-hartzea tutoretzak hartzen dituen beirazko galeria bat erantsiz osatzen da. "Galeria-tipologia mota honetako eraikinak lagundu ohi dituen elementua da eta ez ditu inola ere eraikinaren irakurketa eta bere egungo bolumentria

aldatzen, inguratzaile gardena baita".

Lur azpian liburutegia, liburu gordailua, azterketak egiteko eta tribunalen gelak eta komunak kokatuko dira.

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## Hil honetan gertuko musikak beteko du osoko bilkuren aretoa

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan hitzak, proposamenak eta eztabaidak entzun ohi diren arren, apirilean zehar musikak ere tokia izango du.

### Lehenak etxeokak

Gaur izango da lehen kontzertua, 20:30ean, eta Abrassados taldeak izango du zikloa irekitzeko ardura. Donostiako kontserbatorioko beste ikasle batzuen artean, herrikidea den

Andoni Moñux tuba-jotzailea arituko da musikari lanetan.

Bihar, Garikoitz Mendizabalek eta Aitor Furundarenak txistu eta akordeoi kontzertua eskainiko dute, 19:00etan.

Datorren egubakoitzean 20:00etan izango da emanaldi originalena: *Piano bat bertsotan* ikuskizunak inprobisazioa eta umorea nahasten ditu publikoarekin jolas eginda.

Hiru emanaldiak doakoak izango dira.

## Herrixa Dantzan zaleek gorputza mugitzeko beste aukera bat izango dute domekan Zabalotegin

Herrixa Dantzan saioa egingo dute etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan. Gidatutako dantzaldia izango da, eta, musikaren laguntzarekin, bikoteka, soltean, korruan edo taldeka dantzan egiteko aukera egongo da. Ohikoa den moduan, Patxi Monterok egingo ditu gidari lanak. Doakoa izango den saio horren helburua da herritarrek elkarrekin dantzan ondo pasatzea.

## 'Parias' helduentzako txotxongilo ikuskizuna egongo da domeka arratsaldean kartzela zaharrean

Javier Aranda zaragozarraren lana hunkigarria dela diote antolatzaileek, ikuslearekin intimitate maila handia lortzen du-eta. Giza degradazioaren sinbolo gisa erabiltzen ditu artistak txotxongiloak, eta, horretarako, antzerki klasikoko piezak hartu eta funtzio soziala itzulita errotan ditu *Parias*-era Arandak. 19:30ean emanaldira joan nahi dutenek 4 euro ordaindu beharko dituzte.



# BERGARAN etxebizitzak estreinatzeko!

## 90.100 eurotik aurrera

Duplexak eta etxebizitzak aukeran!

Bisita itzazu, konpromiso barik.  
Tel.: 943 71 09 10

Finantzatzeko erraztasunak.  
Informa zaitez!

 "la Caixa"

Fraiskozuri 7, behea. BERGARA Tel.: 943 71 09 10

# "Askotariko pertsonen osatutako zerrenda" aurkeztu du Irabazik

Ahulenei laguntza berezia eskaintzea da alderdi berria horren asmo nagusia

GOIATZ ARANA | BERGARA

Irabazi-Ganemos bultzatu duten taldeetako ordezkariak daude Aiert Lizarralde buru duen zerrendan -Ezker Anitza-IU, Equo eta Alternativa Republicana alder-

dietakoak-, baita Ahal Dugu-Podemosen izena emandakoak eta pertsona independenteak ere. Horiekin "zerrenda plurala" osatu dutela azaldu dute.

Zerrendatu dituzten konpromisoen artean daude: sektore ahulenei laguntza berezia ematea, aberastasuna banatzea, etxega-

betzeak gelditzea, *zero zabor* lortzeko bidea egitea eta kulturara eta euskarara sarbidea ziurtatzea.

## Zerrendaburua

Alkatagia Aiert Lizarralde da, 40 urte eta bi ume ditu eta siderometalurgia sektorean egiten du lan. EQUOko kidea da.

## IRABAZI-GANEMOSEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA

1. Aiert Lizarralde
2. Antonia Galiot
3. Jose Mari Sasieta
4. Isabel Sanz
5. Juan Manuel Garcia
6. Mamen Muela



Irabazi-Ganemoseko zerrenda aurkezpena. | IRABAZI-GANEMOS

# Pazkoetako kartela eta zapia sortzeko lehiaketak martxan

Edozein herritarrek parte har dezake jaien prestakuntzaren parte diren bi txapelketa horietan

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Pazkoak ate joka daude eta aurren maiatzaren 22an hasiko dira. Hala, Kultura Sailak eta Jardun euskara elkarteak kaleratu dituzte Pazko jaietako kartel eta zapi lehiaketen oinarriak.

## Pazkoetako irudia

Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izan beharko dute, eta formatu bertikala. Kartelak papelean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu



lazio zapia eta kartela. | IMANOL GALLEGU

beharko dira. Irudiak, gainera, atzealdean lelo bat eroan beharko du. Lanak apirilaren 24a baino lehen kultura etxera eroan beharko dira. *Bergara.net* webgunean lanen alde bozkatzeko aukera egongo da.

## Zapia maiatzaren 4rako

Jardunek Pazkoetako zapiaren marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du. Horretan ere edonork parte har dezake eta nahi beste marrazki aurkez daitezke. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 4a da. Euskara elkarteak aurren 25 urte beteko dituzte, zapiak izan behar duen leloan urteurren hori aipatzea gomen datzen dute antolatzaileek.

Lanak Jarduneko bulegoan aurkeztu edo [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com) helbidera bidali beharko dira.

# Martxan daude Laboratorium museoa barrutik ezagutzeko bisita gidatuak

I.G. | BERGARA

Ekainetik aurrera Errekalde jauregian egongo den Laboratorium museoa ireki aurretik, herritarrei museoa nolako izango den erakusteko eta euren ekarpenak jasotzeko bisita gidatuak egiten hasi dira. Bisitak Laboratoriumen proiektu museografikoa egin duen Stoa enpresako Jose Maria Gartzia museografoak egiten ditu, eta herritar ugariaren jakin-mina piztu du.

Lehenbiziko bi bisitak eguaztenean eta eguenean izan ziren eta jendea oso inpresio positiboarekin irten zen bertatik. "Herrian genuen altxor hau txukundu eta balioan jartzeko garaia zen"; "Bergara turismoa-

ren euskal mapan kokatuko duen proiektua da". Hori diote Laboratorium barrutik ezagutzeko aukera izan duten bi herritarrek.

## Bisitaren bi guneak

Bisitak ez dira Errekalde museo- mugatzen; izan ere, lehenbizi, Errege Seminarioko bildegia ikusten dute eta ondoren, taldeak Errekalde jauregia bisitatzen du.

Bisitak ez dira bukatu: hila- ren 20an 19:00etan eta 21ean 10:30ean izango dira azken biak. Laboratorium ezagutu nahi dutenek 943 76 90 03 telefonora deitu edo [museoa@bergara.net](mailto:museoa@bergara.net) helbidera idatz dezakete.

## NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'



## Korrika eta demokrazia

Martxoan Korrikak bere 19. edizioa egin zuen, eta antolatzaileen poza nabaria zen. Korrika Euskal Herri osoan eta osorako antolatzen da. Ongi legoke eredu gogoan izatea antzerako kasuetan praktikan jartzeko.

Korrika, tinko aurrera! Helduen euskalduntzea berebiziko lana da, premiazkoa egoera gordina iraultzeko. Ez zaituzte laguntza eskatzera beldurdu eta ez lotsatu, nahiz eta bidean zenbait lotsagabe aurkitu.

Lorea Arregik mezuan zioen: "Plazan eta euskaraz jartzen da frogan demokrazia. Demokrazia demokratizatze balio behar du euskarak". Esaldi hori

egi bihurtzeko administrazioen esku-hartzea ezinbestekoa da. Publikotasuna eta euskara jakitea oinarriko demokraziaren gakoak dira. Euskara salba nahi bada, diskriminazio positiboak erabatekoa izan behar du. Kargu edo lanpostu publikoan aritzeko euskara ezinbesteko baldintza izan beharko litzateke. Esate baterako, ertzainek, udaltzainek edota TAOko langileek garraio publikoan, Osakidetzan, irakaskuntzan, bulegoetan.... euskara jakin eta erabili beharko lukete.

Alor pribatuan ere, euskararen gabezia salatu eta joera positiboak txalotu behar dira. Politikoen jokabidea, salbuespenak salbuespen, lotsagarria da. Aurki hauteskundeak ditugu. Erne! Demokrazia eta euskara doazela uztarri batean.

**"Ez zaituzte inoiz laguntza eskatzera beldurdu"**



## elkar-ek denda berria ireki du Bergaran

Liburu, papergintza eta jolasa eskaintza zabala esku eskura lbargarai 7 zenbakian

ekar

# Martxan da musika eskolaren XI. Apirilean Musika zikloa

Hil honetan zehar, ikasleek emanaldiak egin eta ikastaroak jasoko dituzte

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Apirilean Musika zikloa domekan hasi bazen ere, aste honetatik aurrera iritsiko dira ekimen musikatu horren hitzordu gehienak. Ohiturari eutsiz, askotariko musika emanaldiak entzungo dira.

Hamaikagarren zikloa da, eta, urtero moduan, ekimen horren zergati nagusia ikasleek dira. Musika protagonista duen egitarau oparoa ikasleen, irakasleen, gurasoen eta Udalaren arteko elkarlanari esker antolatu dute.

**Ekintza bereziak**

Antolatzaileek musika ohiko tokietatik atera eta proposamen interesagarriak antolatu dituzte: ipuin musikatuak, elkartrukeak... Musika eskolaren jarduna herri- gerturatzeko aukera da.

## XI. APIRILEAN MUSIKAREN EGITARAU

### APIRILAK 17

**19:00** Kantu ikasleak Mariaren Lagundiko elizan.

### APIRILAK 18

**11:00** Biolin ikasleak Zabalotegin.

**12:00** Biolontxelo ikasleak Zabalotegin.

**16:00** Interpretazio eta dantza tailerra musika eskolan.

### APIRILAK 19

**18:30** *Musika kalera!* San Martin plazan.

**19:30** *Martxa kalera!* Irala

kalean.

### APIRILAK 20

**18:30** Perkusio tailerra musika eskolan.

**18:30** Orkestra Sinfonikoaren tailerra musika eskolan.

**18:30** Ikasle helduen kontzertua Zabalotegin.

**19:00** Flauta eta fagot ikasleak musika eskolan.

**19:30** Big band kontzertua Zabalotegin.

### APIRILAK 21

**9:15** Ipuin pedagogikoa Zabalotegin.

**17:45** *Arkuak martxan!* musika eskolan.

**18:30** Piano ikasleak Zabalotegin.

### APIRILAK 22

**18:00** Perkusio tailerra musika eskolan.

**18:00** Gitarra ikasleak Zabalotegin.

**18:30** Hari-taldeak udaletxean.

**18:30** Piano ikasleak musika eskolan.

**19:00** Haize-taldeak Zabalotegin.

### APIRILAK 23

**18:30** *Musika kalera!*

**19:00** *Denok dantza!* San Martin plazan.

**19:00** Txalaparta ikastaroa musika eskolan.

### APIRILAK 24

**18:00** *Arrain txikitxo* Zabalotegin.

### APIRILAK 25

**11:00** Organo ikasleak Sierbetan.

### APIRILAK 26

**12:00** Bandaren kontzertu didaktikoa.



Kirola Kalera eta bizikleta jardunaldietako antolatzaileak. | LARRAITZ ZEBERIO

## Kirola Kalera eta bizikleta jardunaldiak bergararrak mugitzera

L.Z./I.G. | BERGARA

Udalak herritar aktiboak gura ditu, eta, horregatik, domekan herriko kirol eskaintza kalera aterako dute.

Labegaraia izango da ekin-tza nagusien kokalekua, eta, bizikleta irteera guztiak Agorrosindik abiatuko badira ere, Labegaraian amaituko dira. Bertan, jokoak, Nordic Walking saioa eta bizikleta eliptikoak zein elektrikoak probatzeko aukera egongo da. 27 lagun daude izena emanda Nordic Walking saiorako; seguru- enik, hiru talde egingo dituzte.

### Bizikleta jardunaldiak

Astelehenean aurrera etorriko dira bizikleta jardunaldien inguruko gainerako ekintzak. Besteak beste, desfibriladorearen erabileraren inguruko ikastaroa, dia-

poramak bai ikastetxeetan bai herritarrei zuzenduta, eta kirol kontseilua. Horrez gain, hilaren 29a arte, Agorrosinen bizikleta eliptikoak probatzeko aukera egongo da 2 euroko fidantza lagata. Baita gazte mailako ziklismo lasterketa bat ere.

Lokatza ziklismo taldeko Xabier Arantzetak eman du lasterketa horren berri. Apirilaren 25ean izango da, Labegaraian. "Euskal Herriko talderik onenak etortzeaz gain, Estatuko beste talde garrantzitsu batzuekin kontaktuan gaude eta pare bat taldek eman dute baiezkia. Pentsatzen dugu partaidetza ona egongo dela", esan du Arantzetak.

### Herriko barruko bidegorria

Herrigunetik pasatzen den bidegorri zatian aldaketa batzuk egin-

## KIROLA KALERA EGUNEKO EGITARAU

**09:00** Emakumeentzako mendi bizikleta txangoa.

**09:00** Mendi bizikleta txangoa.

**10:00** Emakumeentzako bizikleta txangoa.

**10:00** Nordic Walking saioa.

**10:30** Gazteentzako txangoak.

**11:00** Bizikleta gunea Labegaraian.

**12:30** Bizikleta kontzentrazioa.

go dituzte. Erabiltzaileen bizikletza hobeaz lortzeko, Udaleko Kirol arduradunek erabaki dute abiaduraren arabera bidegorria bi zatitan banatzea. Antolaketa berri hori azaltzeko, panel informatiboak jarriko dituzte bidegorri zatietan.

Aldaketa hori hilaren 29rako deituta dagoen kirol kontseiluko bileran azalduko dute, bertan herritarrek ekarpenak jasotzeko asmoarekin. Batzar berean, Antzuolatik autobus geltokiraino jaitsiko den bidegorri zatiaren eta Boni Laskurain pasealeku-koaren berri ere emango dute.

## Gimnasia erritmikoko txapelketa bihar

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZNOA GIMNASIA TALDEA | BERGARA

Gipuzkoako federatu amateur eta eskolarteko A mailako txapelketa jokatu dute bihar Labegaraietako kiroldegian. Urtarrilean Eibarren izan zen lehenengo fasea, eta biharkoa herriko gimnasta gazteak arituko diren bigarren fasea izango da, maiatzean finala iritsi aurretik.

Goizean alebinak, infantilak eta gazteak arituko dira lehian. Arratsaldean, berriz, kadeteen txanda izango da. Saio bietan banakako eta taldeko ariketak egingo dituzte.

Bailarako Ariznoa Elkar- teko eta Arrasate Dragoiko gimnastak jardunean ikuste- ko aukera paregabea!

## OHARRAK

### 1949AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA BIHAR

Jatetxera joateko 13:50ean herribusa hartuko dute Herri- lagunak kaleko zubian. Joan nahi dutenek 50 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxa- ko 3035 0009 18 0091147183 zen- bakian.

### 1937AN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Apirilaren 26an egingo dute, 14:30ean. Txartelak Yoar oine- tako dendan eros daitezke 30 eurotan. 12:00etan, meza entzungo dute Santa Marinar.

## EH Bilduk bulegoa zabaldu du Telesforo Aranzadi kalean

Maiatzeko udal eta foru hau- teskundeei begira, EH Bilduk botoa postaz eman nahi dute- nentzako bulegoa irekiko zuen eguaztenean. Bulegoa lanegun- etan 11:00etik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, zapatutan aldiz, posta bidezko botoa eskatzeko argibideak 11:00etatik 13:00eta- ra emango dituzte.

## Azken sailkatuen kontra lehiatuko da Bergara KE taldea

Azkenengo jardunaldian lor- tutako garaipenari esker, eskubaloi taldea taularen erdian egonkoritu da. 12:30ean, domekan, Ordizian jokatu- ko dute partidua Siglo XX Plater Prestatuak taldearen kontra. Etiket kanpo jokatu- ko dute; edozelan ere, ordiziar- rak azken postuan doazela kontuan izan- da, ez luke partidu zaila izan beharko.

## Azken estropezua ahazteko aukera egokia domekan

Soraluce Bergara taldeak Arra- sateren kontrako derbia galdu eta gero, domekan 12:00etan Donostian jokatu- ko du parti- dua. Cafes Aitona B azkena da, eta ez luke aurkari gogorra izan beharko. Hala ere, sailka- peneko goiko tokietan jarraitu nahi baldin badute, saskiba- loiko taldea ezin da erlaxatu, eta jokalariek euren ohiko mailari eutsi beharko diote.

## Udaberriko lau t'erdri txapelketako lehen jardunaldia gaur

Gazteek irekiko dute gaur Udal Pilotalekuan jokatu- ko den udaberriko lau t'erdri- ko txapelketa. 19:30ean lehen mailako gaztetxoak arituko dira, munizipalean, eta horien ostean, bigarren mailako bes- te bi partiduren txanda iri- tsiko da. Antolatzaileek azal- du dutenez, partidu bizkor eta interesagarriak izango dira gaur iluntzean.

## Bihar emango diote hasiera Ubera Natura hitzaldi zikloari

Ubera Natura hitzaldi zikloa ekainera arte izango den arren, bihar egingo dute lehen saioa. 09:30etik 10:00etara Joseba Rekondoren eskutik zuzenean irratsaio bat izango dute. Hamaiketakoaren ostean, 10:30ean *Landareen bizimodu* izeneko hitzaldia entzuteko aukera egongo da auzo elkar- tearen ondoko lekuan.

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918





EH Bilduko hautagaiak, aurkezpen ekitaldian. | GOIENA

# "Zerrenda anitza" osatu du Oñatiko EH Bilduk

## Gaur iritsiko da etxe guztietara azken lau urteetako agintaldiaren balorazioa jasotzen duen txostena

T.M./M.A. | OÑATI

Herri Bizixa izenburupean 2011-2015 agintaldiaren balorazioa jasotzen duen txostena osatu du Oñatiko Udal Gobernuak eta gaur banatuko dute etxe guztietara. Atalka edo sailka aztertzen ditu txostenak azken lau urteek emandakoak eta herritarren iritziak ere jasotzen ditu. Besteak beste, sozioekonomiaz eta enpleguaz, ongizateaz, partaidetzaz, gazteriaz, politika feministaz, hezkuntzaz edo hizkuntzaz dihardu.

Mikel Biain alkateak nabarmentzen dituen artean daude, "ingurumenaren zaintzan eta jasangarritasunaren alorrean herriak emandako pauso garrantzitsuak". Biainek ongizateari dagokionez gaur egungo gizarteak dituen erronkak ere aipatzen ditu eta udalak

enpleguari dagokionez egin duen saiakera berezia azpimarratu.

### "Talde sendoa", EH-Bildurena

EH Bilduk martxoaren bukaeran egin zuen publiko udal hauteskundeetara aurkeztuko duen zerrenda. Udaletxeko arkupetan egindako aurkezpenean Mikel Biain alkateak etorkizunera begira esparru desberdinetan dituzten asmoak azaldu ostean, erronkei aurre egiteko osatutako "talde sendoa" aurkeztu zuen: "Adin eta alor ezberdinetako pertsonak izango gara EH Bilduren udal taldea osatuko dugunak. Sindikalismotik, enpresa mundutik, gazte mugimendutik, mugimendu feministatik, aniztasun funtzionalen mugimendutik, irakaskuntzatik, euskalgintzatik datorren jendea

da, baita etorkinekin lan egiten duena ere". Era berean Biain alkateak eta hauteskundeetan alkategai izango denak, eskerrak eman zizkien agintaldi honetan bidelagun izan dituen taldekideei. Gaineratu zuen, oinarri sendoak ezarri dituztela Oñatin epe luzeko proiektu bat garatzeko. Aurreko agintalditik Biain bera, Nerea Zubia eta Oier Irizar dira errepikatzen diren bakarrak eta horren inguruan galdetuta alkateak adierazi zuen udaletxeko ezagutza eta lau urteotako esperientziaren transmisioa bermatuta dagoela.

Josu Lizarralde zinegotziak, bestetik, EH Bilduren oinarriak zerrendatu zituen aurkezpenean: "Gure oinarriak dira aldebakartasuna, indar metaketa eta herri aktibazioa", adierazi zuen. Eta

### IZENAK ORDENA JARRAITU BARIK

- ▶ Mikel Biain
- ▶ Iñaki Aiastui
- ▶ Susana Altuna
- ▶ Jose Antonio Amundarain
- ▶ Lurdes Arregi
- ▶ Rafael Erostege
- ▶ Irati Etxeberria
- ▶ Gari Ibartzabal
- ▶ Oier Irizar
- ▶ Rafael Kortabarria
- ▶ Aitziber Legorburu
- ▶ Ana Martin
- ▶ Esther Moiu
- ▶ Borja Moiu
- ▶ Aitor Orueta
- ▶ Izaskun Urtega
- ▶ Mainer Usandizaga
- ▶ Kepa Zelaia
- ▶ Nerea Zubia
- ▶ Leire Zumalde

horri honako hau erantsi: "Orain arte EH Bilduren jardura ia guztia erakundeetako izan da; baina ezinbestekoa da kalea zapaltzea, eta horretara goaz. Ezin dugu perspektiba galdu".

Gipuzkoako ahaldu nagusigai Xabier Olano ere izan zen ekitaldian, eta talde lana nabarmendu zuen EH Bilduren ikur nagusi bezala.

### Posta bidezko botoa

Posta bidezko botoa emateko laguntza zerbitzua ipiniko du EH Bilduk Bidebarrietako erabilera askotariko gelan. Datorren martitzenean hasita, martitzen eta eguenetan egongo dira 11:00tik 13:00ra eta 18:00tik 20:00ra eta zapatuetan, 11:00tik 13:00ra. Maiatzaren 14ra arte izango du zerbitzu hori.



Fernando San Martin. | GOIENA

## PSE-EEK, alkategai irundarra

G.A./M.A. | OÑATI

Fernando San Martin irundarra da Oñatiko alkateetarako sozialisten hautagaia. 55 urte ditu, euskalduna da eta irakaslea, ofizios. Azken agintaldian zinegotzia izan da Irungo udalean eta Kultura, Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Balioen sailak kudeatu ditu.

Oñatin atez ateko hondakin bilketa sistema kentzeko konpromisoa hartu du, eta, "errespetutik eta pluraltasunetik", "inposizioa" baztertzekoa, baldin eta Udalean ordezkari izatera iristen bada.

## Alderdi popularrak adierazi du alkategaia aurkeztuko duela Oñatin

Aurreratu dutenez, alkategaia arabarra izango da eta izena asteburu honetan emango dute aditzera. Azken bi agintaldietan ordezkari izan ez badu ere, beti aurkeztu izan du zerrenda PPK Oñatin, eta hala egingo du orain ere. Popularrekin, lau izango dira maiatzeko udal eta toru hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdiak.

# "Eskarmentudun" jendeak osatu du EAJren zerrenda

## Adinari eta lanbideari begira "oso zerrenda anitza" osatu du EAJk, Elgarrestaren esanetan



EAJko hautagaiak martitzeneko aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

T.M./M.A. | OÑATI

EAJk astean eman du udal hauteskundeetara aurkeztuko duen zerrendaren berri. Miren Elgarresta alkategaia azaldu du lan ikaragarria egin dutela euren proiektura jende berria erakartzeko, eta lortu dutela gaineratu du. Elgarrestaren esanetan, EAJko zerrenda osatzen duten askok politikan eskarmenturik izan ez arren, esperientzia eta eskarmentu handiko pertsonak dira, eta euren alor profesionalen erakutsi dute eguneko erronkei aurre egiteko gai direla: "Gaitasun hori Udal Gobernura eroateko eta aplikatzeko aukera duen jendea da, eta horren bila ibili gara".

Alkategai jeltzalearen ustez, adinari eta lanbideari begira, zerrenda anitza osatu dute: "Etxekoandreak eta unibertsitateko doktoreak daude, baita lizentziadunak, erretiratuak, abokatuak, autonomoak... Benetan talde aberatsa osatu dugu".

### ZERRENDA OSOA ORDENEAN

- |                          |                    |
|--------------------------|--------------------|
| ▶ Miren Elgarresta       | ▶ Xabier Mugarza   |
| ▶ Lourdes Idoiaga        | ▶ Nekane Maiztegi  |
| ▶ Amaia Erostarbe        | ▶ Anjel Mari Biain |
| ▶ Jon Kepa Gerrikagoitia | ▶ Luis Anduaga     |
| ▶ Ritxar Fernandez       | ▶ Margarita Mejia  |
| ▶ Marijo Etxegoien       | ▶ Isidro Palacin   |
| ▶ Jabi Baltzategi        | ▶ Lourdes Urtaza   |
| ▶ Olatz Agirre           | ▶ Mikel Gartzia    |
| ▶ Aitor Urtzelai         | ▶ Ainhoa Irizar    |
| ▶ Kontxi Egaña           | ▶ Aitor Arregi     |

### Posta bidezko botoa

Gaixotasunak ezinduta daudelako edo kanpoan izango direlako hauteskunde egunean botoa ematerik izango ez duten herritarrei, posta

bidezko botoa tramitatzen lagunduko diete jeltzaleek, Oñatiko batzokian; astelehenetik ostiralera, 18:30etik 19:30era, edo 943 78 01 17 telefonora deituta.

# Perfumeak, literaturari usaina hartzeko

Liburuaren Egunaren harira, lurrin kata literarioa egingo dute Udal Liburutegian eguaztenean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Apirilaren 23an da Liburuaren Eguna eta bezperan, *Lurrinak & Liburuak* ekimena egingo dute Udal Liburutegian. Hala, perfumeak ekarriko dituzte literaturak zer usain duen jakiteko. "Donostiatik etorriko diren bi neskek gidatuko duten kata berezi bat izango da. Perfumeak eta koloniak ekarriko dituzte eta nobela beltzaren, poesiaren edo liburu konkretu batek duen usaina antzematen saiaturako gara", azaldu du Arantzazu Ibarrondok, Udal Liburutegiko arduradunak.

**Zozketa**

Kata berezi horrez gain, beste bi ekitaldi ere antolatu dituzte Liburuaren Egunaren harira. Martitzenean, esaterako, Unai Iturriaga etorriko da. "Euskaraz ez daude komiki asko eta euskarazko tertulia taldeak Iturriagaren Haur besoetakoa irakurri du. Horri buruz eta komikigintzaz eta bestelako gaiez berba egitera etorriko da. Ekitaldi irekia izango da", azaldu du Ibarrondok.

Eguaztenean, berriz, ipuin kontaketa musikatua egingo da

## EGINGO DIREN EKITALDIAK

**APIRILAK 21**

19:00 Unai Iturriagarekin tertulia

**APIRILAK 22**

18:00 Ipuin kontaketa musikatua.

19:00 Lurrin kata literarioa

**APIRILAK 28**

18:30 Tertulixan, gazteleraz.

**APIRILAK 30**

18:00 Ostegun Kontalariak.

umeendako. Gonbidapenak har daitezke dagoeneko; Ostegun Kontalariak saiorakoak astelehenean aurrera emango dituzte.

Bestalde, hilaren 23ra arte izena ematen dutenen artean Zea Mays entzuteko eta *Konposteroak* antzezlana ikusteko sarrerak zozkatuko dituzte.



Langileak lanean. | MIREIA BIKUÑA

## Ganbararen teilatua konpontzen

O.E. | OÑATI

Ganbara abesbatzak egun Errekalden duen egoitzaren teilatua konpontzen ari dira. Aste honetan hasi dituzte konpontze lanak eta hilabete inguru iraungo dute. Astelehenean jarri zituzten aldamiok erakinaren inguruan, lanerako. Lanak bukatu bitartean ezin go da eraikin horren inguruan aparkatu. Otsailaren 27an jausi zen teilatua zati bat Ganbarak egun erabiltzen duen lokalean.

## Ehuntsen Egunerako oihalak betetzen ari dira

Gure Esku Dagok Kale Barrian zabaldu duen egoitzan kamisetak dituzte salgai

O.E. | OÑATI

Ehuntsen Eguna ospatuko du Gure Esku Dago ekimena apirilaren 25ean. Norberaren atxikimendu pertsonalak jasotzen dituzten oihalak zatiak azaldu eta josiko dituzte, bata bestearekin. Horretarako propio prestatu dituzten oihalak Gure Esku Dago kale Barrian zabalik duen egoitzan eskura daitezke. "Batetik, hogei laguneko taldeek betekiko dituzten oihalak eskura daitezke, eta bes-

tetik, norbanako ekarpenak jasotzen ditugun oihalak ere baditugu. Ekarpenarekin batera, euro bateko atxikimendua eskatuko diogu herritar bakoitzari; Ekainaren 21eko ekitaldiak antolatzeko izango da diru hori. Horrekin batera, izen-abizenak ere hartuko dizkiegu, gure datu basea osatzeko. Bestalde, bulegoko gastuak eta bestelako gastu estrukturalak ordaintzeko *laguntzaile* figura sortuko dugu", dio Gure



Gure Esku Dagoaren lokala, kanpotik. | O.E.

Esku Dago ekimeneko kide Lierri Olmedok. Izan ere, hilaren 25eko ekitaldirako oihalak ez ezik, informazioa emateko eta bilerak egiteko ere bada zabaldu duten egoitza. Baita denda ere.

"Ekainaren 21erako propio atera diren kamisetak ditugu, 12 eurotan", gehitu du Olmedok. Egoitzaren ordutegia: martitzenetan eta eguenean 17:30etik 19:30era eta zapatuetan 11:30etik 13:30era.

## Azken lau urteetako datu onenak izan dituzte Turismo Bulegoan Aste Santuan

Arrikutzen ere aurten jaso dituzte bisitari gehien 2010etik hona



Turistak, San Migel parrokiako klaustroa ikusten. | IMANOL BELOKI

O.E. | OÑATI

Aste Santua emankorra izan da Oñatiko Turismo Bulegoan. Apirilaren 2tik 6ra bitartean 424 pertsona pasa ziren bertatik, 2011tik hona izan duten kopururik altuena. "Bisitari asko izan ditugu, bai. Eguraldiak ere lagundu du", dio Edurne Urteagak, Turismo Bulegoko langileak.

Jatorriari dagokionez, azken urteetan gertatu den moduan, euskal herritarrek izan dira turista gehienak. "Kataluniarren ostean, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak izan dira gehienak. Eus-

kal Autonomia Erkidegoko 200 lagun baino gehiago etorri dira, Oñatikoak kontatu gabe", dio Urteagak. Izan ere, bisitarien artean urtero egoten da oñatiarren bat edo beste. "Kanpotik etorritako lagunei herria erakusteko modu bat izaten da", gehitu du. Madrilgo, Nafarroako, Gaztela eta Leongo eta Errioxako turistak ere izan dira.

Pazko astean ere izan dituzte bisitariak, baina gutxiago.

**Kobetan**

Arrikutz kobetako aurtengo datuak ere azken urteetako onenak dira. 872 pertsonak egin dute kobako bisita Aste Santuko bost eguenean. 2010etik hona jasotako datu onena da hori, zehazki. Apirilaren 3an, egubakoitza, jaso zituzten Arrikutzen bisitari gehien.

## Murgiarako bidea itxita egongo da beste astebetez

San Martindik Murgia doan errepidea itxita egongo da ibilgailuendako beste astebetez. Hala, datozen eguenean ere Murgia auzora joateko Berezaon barrera joan behar dute ibilgailuek. San Martin auzoaren goialdean auto-karabanendako gunea nahiz aparkalekua prestatzeko lanak osatzen ari dira, eta horregatik itxi dute errepide hori. Euriteen ondorioz jausi zen Murgialdai baserrirako bide zatia ere konpontzen amaituko dute, bide batez.

## Udako aisialdian begirale izateko izen-ematea zabalik

Uztailean egingo diren udaleku irekietan eta arte udalekuetan begirale izateko izen-ematea zabalik dago.

Bi udalekuak ekainaren 29tik uztailearen 24ra egingo dituzte eta Udalak begiraleei lan kontratua egingo die ekainaren 29tik uztailearen 30a arte. Baterako zein besterako, udal bulegoetan eman behar da izena hilaren 24a aurretik.

Bestalde, udako kirol kanpainako begiraleak apuntatzeko epea astelehenean zabalduko dute.

## 'Dispertsioaren liburuxka' irakurriko dute bihar plazan

Presoen dispertsioaren aurkako ekimena egingo du Sarek bihar, zapatua, eguerdian, Foruen plazan. Hala, presoen sakabanaketa politikaren berri emango dute, *Dispertsioaren liburuxka* ezagutaraziko dute eta horren irakurketa herrikoia egingo dute. 12:00etan izango da, Foruen plazan.

Musika, sarekide egiteko aukera, bertsoak eta kamisetak salgai ere egingo dira. Irakurriko duten liburuxkaren aleak ere egingo dira, zabalatzeko.

## Bi atzerapenen ostean, domekan da Aloñako zuhaitz landaketa

Eguraldi txarragatik birritan atzeratu behar izan dute ekimena, eta, azkenean, domekan egingo dute Aloñako magalean urtero egin ohi duten zuhaitz landaketa.

Aurten 40 zuhaitz-landare sartuko dituzte lurretan: urkiak (15) eta lizarrak (25) landatuko dira. Aurreko urteetako lekuetan, hutsuneak beteaz egingo dute landaketa. Gainera, itxituretan haizeak eragindako kalteak ere konpontuko dituzte. 09:30ean elkartuko dira Durun. Landareak Unaimendin daude dagoeneko.

# Oñatiko bederatzi neska Aloñako Igoerako korrikalarien artean

Laguntza deiak erantzun ona izan du eta bidegurutze guztiak bete dituzte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloñako Igoera antolatzen ibiltzen den lantaldeak dena prest du hilaren 26ko probarako. "Eske-rrak eman gura dizkiegu oñatiarrei, herriari berari. Laguntza handia jaso dugu eta lotu gura genituen igoerako bidegurutze guztiak lotu ditugu dagoeneko. Eskerrik asko, benetan", dio antolatze lanetan ibili den Iker Laskurainek. Eta gehitu du: "Jende asko etorri da guregana bere laguntza eskaintzera eta oso pozik gaude. Korrikalariak jakin dezatela bidegurutze guztietan egongo dela petoa jantzita duen lagun bat, eta edozein tokitan edo zer gertatuta ere, laguntzeko edo ambulanzari deitezko norbait izango dutela ondoan".

## 300dik gora korrikalari

Aurtengo igoeran parte hartuko duten korrikalariak dagokienez, 300 korrikalari baino gehiago izango direla aurreratu du Laskurainek. "Horien artean bederatzi neska oñatiar daude", zehaztu du.

Lasterketa nork irabaziko duen oraindik ezin jakin, noski, baina faboritoak zeintzuk izan



Iazko mendi lasterketa. | GOIENA

daitezkeen esaten ausartu da Laskurain: "Walter Becerra izango da faborito nagusienetako bat. Iker Oliveri, Endika Gartzia eta Felipe Artigue ere ondo ibiliko direla uste dut, eta, nahiz eta lehen bosten artean ez ibili, *ultra-trail* lasterketetan aritzen den Javier Dominguez ere etorriko da. Aurrean ibiliko diren oñatiarren artean, berriz, Joseba Molinero eta dagoeneko bi podium egin dituen Axier Alonso ikusten ditut. Ainhoa Lendinez eta Begoña Feijoo ere ez dira gaizki ibiliko".

Parte hartuko duten gehienak euskal herritarrek dira, baina Alacantetik, Burgostik, Leondik eta Lugotik ere etorriko dira. "Aloñako Igoera izango den egun berean jokatu da Espainiako Kopa ere, eta hasieran hona etortzekoak ziren asko hara joango dira, baina oso pozik gaude erantzunarekin", zehaztu du Iker Laskurainek.

## Ibilbidea, oinez

Apirilaren 26an izango da aurtengo Aloñako Igoera eta bezperan, hilaren 25ean, igoeraren ibilbidea oinez egiteko aukera egongo da. Ibilbidea ikusi ez duenarendako edo egiteko gogoarekin gelditu denarendako antolatu dute. "Egia esan, herritarren aldetik etorri zaigu eskaera, jendearen aldetik bazegoelako gogo hori. Guri oso ondo iruditzen zaigu, eta beste talde txiki bat ibili da hori antolatzen", dio Laskurainek. 09:00etan abiatuko dira Foruen plazatik; ez da anoa-posturik egongo.

## NIRE USTEZ



MIKEL ARANBURU

## Orokortzeak dakarrena

Egia esan, azken urteetan banketxeek –banku eta aurrezki kutxak– ez dute izen onik irabazi eta hein handi batean bertan dabilzan langileek ere ez. Batzuk porrot egin eta diru publiko atera dira aurrera –enpresa txiki batekin guztiz kontrakoa egin denean, "hiltzen" utzi–, "preferente" eta menpeko ekarpenen kasua, hipoteken zoru klausula, etxegabeteak... horrela ikusita, ondo irabazitako irudia dutela esan daiteke.

Egunero ez bada ere, gertutik bizi dudalako diot, bezeroekin gai hauetaz hitz egiten da. *Lapurrak, lotsagabeak...* halako hitzak entzuten dira. Lerro hauekin esan nahi dudana da guztiak zaku berean sartzea ez zaidala batere justua iruditzen. Adibide gisa, ez dut kasurik ezagutzen etxebizitza erostez gaina, altzariak, autoa... erosteko adinako hipoteka eman denik, nahiz eta kalean badirudien praktika orokor bat izan dela.

Banketxeak gorrotatzen dituztela esanaz etortzen direnak ere badaude. Hauei koherenteak izateko eskatzen diet: nomina banketxean jaso beharrean eskudirutan eskatzeko, aurrezkiak etxean izateko eta, nola ez, hipotekarik ez eskatzeko, esaterako!

Berriro diot, banku eta aurrezki kutxek duten irudia ondo baino hobeto irabazita dute eta ez ditut praktika txarrak babesten. Orain, ez ditzagun orokortu eta izan gaitezkeen koherenteak diogunarekin.

## "Banketxeak gorrotatzen dituztela ere badiote batzuek"

## Saharari buruzko hitzaldia antolatu du Elkar Hezik

Sahara, borroka garaia? izeneko hitzaldia antolatu dute Elkar Hezi Ikastetxeko Batxilergoko lehenengo mailako historiako ikasleek apirilaren 22rako, asteazkena. 19:30ean izango da, kultur etxeko zine aretoan, Hassana Aalia sahararraren, Xabier Etxebarria eta Ekiñe Zurututza oñatiarren eskutik.

## Igoera faseko lehen partidua bihar Zubikoa kiroldegian

Izarraitz-Aloña Mendi esku-baloi taldea Euskadiko Txapelketara sailkatzeko igoera fasean dago eta bihar, zapatua, jokatu du maila berrira igo ahal izateko lehen partidua. Etxean izango da, Zubikoa kiroldegian, 16:30ean, Romoren aurka. "Iazko esperientzia bera errepikatuko dugu, baina aurten taldeak parekatuagoak daude. Pozik gaude lortutakoarekin eta gogotsu jokatzeko", adierazi du taldeko entrenatzaileak, Rafa Zuluetak.

## Bihar jokatuko dira beteranoetako finalak Azkoagainen

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte Azkoagainen beteranoen ligako eta kopako finalak. Kopako partiduko finala Bundeswehr eta Xaguzar taldeek jokatu dute, 14:00etan. Liga irabazlea nor izango den erabakiko duen partidua, berriz, Kalañatasaray eta Etxaizat taldeen artean jokatu dute, 15:30ean. Bestalde, kopako hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituen norgehiagoka 12:30ean lehiatuko dute Dollygans eta Albok taldeek.

## Sei bertsolariak jardungo dute bihar Santa Anako saioan

O.E. | OÑATI

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa girotzeko bertso saioa antolatu dute biharko. Santa Ana aretoan izango da, 18:00etan.

Parte hartuko duten bertsolariak honako hauek dira: Urko Egaña, Egoitz Aizpuru, Maider Arregi, Andoni Goitia, Joseba Lasagabaster eta Ane Zuatzubizkar. Lehen bostak oñatiarrak dira eta seigarrena, arrasatearra. Gai-jartzaile lana Oñatiko Bertso Eskolako kideek egingo dute. Sarrera lau euro izango da.

Biharko saioan jardungo duten sei bertsolariak hartuko dute parte datorren hilean hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, beste hainbatekin batera.

Maiatzetik ekainera bitartean sailkapen fase bat jokatu dute parte-hartzaileek; horietako saio bat, gainera, Oñatin izango da. Udan etealdia izango du txapelketak, eta, atsedenaldira osten, irailean izango du jarraipena Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak.

## Kongresuak ez du oraindik erantzun Ander Astigarragaren atxiloketaz Amaiurrek galdetutakoa

MAIDER ARREGI | OÑATI

Amaiur koalizioak Madrilgo Diputatuen Kongresura eraman zuen Ander Astigarraga gazte oñatiarrak Durun Aste Santuan izandako atxiloketa "bortitza". "Amaiurrek jakin nahi du zergatik Guardia Zibilak prakak kentzeko agindua eman zion gazteari; zergatik lurrera bota ondoren bere aurpegia lokatzetan igurtzi zuten eta zergatik atxilotu ostean lurretik arrastaka eraman zuten hainbat puntutako zauria egin arte. Espainiako indar armatuek Euskal Herritik noiz egingo duten alde jakin nahi

dugu. Gogora dezagun hau ez dela gertaera isolatu bat", dio Amaiurrek prentsa oharrean.

Ander Astigarragari babesa eman eta gertatutakoa salatzen, manifestazioa egin zuten Oñatin apirilaren 11n. "Euskal Herritik alde egiteko ordua dute Guardia Zibilak, Espainiako poliziak eta armadak", gaineratu zuen Maite Aristegi diputatuak Oñatin manifestazioa bukatzean.

Ekainaren 13an egingo dute Fan Hemendik Eguna eta antolatzaileek helburua ahalik eta jende gehien batzea dela nabarmendu dute.



Apirilaren 11n egin zuten manifestazioa. | M.A.

# Txakurren jabeekin bigarren bilera du Udalak

Heziketa, ardurak eta aske ibiltzeko guneak izango dira berbetagai astelehenean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herritarren eta txakurren arteko elkarbizitza egokia lortzea du helburu Udaleko Ingurumen sailak eta martxoan egin zuen lehen bilera herriko txakurren jabeekin. Orduan gogorarazi zien Lore Martinez Axpe zinegotziak abian dagoen ordenantza eta txakurren kakekin dagoen arazoa. Jabeek, ostera, animaliak aske ibiltzeko guneak eskatu zizkien. Gai horiei guztiei berriro heltzekotan geratu ziren orduan eta bigarren batzarra astelehenean izango da, hilak 20, 18:30ean, Arkupen.

## Txakurrak zelan hezi

Txakurren heziketa izango da hurrengo bileran landuko duten gaietako bat. Eta horren gainean jarduteko Orekan elkarteko txakur hezitzaileak izango dira bertan.

Bestetik, txakurren kaken gainean jardungo dute. *Animaliak eta hiria: beraien beharrak gure ardura* hitzaldia eskainiko du Bubasti elkarteko Josune Gomez Lagok. "Animalien kaken kontua osasunaren ikuspegitik landuko



Txakurren gorotzendako jarritako zakarrontzia Belorrieta auzoan. | MIRARI ALTUBE

dugu: gorotzak, parasitoak, errespetua...", jakinarazi du Martinez Axpek. Hain zuzen gorotzendako zaborrontzi berriak jarri dituzte azken hilabetean; hamabost dira, laranja kolorekoak.

Eta bukatzeko txakurrak lotu barik ibiltzeko guneak izango dituzte berbetagai. Udal ordezkariak horretara bideratutako bi gune aurkeztuko dizkiete jabeei.

## Errolda eguneratu

Udalak herriko txakurren errolda eguneratu gura du, gainera. "Erregistroa gaurkotu eta eguneratuta izan gurako genuke. Horretarako albatariari adieraztea eskatuko dugu, baita udalerean alta eta baja ematea ere", dio Martinez Axpek. Egun 500 txakur inguru bizi direla Aretxabaletan uste dute.

## Luis Gomez da Irabazi-Ganemos ekimeneko alkategaia

M.A. | ARETXABALETA

Irabazi-Ganemos ekimena Aretxabaletan ere aurkeztuko da Udal hauteskundeetan eta alkategaia Luis Gomez da (Arrasate, 1968). Aretxabaletan bizi da azken 20 urteotan eta Coprecin egiten du lan. Ezker Anitza-IUko kidea da eta lehenengoz izango da zerren-

daburua. "Zintotasuna eta zuzentasuna" eskainiko dutela dio, eta zera gaineratu du: "Herritarren parte-hartzea bultzatuko dugu, eta kontsulta bidez hartuko ditugu erabakiak; izan ere, Udal aurrekontua, inbertsioak eta antzeko kontuak herritarrek erabaki behar dituzte".



Luis Gomez, Herriko Plazan. | M.A.



**Portugalen  
ibili dira  
Basotxokoak  
Pazko astean**

Portugal aldean –Lisboa, Fatima, Estoril...– ibili gara Basotxoko kideok Pazko astean, 49 lagun guztira, eta oso irteera dotorea izan da. Argazia Mafrako jauregiaren aurrean aterata dago; XVIII. mendekoa da eta 40.000 liburu gordetzen dituen liburutegia dauka. Bestetik, apirilean bi hitzordu ditugu: 23an, eguena, kaleratzeen gaineko hitzaldia, 17:30ean, Stop Kaleratzeak elkarteko Salva Gonzalezen eskutik; eta 28an, martitzena, Nafarroara –Xabier, Leire...– irteera (bigarren autobusa gailtza betetzen).

KOMUNITATEA GOIENA | BASOTXO  
ERRETIRATUEN ELKARTEA | ARETXABALETA

## NIRE USTEZ

NURIA  
FDZ. DE  
ARROIABE



## Sensaziño gazi-gozua

Irizti-artikulu hau berandutxo dator eta ezkor samarra da, balitxek; baiña, ezin izen dotsat barruko inkernuari eutsi.

Korrikak, hizkuntza baten alde munduen egiten dan ekimenik haundixenak, jente molto ikeragarrixa mobidu dau, urtero letxe: oin arteko haundixena, antolatzaile eta arduradunen esanetan. Barrez, mundu zabalien be beste 50 Korrika txiki egin ei die.

Bizi-bizi sentiduten dittuagu, ondio, ibilbide osuen eta, batez be, geure inguruen bizitako zarrara-astindduak. Ez siñisketako moduko girua sortzen da beti, nahiz eta gabaz pasau eta, sarritan, hotza,

eurixa eta edurra bera be lagun izen.

Uste osuagaz dixot: demaseko merittua dauko halako ekitalditzarra antolaketiak, lanerako eta takarraren egiteko horrenbeste lagun erakertiak, halako zabalkundia eukittiak... Argi geratu dailla.

Niri, baiña, sensaziño gazi-gozua geraketan jat, beti, akaberan. Zela izen leike geruago eta jente gehixago batzia halako ekitaldixetara eta euskeriaren ebaleria eta kontzientzia geruago eta txikixaguak izetia? Egun horreittan zabaldu zanez, Korrikan parte hartu auienen erdixak egunero kuen euskeraz egingo balau, herri askoz be euskeradunaguen biziko gitzake.

Kontau eustien pasadizo negargarri bategaz akabauko dot. Ba ei oiezen ariñeketan bi lagun, eta batac esan ei eutsen bestiari (gaztelaniaz, jakiña): "Halakuetan, geruago eta garbixago ikusten dot gauza bat". "Zer da, ba?". "Kirol gehixago egin biherko naukela".

## Dolu egoerak umeekin lantzen ikasteko hitzaldia

Patxi Izagirre psikologoak emango ditu azalpenak gaur, egubakoitza, 18:00etan, kiroldegian

M.A. | ARETXABALETA

Nola landu *dolu egoerak haurrekin* hitzaldia egingo du gaur Patxi Izagirre psikologoak. Hori antolatu dute Arizmendi ikastolako gurasoek, Kurtzebarriko Gurabarri eta Batera guraso elkarteek, Kuku-Miku elkarteak, Pausokako guraso elkarteak eta Aretxabaletako Udalak, eta gaur izango da, 18:00etan, Ibarra kiroldegian.

## Modu osasungarrian landu

Heriotza ez da gai samurra, eta oraindik zailagoa umeekin berba egiteko. Izagirrek, Zumarragako psikologoak, dio errazena beste aldera begiratzea izan arren haurra gertatzen dabilen horren "parte egitea" funtsezkoa dela. Hori horrela, heriotzaren

gainean zelan egin berba neska-mutikoekin –edozein adinetakoak izanda ere–, argibideak emango dizkie gurasoei gaur, baita *dolu egoerak zelan bizi gomendioak ere*.

Izagirreraren esanetan mundu sinbolikora jotzen da askotan, baina ez da "egokia": "Umea gehiegi babesten bada eta errealitatea bizitzeak dakarren frustrazioa estaltzen bada umea atrofiazeko arriskua dago".

Dolua modu osasungarrian lantzea ezinbestekoa dela dio adituak; izan ere, bizitzan negatiboa eta positiboa denari aurre egiteko indarra sustatuko da horrela. Eta gaineratu du umei erakutsi behar zaiela garrantzitsuena dela bizitza "disfrutatzea".

Jou Díaz  
Harakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# 'New Orleansko Cyrano', familia osoarendako lana Arkupen

Umorea eta musika bateratzen dituen antzezlan eskainiko dute domekan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*New Orleansko Cyrano* antzezlan izango da domekan, 17:00etan, Arkupen, Vaiven Producciones taldeak eskainita –sarrera: hiru euro–. Musika eta umorea bateratzen dituen lana 7 urtetik gorako neska-mutikoei gomendatua dago eta familia giroan ikusteko ezin aproposagoa da.

## Konplexuak gainditzea gai

Edmond Rostand poeta frantsesak idatzitako *Cyrano de Bergerac* dramaren bertsio librea da Vaivenek egindakoa, eta Kepa Errasti aretxabaletarrak hartuko du Cyrano pertsonaiaren papera: "Orain arte egindakoetatik ezberdina da eta errespetua sorrarazi zidan hasieran. Benetan paper polita da eta oso gustura nabil", dio.

Frantzia girotu beharrean New Orleansen girotu dute istorioa, haizezko instrumentuak



New Orleansko Cyrano antzezlaneko pertsonaiak. | VAIVEN PRODUCCIONES

jotzen ikasteko eskola batean hain zuzen. "Eta aitzakia horrekin musikak girotutako uneak daude". Hizkuntza, gainera, asko zaindu dute: "Hizkuntza jasoa darabilgu, bertsotan egingo dugu, baina samur ulertzen da".

Cyrano maiteminduta dago, baina sudur luzea du: "Konplexuak gainditzearen garrantziaz egiten da berba lanean. Liderra da Cyrano, ausarta eta lotsagabea, baina benetako ordua iristean kikildu egiten dena", dio Errastik.

## Jon Saratsuak gidatuta 'Beltzean mintzo'

Garabidek egindako *Beltzean mintzo* dokumentala eman zuten eguaztenez Arkupen. Elkartruke programaren bidez etorritako hamabost lagunentzako testigantzak jaso dituzte ikus-entzunezko horretan. Jon Saratsuak bideratu zuen ondoren solasaldia eta hizkuntza, komunitatea eta transmisioa izan zituzten gai.



MIRARI ALTUBE

## Emarock eguneko bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude

M.A. | ARETXABALETA

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, Emarock eguna ospatuko dute apirilaren 25ean Aretxabaletan. Egun osoan izango dira ekitaldiak eta herri bazkaria ere egingo dute. Txartelak egunotan jarri dituzte salgai hiru euroren truke; Orly eta Urbaltz tabernetan eta Arkupen erosi ahal izango dira martitzenera bitartean. Menua izango da paella –beganoa eta mistoa– eta postrea.

## Erakusketa Arkupen

Emarock eguna girotzeko erakusketa dago Arkupen, *Iragana, oraina eta geroa* izenarekin. Euskal Herriko hainbat emakume musikariren –Amaia Zubiria, Zuriñe Hidalgo, *Mary May*...– zuzeneko kontzertuetako argazkiak dira erakusketako aretoan jarritakoak. Argazki horiei laguntzeko, gainera, hainbat diskotako portadak ere badaude. Hilabetea bukatu artean egongo da erakusketa.



Arkupen dagoen *Iragana, oraina eta geroa* erakusketako argazkiak. | M.A.

## OHARRAK

### EH BILDUREN AURKEZPENA

Aretxabaletako EH Bilduk herri programa eta zerrenda aurkeztuko ditu datorren martitzenean, hilak 21, Arkupen, 18:30ean.

### POSTA BIDEZKO BOZKA BATZOKIAN

Posta bidez bozkatu gura dutenek batzokian jaso ditzakete argibideak. Eskaera Korreoseko bulegoan egin behar da (azken eguna maiatzaren 14a); eta ondoren eskaera orriak betetzen EAJko afiliatuek lagunduko diete batzokira doazenei (11:00etatik 13:00etara).

### LOURDESERA ERROMESALDIA

Lourdesera erromesaldia anto-

latu dute maiatzaren 23rako, zapatua, eta izena emateko epea zabalik dago. Parrokiako sakristiatik pasatu behar dute interesatuek.

### INPROBISAZIO DANTZA IKASTAROA

*Fluido en tránsito* inprobisazio dantza ikastaro trinkoa antolatuta du –eskarmentu maila guztientzako– Jaiki elkarteak apirilaren 25erako, zapatua; goizez eta arratsaldez izango da –zortzi ordu–. Preziosa da 35 euro langileendako eta 30 euro gaintzakoendako. Izena emateko bideak hona: [jaikielkatea@yahoo.es](mailto:jaikielkatea@yahoo.es); Jaiki elkartearen Facebooken; eta telefonoz deituta: 943-53 43 96.

## ARETXABALETA (TXARAPEA)



Bi familiako 5 etxe: 4 logela, 3 bainugela, 2 terraza eta jardina.  
GUZTIZ BUKATUAK. BISTA IZUGARRIAK. LASAITASUNA.

350.000 € + %4 ITP



SAN MIGUEL  
INMOBILIARIA  
AGENTZIA

SALMENTA ETA INFORMAZIOA: 943 711 781

# Osasun Astean ekintza ugari izango dira

Hitzaldiak, jarduera fisikoak, ikastetxeei zuzendutako ikastaroak... izango dira

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Apirilaren 18tik maiatzaren 8ra arte bitartean izango da Eskoriatzako Osasun Astea, hirugarren urtez. Adin guztiei zuzendutako ekintzak prestatu dituzte, eta mota guztietakok, gainera.

Rosa Lasagabaster Eskoriatzako kiroldegiko langilearen esanetan: "Ekintza esanguratsuen nagusien erorikoen tailerra dela uste dut, tailer hauek anbulatorioko medikuak, fisioterapeutak... izango dira eta aholkuak ematen. Beste bat, Zigor Iturrieta ETBko Txoriene saioko sukaldaria ere izango dela, haurrentzat merienda osasungarri bat nola prestatu behar den azaltzen".

## Bestelako barne ekintzak

Egitarautik kanpo, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila bitarteko haurrek ikastetxe orduetan izango dituzte: hortzak nola garbitu, tentsioa nola hartu... eta halako ikastaroak. Eta udal langileei zuzendutakoak ere izango dira, adibidez.

## HIRUGARREN OSASUN ASTEAN EGINGO DIREN EKINTZEN EGITARAUUA

### APIRILAK 18

16:00 Mendi irteera.

### APIRILAK 19

09:30 BTT irteera.

### APIRILAK 20

13:30 Mendi irteera.

18:00 Desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa.

### APIRILAK 21

18:30 Spinning osasuna.

18:45 Hitzaldia. Ura, osasuna eta euskal kultura

### APIRILAK 12

09:15 Aquagyma.

17:30 Merienda osasungarria, jokoak eta tentsioa hartzea.

### APIRILAK 23

10:30 Erorikoak prebenitzeko tailer teorikoa.

15:00 Ergonomia. Pilates posturala.

18:30 Pultsometroaren erabilera egokia ikasteko ikastaroa.

19:00 Akroyoga, Happy Holy ikuskizuna plazan.

### APIRILAK 24

09:15 Aquagyma.

09:15 Adinekoentzako gimnasia.

10:30 Badminton hirugarren adinekoentzako.

17:30 GAH.

18:30 Body balancea.

18:30 Fit ball gazteak.

### APIRILAK 25

10:30 Dantza librea frontoian.

### APIRILAK 28

10:30 Erorikoak prebenitzeko tailer praktikoa.

### MAIATZAK 8

19:00 Udaberria osatuz.

## EAJk hautagaitzaren aurkezpena egin du

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako EAJk ezagutzera eman du maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztuko duen hautagai zerrenda.

Hautagaitza jeltzaleak galdutako denbora berreskuratu nahi du, eta, horretarako, eskarmentu handiko pertsonak taldera esperientzia berriak gehitu ditzaketenekin batu dira.

**Talde plurala aurkeztu dute**  
Zerrenda osatzen duten hauta-

gaiak hauek izango dira: Jose Ramon Zubizarreta, Puri Regidor, Maite Zubia, Josu Ezkurdia, Maite Uribe, Sorkunde Pagaldai, Fany Izagirre, Aitor Urrutia, Emeterio Gallastegi, Judith Altuna eta Pedro Mari Armandaritz.

Programari dagokionez, Udala, eskualdeko garapen agentziarekin batera, elkarlanean jarriko dutela nabarmendu zuten krisi ekonomikoari aurre egiten laguntzeko, besteak beste.



Eskoriatzako EH Bildukoek talde argazkia egin dute. | MIRIAM ISASMENDI

## EH Bilduk hautagaien zerrenda osatu du

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduk laster aurkeztuko du udal hauteskundeetarako programa, baina dagoeneko osatuta daukate Aitor Zubizarreta EH Bilduko alkategaia-ekin batera udal hauteskundeetara joango diren hautetsien zerrenda.

Zerrendan lehen Aitor Zubizarreta da; bigarrena, orain arte Hezkuntza eta Gazteriako zinegotzi izan den Maider Landa; hirugarrena Josu Larreategi Arrasateko Ointxe saskibaloitaldeko entrenatzailea; eta lau-argarrena, Aintzane Agiriano.

Hortik aurrerakoak zehazteko dituzte, nahiz eta zerrendakideak erabakita izan. Honako hauek izango dira, hain justu:



Aurkezpenean egindako talde argazkia. | I.B

Miriam Isasmendi, Nestor Arana, Asun Badiola, Joxe Eneketegi, Maider Otamendi, Borja

Garrido, Edorta Zubizarreta, Dorleta Kortazar eta Edorta Barandiaran.

## Xabier Villarreal izango da Irabaziren alkategaia

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Irabazi-Ganemos alderdiko alkatezarako hautagaia Xabier Villarreal da (Legazpi, 1975). Independente gisa parte hartuko du politikan aurreko lehenez. Zortzi urte daramatza Eskoriatzan bizitzen eta bi seme-alaba ditu.

Ezker Anitza-IU, Equo eta Alternativa Republicana alderdiek akordioa egin dute Irabazi-Ganemos eratzeko eta laster aurkeztuko du alderdiak udal hauteskundeetarako programa. Dagoeneko osatu dute hautetsien zerrenda: Xabier Villarreal, Rafa Bernal, Blanca Merchan, Elena Martinez, Javier Zugas-



Xabier Villarreal. | MAIDER ARREGI

ti, Gemma Mancebo, Ana Guizarro, Paco Corbal, Bea Rubio, Manuel Mata, Manoli Merino eta bi ordeko daude taldean.



Joseba Iñaki Kerexeta. | I.B

## Elizateen Elkarteak osatu du hautagaien zerrenda

I.B | ESKORIATZA

Joseba Iñaki Kerexeta (Marulanda auzoa, 1958) da Eskoriatzako Elizateen Elkartetik alkate izateko hautagaia.

25 urte daramatza Arrasateko Alecop enpresan lanean, erosketarako arduradun. Aurretik, aldiz, Eskoriatzako Fagor Ederlanen egon zen mantentze-lanetan.

### Auzoak, herriekin bat

Udalean auzotarren presentzia integratzea da alderdiaren helburu nagusia. Elizateen eta herriaren arteko lotura estuagoa izateko asmoz.

Firma bilketa amaitu da dagoeneko, eta, ehuneko bata lortuta, hauteskundeetara aurkeztu ahal izango dira.



# Deskargako errepidearen erabiltzaileak "gustura" daude zabalduak zatiarekin

Bidea "hobeto" dagoela eta autoarekin egiten den "denbora laburtu" egiten dela diote herritarrek

**M. DEGRACIAS / M. ARREGI** | ANTZUOLA  
Ireki berri duten Urretxu-Antzuola arteko errepide zati berriarekin "gustura" daude erabiltzaileak. Baina Deskargako biribilgunera heltzean dagoen bihurgunea estuegia dela sumatu dutela azaldu dute.

Badira hiru aste ireki zutela GI-632 errepidearen Deskargako bide berria. Urretxu-Antzuola errepidea Deskargaraino heltzen

da, oraingoz; lanak eten egin zituen Foru Aldundiak, lur mugimenduengatik. Hala ere, bi kilometro eta 700 metroko bide zatia erabiltzaileek igarri dute hobekuntza: kalitatean eta denboran. Errepidea "hobeto" dagoela eta autoan egiten duten "denbora laburtu" egiten dela diote.

Onena, baina, Deskargako lana osorik amaituta egotea litzatekeela gaineratu dute. Izan ere,

Antzuolatik Urretxura mendatea ia osorik igo beharra dago errepide berria hartzeko. Hori bakarrik ez; erabiltzaileek diotenez, Urretxutik etorrira, Deskarga gaineko biribilgunera sartzeko bihurgunea "arriskutsu samarra" da. Abiaduran sartzen dira autoak eta bihurgunea estuegia omen da. Antzuolako alkateak, Ima Beristainek, egin du ohartarazpena: "Konturatu naiz biribilgu-

neko irteerako kurba poliki hartu behar dela; estuegia da".

## Proiektu berria

Orain, Beasain-Bergara arteko ardatza osatzeko, Antzuola eta Bergara arteko zatia egitea falta da. Etendako lanei urte amaieran ekiteko asmoa du Gipuzkoako Foru Aldundiak; izan ere, teknikariek proiektua berriro egiten dihardute.

## Berelan elkartearen estatutuak onartuta

**A.T / M.A.** | ANTZUOLA

Martitzeneko ezohiko osoko bilkurara berriro eroan zuten Berelaren estatutuak onartzeko proposamena. Izan ere, azken osoko bilkuran ez zuen gehiengo osorik lortu.

Oraingoan, ordea, EAJ abstenitu arren, Bilduren aldeko zazpi botoei esker gehiengo nagusia lortu du proposamenak eta aurrera ateratu da.

Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroa da Berelan. Orain dela zazpi urte Bergaran hainbat enpresak, norbanakok eta unibertsitatek sortutako ekimena da eta haren helburua da bailarako enpresa eta lan egoera bul-tzatzea eta indartzea.

Bestalde, ezohiko osoko bilkurako puntu gehienak aho batez onartu zituzten. Hala, aurrera irten zen Torresoroako etxebizitza babestuen eta eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa kontratua urtebetez luzatzeko proposamena.

Eta aho batez onartu zuten Goienarekin hitzarmena sinatzeko proposamena.



**AMAIA PILDAIN**  
ANTZUOLA

"Nik Legazpin lan egiten dut eta bost bat minutu aurreratzen ditut. Orain, zati zaharra berritzea komeni da, zuloak daude-eta errepidean".



**SANTOS JAUREGI**  
ANTZUOLA

"Ez dut oraindik errepide berria erabili. Bidea erraztu dela, denbora aurreratzen dela eta oso ondo dagoela entzun diet hainbat herritarri".



**PAKO LARRAÑAGA**  
BERGARA

"Gutxitan erabiltzeko ohitura dut. Baina probatu dut zati berria. Lehengo aldean ondo dago. Baina ikusi egin beharko da noiz bukatzen den guztia".



**IÑAKI SUDUPE**  
ANTZUOLA

"Probatu dut errepide zati berria eta ondo dago; batez ere, goitik datorrenarendako. Baina biribilgune irteera kontuz hartu beharra dago".



**KOLDO MADARIAGA**  
ANTZUOLA

"Ez dut erabili, baina oso txukun geratu dela entzun diet erabili dutenei. Badaukat kuriositatea eta pasako naiz laster errepide zati berria probatzeko".

## Basilio Ormazabal antzuolarra izango da Euzko Alderdi Jeltzalearen alkategaia Antzuolan

Ormazabal ez da hasiberria eta badu esperientzia politikan. Azaldu du Antzuolako herriaren alde lan egiteko ilusioz jardungo duela agintaldian: "Lugarrenez arituko naiz Udalean lanean, orain denbora daukat-eta herriaren alde lan egiteko". Zerrenda, baina, guztiz osatu gabe daukatela gaineratu du. Domekan bailarako alkategaia guztiak aurkeztuko ditu EAJk Arrasaten, 12:00etan.

## Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontua partaidetza bidez erabakitzeko ekimena jarri du abian

*Partaidetzako aurrekontua* izeneko ekimenaren helburua da herritarrek euren eskualdea hobetzen laguntzeko ekarpenak egitea tailerren bitartez. Tailerlean, bi milioi euro nola inbertitu erabakiko dute. Eskualderako onuragarriak izan daitezkeen proposamenak ere egin ditzakete. Antzuolako tailerra apirilaren 22an, eguaztena, 18:30ean Olanen etxean egingo da.

## Aurtengo udalekuan parte hartzeko izena eman daiteke udaletxean edo udal webgunearen bitartez

Uztailaren 1etik 16ra bitartean egingo dira aurtengo udalekuak. Umeen izen-emate epea apirilaren 24ra artekoa da, udaletxera jota. Udal webgunearen bitartez egin nahi dutenek, aldiz, hilaren 26a dute azken eguna. Esan behar da begiraleen izen-emate epea ere zabalik dagoela maiatzaren 3ra arte. Informazio gehiago eta baldintza guztiak ikusgai daude [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com) udal webgunean.

## 'Mozkorra parregarri' opera komikoa Torresoroan ikusteko aukera izango da apirilaren 26an

Bergaran martxoaren 14an estreinatu osteko lehen emanaldia izango du Peñafloidako kondeak idatzitako eta musikaturtako opera komikoa udalerriko mugetatik kanpo. Antzuolako saiorako sarrerak salgai daude hamar eurotan udaletxean eta liburutegian. Bergaran, berriz, Lazkano kirol dendan eta Pikupe Produkzioetan.

## Plaka jarri du Udalak eskerrak emateko

Jose Mari Ugalde eta Josefa Okarantza senar-emazteek herriari egindako diru ekarpena eskertu gura izan du Antzuolako Udalak. Hala, Olamendi baserriko senar-emazteen omenez plaka bat jarri du Torresoroa atzealdeko berdegunean; hain justu, gimnasia parkearen ondoan.



MAIDER ARREGI

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA  
HARATEGIA**




Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**GAILUR**

taberna eta  
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32



Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak martxoaren 30ean egin zuten ekitaldian. | SAN MARTIN ESCOLA

## Martitzenean egingo dute lore landatzea HHkoek

Martxoaren 30ean Lehen Hezkuntzako haurrek ospatu zuten Zuhaitz Eguna

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Martitzenean, apirilaren 21ean, Haur Hezkuntzako umeek Zuhaitz Eguna ospatuko dute. Kalera irtengo dira, Ibarren, eta hainbat lore mota landatuko dituzte.

09:00etatik 10:00etara 5 urteko umeak irtengo dira; 10:00etatik 11:00etara, 4 urtekoak; eta 11:00etatik 12:00etara, 3 urtekoak. Umeek Haritz Zubiateri lagunduko diote landatzeak egiten. Izan ere, hainbat lore mota landatzea "oso ekintza polita" izaten dela azaldu du Udaleko Tokiko Agenda 21eko teknikari Jon Toñak: "Umeak ingurumenaren eta landaretzaren garrantziaren gainean sentsibilizatzeko ekintza aproposa da", gaineratu du.

Landatzea egin ondoren, Udalak eskaintako hamaiketakoak izango dute umeek.

**Nagusiak, martxoaren 30ean**

Aste Santuko oporren aurretik, martxoaren 30ean, Lehen Hezkuntzako gaztetxoak irten ziren zuhaitzak landatzera. San Andriana joan ziren, eta haritzak, pagoak, aromatikoak, ezkaikak, salbiak eta izpilikuak landatu zituzten ikasleek. "Azken egunetako euriaren ondoren, egun ezin hobea izan genuen Zuhaitz Egunean", azaldu dute San Martin eskolako arduradunek. Pozik daude egindakoarekin, eta balorazio "ezin hobea" egin dute.

San Martin eskolako arduradunek gaineratu dute azken urteetan San Adrian gunea aukeratu izan dutela landatzeak egiteko; bada, aurtengoa azkeneko urtea izan da. "Eremu hori bete egin da", azaldu dute. Hori horrela, hurrengo urteetarako proposa-

menak aztertzen dabilzala gaineratu dute.

Eguna borobiltzeko hamaiketako egin zuten San Adrian bertan. Mokadutxoa Udalaren eskutik egin zuten.

ESANAK

**"Ingurumen eta landaretzaren garrantziaren gainean sentsibilizatzeko ekintza aproposa da"**

JON TOÑA | UDALEKO TEKNIKARIA

## Eskerrik asko 19. Korrikari eskaintako laguntzagatik!

KOMUNITATEA GOIENA | KORRIKA | ARAMAIO

Eskerrik asko, Aramaio, 19. Korrikari eskaintako laguntzagatik. Martxoaren 23an, astelehena, pasa zen Korrika Aramaiotik. Eskerrik asko laguntza eman duzuen guztioi!

Eskerrik asko jaialdian parte hartu zenuten guztioi! Bertsolariak, abesbatza, Papargorri, San Martin eskola, trikitilariak, Sustrai, dantzariak, Manex eta Maria eta publiko bezala bertaratu zineten guztioi.

**Ekarpene ekonomikoa**

Horrez gain, eskerrrik asko aurtengo Korrikan ekarpen eko-

nomikoa eman duzuen talde edo eragile guztioi! Orixol, Izpizte, Ehiztari Txokoa, Anaia Artea, Intxaurren Elkarte, Itur-zuri, Alaiak, Anbotoko doinuak, Oilgor, Gure Esku dago, Gazte Asanblada, Lagun Artea, Bizente Goikoetxea abesbatza, trikitilariak, Papargorri, bertsolariak, Txirritola, San Martin eskola, Gurasoen Elkarte, Aramaio Udala, Arbel, EKI, Oletako taberna eta EAJ elkarteak.

**Korrika egin zenutenoi**

Eta, nola ez, 19. Korrika Aramaiotik pasa zenean korrikan irten zineten guztioi ere eskerrrik asko!



19. Korrika Aramaion. | GOIENA

## Papargorri taldekoak haur abesbatzen egunean izan dira

A.E. | ARAMAIO

Arabako haur abesbatzen federazioak antolatutako haur abesbatzen egunean parte hartu zuten Papargorri abesbatzak martxoaren 29an. Adinaren arabera hiru taldetan banatuta abestu zuten: 5-10 urte bitarte-

koak, 11 eta 14 urte bitartekoak eta 15 eta 18 urte bitartekoak.

**"Lan handia" egin zuten**

"Kontzertu polita" izan zen, "egindako lanaren" ondorioa, azaldu dute abesbatzako arduradunek.



Papargorri abesbatzako kideak. | PAPARGORRI

## Areto futboleko taldeak ligan azkeneko dagoen Bildots Azala hartuko du bihar, zapatua, etxean

Sailkapenean azkeneko postuetan dauden bi taldeen arteko norgehiagoka izango da bihar kiroldegian. Aramaiox Bildots Azala hartuko du etxean, bihar, zapatua, 17:00etan. Aramaiox azken aurreko postuan dago sailkapenean, 9 punturekin; Bildots Azala, aldiz, azkeneko postuan dago, zuloan sartuta, 4 punturekin. Aramaioxendako beharrezkoak izango dira hiru puntuak; izan ere, partidua galduz gero, oso gertu jarriko zaio Bildots Azala, bi puntura bakarrik.

## Oletako errepideak itxita jarraitzen du

Apirilaren 27an itxi zuten eta oraindik ere itxita jarraitzen du Oletarako bideak. Hain zuzen, A-3941 errepidea da Herrizaingo Sailak itxi duena, Kruzetako bidegurutzetik Oletara norabidean doana. Kruzetako bidegurutzean seinalea ipini dute egoeraren berri emateko. Konponketa lanetan jarraitzen dute.



GOIENA



## ELGETA

# Eskolako neska-mutikoak eta herriko erretiratuak elkarrengandik ikasten

Informatika tailerra prestatzen dihardute orain; apiril amaieran egingo dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aste Santuko oporrak hartu aurretik Zuhaitz Eguna egin zuten elkarrekin Herri Eskolako ikasleek eta Xalbadorpe elkarte erretiratuek. Dozena bat sagar-rondo landatu zituzten eskolako ortuaren goiko aldean. Ekintza hartan erretiratuek erakutsi eta ikasleek ikasi egin zuten.

Elkarrekin Ikasi egitasmoaren baitan kokatu behar da ekintza, eta etorriko dira gehiago. Hurrengo apirilaren 29an eta 30ean egingo dute. Informatika tailerra izango da. Kasu horretan, baina, seigarren mailako ikasleek erakutsi eta erretiratuek ikasi egingo dute.

Bergararik etorri da Elkarrekin Ikasi proiektuan parte hartzeko proposamena: Bizikasi eta Miguel Altuna institututik, hain zuzen ere. "Proiektu oso polita iruditzen zaigu", adierazi du eskolako zuzendari Nora Olabidek. Erretiratuen elkartetik ere modu oso positiboan baloratzen dute.

## Kultura hamabostaldia

Hurrengo egunetako agenda beteta dator Elgetako Herri Eskolan. Astelehenerik aurrera Kultura hamabostaldia egingo dute. Ohiko asmakizunak, probak eta jola-



Manu Sarasua eskolako neska-mutikoekin zuhaitza landatzen. | HERRI ESKOLA

sak eskolako atarian ipintzeaz gain, Galtzagorri elkartearen Liburuaren Altxorra izango dute. Eta Haur Hezkuntzako umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du apirilaren 23an eskolako guraso Maider Osak. Lehen Hezkuntzako ikasleak, berriz, udal liburutegi zerbitzua ezagutzera joango dira, hilaren 27an eta 28an. Bisita gidatua eskainiko die liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. Eguneko Zentrora ere egingo dute bisita neska-mutikoek; izan ere, musika emanaldia prestatu dute bertako nagusiendako.

Eta lorategi bertikalari buruzko tailerra izango dute hiru garren eta laugarren mailetako ikasleek. Bergarako Miguel Altuna institutuko aditu batek gidatuko du, apirilaren 29an.

## Formazioa gurasoendako

Elgetako gurasoendako eta irakasleendako ere bada hitzordurik. Astelehenean hasita Izan egitasmoaren inguruko ikastaroa egingo du Baketik fundazioko Maite Aseginolatzak eskolan. Bizitzeko eta elkar bizitzeko heziketari lotuta dago ikastaroa.

## Elgetako alkategai sozialista Elias de Castro da

L.Z. | ELGETA

Alderdi sozialistak jakinarazi du maiatzeko udal hauteskundeetan Elias de Castro aurkeztuko duela Elgetako alkategai. Orain lau urte ere De Castro izan zen sozialisten zerrendaburua.

Mota del Marques herrian jaiotakoa da De Castro (Gaztela eta Leon), eta 67 urte ditu. Bi agintaldi egin zituen Sorluzen zinegotzi moduan; 1983tik 1991ra. Ezkondua dago eta bi seme-alaba ditu. Uneotan sozialistek ez dute ordezkariarik Elgetako udaletxean.

## Nerea Villa izango da Gu Geu Elgeta plataformako alkategaia

L.Z. | ELGETA

Gu Geu Elgeta herri plataformak Pazko Astearen eman zuen alkategaiaren izendapenaren berri. Nerea Villa (Elgeta, 1973) elgetarrak hezitzaile dihardu Elgetako udal ludotekan. Bi seme-alaba ditu.

Plataformatik aditzera eman dutenez, lortu dute hautesle elkarrekin osatu ahal izateko beharrezkoa zuten sinadura kopurua, eta bi aste barru emango dute zerrendako gainerako hautagaien berri.

Maiatzeko udal hauteskundeak begira, bestalde, Gu Geu Elgeta plataformatik jakinarazi dute martxan dutela botoa posta bidez



Nerea Villa. | MARIJO DEGRACIAS

emateko laguntza zerbitzua. Arduradunak dira Iratxe Bravo (687 01 05 73) eta Idoia Castelos (672 27 55 74).

## Erresistenteen Eguna dela-eta zenbait aldaketa herrian

L.Z. | ELGETA

Oroimen historikoaren aldeko taldeek Elgetako Udalarekin elkarlanean antolatuta, Intxortako borrokaldien oroimenezko ekitaldiak egingo dituzte zapatetik domekara bitartean, Elgetan. Antolatzaileek gertu dute egitaraua —ikus 2. orria— eta egun horietan herrian egongo diren zenbait aldaketaren berri eman dute.

## Zirkulazio aldaketak

Domekan oinezkoendako izango da Elgetako erdigunea. Horrelakoetan egin ohi den moduan, Berraondokotik bideratuko dute ibilgailuen zirkulazioa. Autobus geltokia ere lekuz aldatuta egon-

go da domekan: Berraondokora eramango dute.

## Eserlekuak Asentzión

Domekan 11:30ean egingo dute borrokaldien errekreazioa. Ordu-bete lehenago, 10:30ean, itxi egingo dute Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidea ibilgailuendako. 13:00 aldera zabalduko dute berriz. Gomendatu dute denboraz ibiltzeko eta kanpotik etorri gero industrialdean apartaketako. "Errekreazioa eserita ikusteko 300-400 eserleku ipiniko ditugu", esan dute antolatzaileek. Kiroldegian, bestalde, umeendako puzgarriak ipiniko dituzte eguerdian eta 15:30etik 18:00etara.

## Liburutegian martxan dira Liburuaren Eguneko ekintzak

KOMUNITATEA GOIENA  
LIBURUTEGIA | ELGETA

Aurreneko pistekin martxan da *Ezetz igarri! liburuak* lehiaketako lehen edizioa. 12 urtetik aurrerako bazkideek e-reader bat irabazteko aukera daukete proposatzen ditugun bi liburuak asmatuz gero. Zu izango al zara irabazlea?

## Ipuinen Ordua, gaur

Eta gaur, barikua, Ipuinen Orduko hurrengo saioa izango dugu liburutegian. Eneidak bideratuko du 3 urtetik gorako txiki-

txoentzako hurrengo ipuin kontaketa saioa.

## Ikuskizuna hilaren 24an

Eta liburutegian martxan dira Liburuaren Eguna aitzakitatzat hartuta antolatutako ekintzak: apirilaren 23an, 17:15etik 19:15era, liburutegia plazara. Hilaren 24an, frontoian, Debo-teenbote konpainiaren *Vademekun* ikuskizuna publiko guztiendako, 18:30etik 19:30era. Eta apirilaren 27an eta 28an, eskolako haurrak bisitan etorriko dira liburutegira.

## OHARRAK

### ELGETAKO EH BILDUK BATZARRA

Gaur, barikua, 19:00etan, batzarrara udaletxean —ezkerreko atetik sartuta—. Gaiak: zerrenda eta hauteskundeetarako planifikazioa.

### KONTZERTUA ESPALIOIAN

Gaur, 22:30ean, Eibarko Trio Medianoche taldearen emanaldia Espalioian. Sarreraren prezioa hamabi euro da; aurrez, hamar euro.

### BOLO TXAPELKETA

Gipuzkoako hiru txirilo txapelketako saioa zapatuan, 17:00etan, bolatokian. Parte hartze irekia.

### ODOL ATERATZEAK

Martitzenean, hilak 21, 18:00etatik 20:00etara, udaletxean.

### MENDI IRTEERA

Apirilaren 26an, domeka, irteera Nerbioiko ur-jauzietara Kantsatzeke taldearekin. Izen-ematea zabalik ohiko bideetatik.

## LEINTZ GATZAGA

# Bi zinegotzi gutxiago izango ditu udalerrriak

Gatzagako bizilagun kopurua jaitsi egin delako etorriko da udal ordezkari kopuruaren txikitzea

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Datozen lau urteotan, Leintz Gatzagako udalbatzarrak bost kide izango ditu, azken lau urteotan izan dituen zazpi

aldeen. Udalerriko bizilagun kopuruaren jaitsierak ekarriko du zinegotzi kopurua ere txikitzea; hain justu ere, 250 herritarretik behera da Gatzaga-

gatzagako orain; urtarileko erroldaren arabera, 242 dira, hain justu ere. Eta 250eko kopuru horretatik jaisteak ekarriko du zinegotzi kopurua bera ere txikitzea.

Edozein modutan, ez da kopuru hori izango duen lehen udalbatzarra, bestelako urte batzuetan ere egoera horretan egon da-eta udal ordezkari taldea.

## PP ez da aurkeztuko

Bestalde, urteetan Leintz Gatzagako alkategaia eta zinegotzi

zerrenda aurkeztzen ibili ostean, Alderdi Popularrak iragarri du aurtan ez dutela ordezkariarik aurkezteko asmorik. Hain justu, Debagoieneko herri nagusienetan bakarrik izango da popularren hautagaitza: Arrasaten, Bergaran eta Oñatin.

Bestelako hautagaitzaren baten aurkezpenari dagokionez, momentuz ez da halakoen berririk, baina apirilaren 20an (astelehena) bukatzen da horiek aurkezteko epea; beraz, egunotan izango da berrirren bat.

## LEINTZ GATZAGA

### Kultura lantzeko diru laguntzak eskatzeko aukera

Diputazioko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak kulturarekin lotutako diru laguntzen deia egin du. 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriek kultur ekintzak antolatu ahal izateko 130.747 euro zuzenduko ditu. Eta 64.000 euro bideratuko dira museoek kudeaketan laguntzeko.

MENDI LASTERKETAK

# Epaile zorrotza, Udalatx

- ▶ Domekan egingo dute lehenengoz Arrasate-Udalatx mendi lasterketa
- ▶ Oihana Kortazar elgetarra eta Imanol Goñi eatarra dira favoritoak

XABIER URZELAI | ARRASATE

Iritsi da eguna. Hilabete askotako lanaren ostean, Mondraitz kirol elkarteak antolatuta, domekan egingo dute lehenengo Arrasate-Udalatx mendi lasterketa. Irteeran -Arrasateko plazan- 250 lasterkari pasa batuko dira, eta tartean egongo dira Euskal Herriko puntako hainbat mendi lasterkari. Hala, favoritoen gainean galdetuta, Markel Sanmiguel antolatzaile taldeko lagunak ez du zalantzarik izan: "Oihana Kortazar eta Imanol Goñi dira favoritoak, nahiz eta oso maila oneko beste korrikalari batzuk ere izango diren; besteak beste, Iñigo Lariz [Elgoibar] eta Iñaki Uribe-etxebarria eskoriatzarra".

Oihana Kortazar elgetarra ezaguna da ibarrean, eta Imanol Goñik badu Arrasatekin harremanik, 2013ko Santamas krosa irabazi zuen-eta bizkaitarrak. Bada, distantziagatik eta gogortasunagatik -21 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa-, domekako mendi lasterketa ondo egokitzen da euren ezaugarrietara.

Kontrara, ez horrenbeste Iñigo Larizen ezaugarrietara: "Baina Iñigo asko motibatu zen lasterketan sari berezi bat egongo zela aipatu genionean, Joseba Iglesias saria [2010eko martxoan Udalatxen istripuz hil zen gazte arrasatearra]; hau da, lasterketa barruan tarte kronometratu bat jarriko dugu, Udalatxetik -aparkalekutik- Udalatxeraino -Arrasateko gurutzera-, eta, nire ustez, sari hori irabaztera etorriko da", dio Sanmigelek.

## Kronometroaren kontra

Korrikalariak Arrasateko plazan hasiko dituzte lanak, eta Udalara iristean batera anoa-postua izango dute, baina hor ez da sabela betetzea komeniko, bihotzak estutzeko momentua iristear egongo da-eta; antolatzaileek han jarriko dute erlojua martxan: "Joseba Iglesias bera gogoan izango dugu horrela, eta, gainera, sari hori irabazten duenak marka polita ezarriko du, Arrasaten korrikalarien eta mendizaleen ahotan sarritan egoten da-eta Udalatxetik Udalatxera egiten den denbora", dio Sanmigelek. Eta, hain zuzen, horregatik da sari horretarako Iñigo Lariz favorito, elgoibarko kilometro bertikaletan nabarmentzen da-eta.

## 60 lagun lanean

Mondraitz taldeko lagunek kuadrilla polita batuko dute domekan, lasterketan zehar laguntzaile asko beharko dituzte-eta: "Irteeran eta helmugan jendea behar da, eta ibilbidean zehar beste lau anoa-postu egongo dira. Hala,



Martitzenean aurkeztu zuten lasterketa, Ederra tabernan. | MIREIA BIKUÑA

guztira 60 lagun batuko ditugu lasterketa antolatu ahal izateko. Zorionez, jendeak laguntzeko interesa erakutsi du, eta eskerrak eman nahi dizkiegu".

## Lasterketa non jarraitu

Ibilbideak aukera handiak ematen ditu lasterketaz ikusle moduan gozatzeko. Udalatxeko tontorrean giro polita egongo da, eta baita helmugan ere, "baina Udalako auzoak lasterkariak birritan ikusteko aukera emango du". Detailerik galdu gura ez duenak, berriz, astelehenera arte itxaron beharko du, *Harmailatik* saio berezia izango da-eta Udalatxeko lasterketaren gainean (22:00).

## LASTERKETA, DATUTAN

**Irteera ordua:** Domekan, 09:00etan hasiko dute lasterketa, Arrasateko plazatik.

### Helmuga:

Lehenengo sailkatuak bi ordu inguru beharko ditu proba egiteko; horrenbestez, 11:00 aldera iritsiko da lehena helmugara, plazan bertan.

### Parte hartzaileak:

250 lagunek eman dute izena.

### Desnibela:

1.200 metro igoko dituzte.

### Distantzia:

21 kilometroko proba izango da.

ESANAK

"Atleta moduan dituen ezaugarriengatik, Iñigo Lariz da Joseba Iglesias sarirako atleta favoritoa"

"Udala-Udalatx tartean onenak egingo duen denbora erreferentzia polita izango da besteendako"

"Eskerrak babesle eta boluntarioei, lasterketa antolatzeko ezinbestekoak dira"

MARKEL SANMIGEL | ANTOLATZAILEA

DSk nahiago du TOTAL

DOTOREZIA ETA  
TEKNOLOGIA

DS 5 BlueHDi 120 S &amp; S 6v Desire



22.800 €-TIK AURRERA

\*Prezio gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan (zergak, garraioa eta eskaintza barne) eroslearen jabetzakoa den auto bat trukean uzten duten eta DS 60 urteuren produktuarekin Banque PSA Finance bidez 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten profesional liberalek. Eskaintza baliagarria hilabetea amaitu arte stockean dauden autoentzat. Eskaintza ez da bateragarria. Kontsultatu baldintzak eta profesional liberalen taldeak zure kontzesionarioan. Matrikulazioa eta prestaketa ez daude barne. Prezio gomendatua finantzatzen ez duten bezeroentzat Penintsulan eta Balear uharteetan: 23.400 €(kuskagai dagoen modelo: DS 5 Sport.

KONTSUMO MISTOA (L/100) / CO2 EMISIOAK (G/KM): DS 5: 3,37,3 / 85169.



www.driveDS.es

# TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22



Kapitaina, joan den asteko partidua amaituta, taldekidez inguratuta. | GOIENA



1995-1996 denboraldiko talde erretratua, Kobateko kamioiaz. | ARRASATERUGBY.ES

## ERRUGBIA

## Trajez jantzita eta kamioi gainean ospatuko dute ARTko mutilek ligako txapeldunak direla

- ▶ Bihar Gaztediren kontrako partidurako ohitura zahar bat errekuperatuko dute: trajez jantzita joango dira
- ▶ Datorren astean izango dira ospakizunak; babesleari kamioia hartuta ibiliko dira kalean

XABIER URZELAI | ARRASATE

Zelaian tramite hutseko bi partidu geratzen zaizkio ligako txapeldun Arrasate Rugby Taldeari. Joan den astean matematikoki igoera lortuta, zapatuan (16:00) trajez jantzita egingo dute Gasteizerako bidaia: "Azken bospasei urteotan ez dugu Gasteizen jokatu, baina lehenago Gaztediren kontrako partiduetara trajez joaten ginen, eta ohitura hori errekuperatuko dugu. Aspaldikoa da

ohitura hori, seguru norbaiti okurritu zitzaioela, eta ohitura bilakatu zen", dio Xabier Gardoki *Jabo*-k, taldeko kapitainak.

Bihar bertan Gasteizko lagun baten elkartean afalduko dute: "Eta parrandan geratuko gara batzuk, seguru", baina benetako ospakizunak astebetetz itxaron beharko du: "Ligako azken partidua Iruñeko La Unicaren kontra daukagu [apirilak 15]. Hor ere ez dugu ezer jokoan izango,

12:00etan izango da norgehiagoka, eta horren ondoren hasiko dira ospakizunak".

### Kamioi eta guzti

Konfirmatuta dago egun horretarako Kanpanzar Harrobiak enpresakoei kamioia eskatuko dietela -urteetan taldeko babeslea-. Hala, duela bi hamarkada jasotako irudia errekuperatuko da, 1995-1996 denboraldian orduko Kobateko kamioiaz egin zuten-

ta talde argazkia, Garagartzan; denboraldi hasiera zen: "Asmoa liga irabazi izana ondo ospatzea da, baina badu aldarrikapenetik apur bat, herrian errugbi talde bat dagoela erakustea. Hala, zuzendaritzak datorren urterako baloi berriak erostea erabaki du, eta erabilita daudenak herritarren artean banatuko ditugu ospakizun egunean". Bada, kalean bakarrik ez, Mojategin ere zaleen berotasuna eskertuko dute.

**XABIER GARDOKI**  
TALDEKO KAPITAINA

### "Taldeko atea irekita daude beterano eta gazteendako"

Ligako txapeldun geratuta ARTk mailaz igotzeko txartela lortu du.



Datozen hila-beteotan, baina, liga zorrotzago baten jokatzeko gertu dauden erabaki beharko dute.

#### Eta, taldea igoko da?

Aste barruko entrenamenduetan ibili gara horretaz berbetan. Ni baiezkoan nago, jendeak taldean jarraitzen badu aurrera egingo dugula uste dut, baina oraindik ez dugu erabakia hartu, horretarako batzartu egingo gara aurrerago.

#### Liga honetan erraz gailendu zarete.

Bai, kopuruz talde polita izan dugu eta ez gara beste urte batzuetan moduan jende faltan ibili. Partidu asko erraz irabazi ditugu, merezita iritsi gara hona.

#### Taldea indartzea komeniko da.

Igotzen bagara bai, garai bateko jokalaria animatu gura ditut buelta daitezen, eta gazteei esan atea zabalik daudela.

**AZKENEKO ERAIKINA**  
ARRASATE / URIBARRI

FINANTZAKETA:  
  
kutxabank

Baldintza berriak

943 31 68 68

www.sukia.com

2x  
3x



Logelak



Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

 sukia
 GEDI



Mendebaldea taldearen aurkako final-laurdeneko partiduaren irudi bat. | COLEGIAL KOPA

**SAKIBALOIA**

# Colegial Kopako finala jokatu du Arizmendik gaur

Aurtengo txapelketako sorpresa handiena izan da Arrasateko taldea

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE  
Colegial & Bifrutas Kopa saskibaloitxapelketa lehiatzen dabil Arizmendi taldea, eta, sorpresa emanda, bere konferentziako finalera heltzea lortu du. Azken partidu hori Corazonistas taldearen aurka jokatu du gaur, egubakoitza, Gasteizko Marianistas ikastetxean.

Hego Euskal Herrian eta Espainian jokatzeko da Colegial & Bifrutas Kopa, eta konferentziatan banatzen da, zonaldeen eta erkidegoen arabera; bederatzi dira, denetara. Bada, Euskal Herriko finalera ailegatu da Arizmendi eta gaur jakingo da zein den txapelketa.

Emaitza edozein izanda ere, Arizmendik lorpen handia egin da bukatuko du txapelketa, izan

ere, aurtengo estreinatuta da parte-hartzaile gisa; kontuan hartu behar da Colegial Kopa txapelketak bederatzi urteko ibilbidea duela, baina aurretik jokatu zen Series Colegiales txapelketa ospearen oinordekoa dela. Aurretik hartan lehiatu izandakoa da Arizmendi, baina ez txapelketa berria.

Hasierako urduritasuna gaindituta, eta faboritoen artean ez egon arren -lehenengo partiduan izan ezik, ia beste guztietan atetik joan ziren-, finalean sartzea lortu du Arizmendik. Arizmendi Kirol Elkartearen ordezkari Urtzi Amianoren esanetan, horrenbeste, "oso esperientzia polita" bizi izan dute. Berak azpimarratzen du, gainera, jokalaritza Oinxe taldekoak direla.

**100 ikastetxetik gora**

Bi hilabetean jokatu da Colegial & Bifrutas txapelketa. Ikastetxeak dira bertako partaideak -100 baino gehiago lehiatu dira Hego Euskal Herrian eta Espainian-, eta Euskal Herrian 20 partidu baino gehiago jokatu dira gizonezko eta emakumezkoetan. Gaur, egubakoitza, bien finalak jokatu dira. Marianisten kiroldegia izan da Euskal Herriko txapelketako egoitza, eta bertan jokatu dira partiduak.

Gizonezkoetan, Arizmendik Corazonistasen aurka jokatu du, 20:00etan. Aurretik, emakumezkoen finala jokatu dute San Vitorrek eta Ekialdek, 18:00etan. San Vitorreko neskek txapelketa titulua errepikatzen saiatuko dira.

**ASTEBURUKO HITZORDUAK**

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**

- Anaitasuna-Antzuola  
Zapatua. 17:00. Txerloia.
- Aretxabaleta-Hondarribia  
Domeka. 16:30. Ibarra
- Aloña Mendi-Beti Gazte  
Domeka. 16:30. Azkoain.
- Bergara-Elgoibar  
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

- Mondra-Amaikak Bat  
Zapatua. 16:30. Mojategi.
- Lagun Onak-Aretxabaleta B  
Zapatua. 12:00. Garmendipe.

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**

- Amara Berri-Bergara  
Domeka. Martutene.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**

- Arizmendi  
Atsedena.

**OHOREZKO GAZTEAK**

- Aretxabaleta-Eibar  
Zapatua. 17:45. Ibarra.
- Amaikak Bat-Mondra  
Zapatua. 16:30. Errotazar.
- Urola-Aloña Mendi  
Domeka. 13:00. Argixoa.
- Bergara-Burumendi  
Domeka. 17:30. Ipintza.

**GAZTEEN 1. MAILA, IGOERA**

- Antzuola-Mariño

- Domeka. 16:30. Eztala.

**GAZTEEN 1. MAILA, KOPA**

- Aloña Mendi-Aretxabaleta  
Domeka. 12:00. Azkoain.
- Urki-Bergara  
Zapatua. 15:30. Unbe.
- Soraluze-Mondra  
Zapatua. 12:30. Ezozia.

**OHOREZKO KADETEAK**

- Aloña Mendi-Bergara  
Zapatua. 10:30. Azkoain.
- Arrasate-Amaikak Bat  
Zapatua. 11:15. Mojategi.

**EMAKUMEEN ERREGIONALA**

- Mondra-Eibar  
Zapatua. 16:00. Mojategi.
- Arizmendi-Intxaurdi  
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**EMAKUMEEN ERREG. KOPA**

- Bergara  
Atsedena.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**

- Mallabia-Eskoriatza  
Zapatua. 17:15. Zaldibarko Udal Kiroldegia.

**LEHEN MAILA**

- Aretxabaleta-Barrantol

- Zapatua. 17:30. Ibarra kiroldegia.

**BIGARREN MAILA**

- Mondrate-Egintza  
Zapatua. 17:15. Musakola.

**SENIOR NESKAK**

- Anoeta-Eskoriatza  
Zapatua. Abraham Olano kiroldegia. Ordua, zehazteko.

**SASKIBALOIA**

**EBA LIGA**

- La Gallofa Cantbasket-Mondragon Unibertsitatea  
Domeka. 12:15. Santanderko Palacio de los Deportes.

**EUSKAL LIGA, 2. MAILA**

- Natra Oñati-Hotel Gran Bilbao  
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO 2. MAILA**

- Mondragon Unib. -Diarzungo Saskilagunak  
Egubakoitza. 20:00. Musakola.
- Cafes Aitona-Soraluze Bergara  
Domeka. 12:00. Bidebieta.

**ESKUBALOIA**

**ESTATUKO 1. MAILA**

- Ford Mugarri-Tolosa  
Zapatua. 18:30. Iturripe.

**EUSKAL LIGA, SENIORRAK**

- Siglo XX-Bergara



Ford Mugarrik Tolosa taldea hartuko du bihar, zapatua. | GOIENA

**FUTBOLA**

## Bergarak, UDAK eta Aloñak etxean jokatu dute eta Antzuolak, Azkoitian

Bergarak eta Antzuolak Ohorezko Erregional Mailan mantentzeko beste final bat gehiago izango dute aste bukaeran: bergarrek (23 puntu) etxean jokatu dute Elgoibarren kontra eta antzuolarrak (19 puntu) Azkoitira joango dira. Biek ala biek beharrezkoak dituzte hiru puntuak jaitziera postuetatik ihes egin ahal izateko. Aloña Mendiren puntu beharra horren larria ez izan arren, maila ziurtatzeko hainbat behar dituzte oñatiarrek, eta domekan aukera izango dute etxean, Beti Gazteren kontra. Azkenik, UDAK Hondarribiaren bisita jasoko du Ibarren. Bigarren lekuarengatik borrokan jarraitzen du Gorka Valleren taldeak.

**SASKIBALOIA**

## Bost partidu jarraian galdu ostean, garaipena behar du MUK

Tolosaren kontra jipoi ederra jaso ostean (55-74), bolada txarra bukatu gura du Mondragon Unibertsitateak Kantabrian (domeka, 12:15). "Bost partidu jarraian galdu ditugu, eta bolada txarra bukatzeko ordua dela uste dugu. Dena den, Gallofaren kontra lehia oso gogorra izango da eta irabazteko oso zaila", esan du Mikel Arexolaleiba jokalaria. Kantrabriako taldeak AEBetako jokalaritza fitxatu berri du. "Animo aldeetik motel samar gaude, baina entrenamendu saio onak egin ditugu aste honetan. Astero lana erakutsi behar dugu kantxan", dio.

**ESKUBALOIA**

## Hirugarren lekua erabakitzeko partidu Ford Mugarrirendako

Lehen Nazional Mailako eskubaloitza bukatzeko hiru partidu geratzen dira, eta bihar, zapatua, Ford Mugarrik eta Tolosak jokatu dutena erabakigarria izango da hirugarren lekua zehazteko (Iturripe, 18:30). "Asko dugu jokoan. Hirugarren geratu gura badugu, irabazi egin behar dugu, eta zaila izango da. Joaneke lehian gol bakar bategatik irabazi genuen", esan du Pablo Gartzia entrenatzaileak. "Tolosak talde indartsua dauka. Iaz Asobal ligan jokatu zuten bost jokalaritza dituzte, eta gogor borrokatu beharko dugu. Zaleen babesa inportantea izango da", azpimarratu du.

**KORRIKA**

## Berdintxiketan lasterketa maiatzaren 15ean Oñatin

Maiatzaren 15ean jokatu da Berdintxiketan lasterketa, MUren Enpresagintza fakultatearen eskutik. 19:30ean hasiko da bikote mistoendako proba, fakultatearen sarreratik. Bakarka ere egin daiteke korrika. Bost kilometroko ibilbidea egin beharko dute Oñatiko erdigunean. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Inskripzioa egin beharko da Laboral Kutxako 30350005300050037797 kontuan, aldeztetik edo proba hasi aurretik. Berdintxiketan lasterketaren helburu nagusia emakumeak kirol jardueretara hurbiltzea da.

**GIMNASIA**

## Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa Bergaran bihar

Amateur eta eskolarteko A mailako gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Labegarieta kiroldegian. Ehunka gimnasta elkartuko dira; tartean, Bergarako Arzinoa elkarteak eta Arrasateko Dragoi taldeak. Goizean alebin, infantil eta gazte mailetako gimnastak lehiatuko dira. Arratsaldean, ostera, kadeteen txanda izango da. Bietan, banakako eta taldekako koreografiak egingo dituzte. Bergarako txapelketa Gipuzkoako txapelketako bigarren fasea izango da. Finala maiatzaren 15ean jokatu dute.

# Irudiak, askotariko modutan aurkeztuta

Oñatiko Ilunpetan taldeak antolatuta, ARG! Argazki Festibalak kale eta aretoak hartuko ditu, bigarrenaz

MIREN ARREGI | OÑATI

Martxan da Oñatiko Ilunpetan argazki taldeak antolatzen duen ARG! Argazki Festibalaren bigarren edizioa. Apirilaren 12an ekin zion jaialdiak ibilbideari eta maiatzaren 3ra bitartean askotariko ekintzak egongo dira, guztiak ere, nola ez, argazkigintzarekin lotuta. Ohiko formatuez gain, askotariko espazio eta formatuak eskainiz dator aurtengoa; izan ere, erakusketa, tailer, bideo proiektzio eta hitzaldiez gain, *BookJockey* saio bat -DJ saio baten antzekoa baina liburuarekin- eta estenopeika erraldoi bat egingo dituzte herritarren gozamenerako.

## Erakusketak, ardatz

Dagoeneko egin ditu lehen urratsak festibalak eta horren erakusle da, adibidez, apirilaren 12a ezker Arantzazun ikusgai dagoen Gema Arrugaeta argazkilararen erakusketa. Formatu handiko 25 argazkiz osatutako erakusketan, "transhumantziaren erlazioa eta naturarekiko bategitea" lantzen dira, argien eta koloreen joko estetiko baten baitan. Maiatzaren 3ra arte egongo da hura ikusteko aukera.

Gaur irekiko ditu ateak, bestetik, Miren Pastorren *Bidean* erakusketak. Gaztaroan pairatzen diren aldaketa prozesuak eta horien islak aztertzen ditu Pastorren proiektuak. Hori ere maiatzaren 3ra arte egongo da ikusgai, gaztetxean.

Era berean, Txanda merkatarien elkarteko komertzioetako erakuslehoetan, *Argizaiola 2013* delako erakusketa ipini du Ilunpetan taldeak. Erakusketa ibil-



Hysteron erakusketa, kultur etxean ikusgai. | ITZIAR BASTARRIKA

ri horretan, lehiaketa entzutetsu horretara aurkeztutako lanak daude ikusgai.

Nagore Legarretak, bestetik, kultur etxean ipiniko du ikusgai *Hysteron* erakusketaren barruan antzinako teknika primitiboak erabilia sortu duen proiektua. Argazkietan, emakume gorputz zatikatuak irudikatzen dira.

## Argazki zaharrak eta berriak

Oñatiko argazki zaharrez eta toki horien gaur egungo argazkiez osatutako erakusketa ere egongo da ikusgai, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko klastroan. Oñatiko Udal Artxiiboak utzitakoak dira zaharrak; berriak, Ilunpetan taldeko kideek egindakoak.

## Tailerrak, asteburuetan

Argazkigintza estenopeikoaren gaineko tailerra egingo da bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Nagore Legarreta Hernaniko argazkilararen eskutik, gaztelekuan. Argazki kamera estenopeikoa edozein ontzi erabilia eraiki daitekeen eta teknika oso oinarrikoa erabiltzen duen argazki kamera bat da.

Ez da hori ARG! Argazki Festibalaren barruan egingo den tailer bakarra; izan ere, datorren asteburuan, apirilak 25 eta 26, ETEOko eraikinean, Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziadun eta fotokazetaritzan aditu Lurdes Basoli kataluniarrak *Begirada dokumentala* delako ikastaroa eskainiko du. Norbanakoaren lanean sakondu gura duten eta euren argazkiei nortasun kutsu bat eman gura dieten argazkilarik, erreportari eta dokumentalistentzat da. Tailerlean izena emateko aukera zabalik dago hilaren 23ra arte, [ilunpetan@gmail.com](mailto:ilunpetan@gmail.com) helbidean edo 605 75 39 66 telefonoan.

## Argazkiak oinarri, bideo eta hitzaldiak

Argazki lanekin osatutako bideo proiektzioa eskainiko dute festibalaren barruan gaur, egubakoitza, 19:30ean, Antixena gaztetxean. Bilboko Argazkilaritza Garaikideko Zentroko ikasleen eta Madrilgo BlankPaper eskolako ikasleen argazki lanak ezagutu ahal izango dira emanaldi horretan. Bi proiektzio eskainiko dira, eskola bakoitzeko bana.

Apirilaren 23an, bestetik, Erik Poppe zuzendari norvegiarraren *Mil veces buenas noches* filma eskainiko dute, kultur etxeko zine aretoan. Zineklubaren barruan izango da, 20:00etan.

Apirilaren 24rako, egubakoitza, hitzaldi-proiektzioa antolatu du Ilunpetan taldeak. Bertan, 2014ko udan zortzi emakume argazkilarik Danubio zeharkatuz egindako bidaia kontatuko dute. Lurdes Basolik, argazkilarietako batek, lehen pertsona kontatuko ditu esperientzia horretan bizitakoak. 19:30ean izango da, kultur etxean.

## Estenopeika erraldoia eta 'BookJockey'

Ekintza bereziak ere antolatu ditu Ilunpetan taldeak bi urtean behin antolatzen duten jaialdiaren barruan, eta horietako bat da etzi, domeka, 12:00etatik 14:00etara Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dena. Herritarrei argazki kamera baten barruan zer gertatzen den erakusteko asmoz, osoko bilkuren aretoan kamera erraldoi bihurtuko dute. Argazkigintza teknika guztien oinarrietara itzuliz, eta kamera erraldoi horren barruan sarturik, argazki bat egiteko zer behar den ikusiko dute herritarrek.

Bestetik, datorren egubakoitzean, apirilak 24, 22:00etan, plazako kioskoan, *BookJockey* saio bat izango da Miren Pastorren eskutik. *BookJockey* saioa DJ saio baten antzekoa da, baina musikaren ordez argazki liburuak dira protagonista. Liburuak erakusten joan ahala, beste istorio bat sortzen da, ikuslea liburuak sentitzera eta saioarekin gozatzera gonbidatuta. Argazki liburuak ezagutu eta horiekin gozatzeko formatu esperimental horren ondoren, Miren Pastorrek bere lehenengo argitalpen proiektuaren bigarren alea aurkeztuko du: *Bidean II*.

# BERRIZ

## ENPRESA TOLOSAN

hartu erreleboa

Pertsona ekintzailea zara eta Tolosan martxan dagoen negozio bat hartu nahi duzu?

Tolosako merkataritza eta ostalaritzaren jarraipena bermatzeko, Tolosako Udalak laguntza ekonomikoak emango ditu: 6 hilabete arteko lan-kontratazioa ordaintzeko, bideragarritasun plana gauzatzeko, lokala alokatu/erosteko eta 10.000€ arte moldaketetarako.

Informazio gehiago eta parte hartzeko [merkataritza@tolosa.eus](mailto:merkataritza@tolosa.eus) | 943697454  
[www.berrizenpresa.com](http://www.berrizenpresa.com)





Udal ordezkariak, Goikobaluko, Txorbelako eta Arrasate Musikaleko kideekin martitzeneko aurkezpenean. | MIREIA BIKUÑA

# Herriko musikariak protagonista aurtengo Udaberri Musikaldian

- Txorbela, Goikobalu eta Arrasate Musikaleko orkestra izango dira
- Kulturaten, parrokan eta San Frantziskon dira doako bost kontzertuak

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE  
Gaur hasita, askotariko musika estiloekin gozatzeko aukera izango da Udalak antolatutako hamai-kagarren Udaberri Musikaldian. Bi asteburutan banatuta, doako bost kontzertu eskainiko dituzte, Kulturaten, San Juan Batailatzailea parrokan eta San Fran-

tzisko elizan; horiek guztiak, 20:00etan.

**Herriko musikariak ere bai**  
Kanpotik etorriko diren musikariez gainera, herriko ordezkariak ere izango da, Txorbela otxotearren, Arrasate Musikalen eta Goikobaluren eskutik. "Beste

talde batzuekin truke kontzertuak egitea gustuko dugu; aspaldiko lagunak ditugun Iruñeko Ahots Baxuen Abesbatzakoek bihar parrokan kantatuko dute eta maiatzaren joango gara gu euren etxera. Talde bakoitzak bere emanaldia egingo du", dio Txorbelako Mikel Balantzategik.

## Debagoieneko Helduen Dantzari Eguna egingo dute bihar, zapatua, Antzuolan

**A. A.** | ANTZUOLA  
Bailarako dantzari gazteek eta helduek elkar ezagutzeko helburua duen urteroko hitzorduan, Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostitz eta Oñatiko Oñatz taldeetako kideak batuko dituzte aurtun anfitrioiak diren Oinarin taldeko Jon Lizartzuk.

Torresoroan afalduko dute gero 150 lagunek; dantzariak eta taldeko musikariek, bada. Afalosterako, La Jodedera eta Batek Daki taldeen kontzertua antolatu dute gaztetxean.

plazan bi ordu inguruko dantza saioa; eguraldi txarra egingez gero, berriz, eskolako patioan. "Dantza gehienak talde guztiek elkarrekin egingo ditugu, eta ondoren, talde bakoitzak dantza bana egingo du", azaldu du Oinarin taldeko Jon Lizartzuk.

Torresoroan afalduko dute gero 150 lagunek; dantzariak eta taldeko musikariek, bada. Afalosterako, La Jodedera eta Batek Daki taldeen kontzertua antolatu dute gaztetxean.

## Governors taldeak urtarrilean Bilboko Santana27 aretoan grabatu zuen zuzeneko CD/DVDa kalean da

*Su garaian* du izena arrasatearren bosgarren lanak; atzo, eguna, Bilboko Kafe Antzokian komunikabideen aurrean erakutsi zuten. Zaleen aurrean, berriz, gaur, egubakoitza, Ondarroan eta bihar, zapatua, Otxandion egingo dituzten zuzenekoetan aurkeztuko dute. Arrasateko taldearen musika ibilbidearen laburpena jasotzen duen lan bikoitza da; musika adituen esanetan, laburpen artistikoa, zorroztasun handiko agerraldia eta ikuskizun aparta da *Su garaian*.

## Hesian taldeak kontzertua eskainiko du gaztelekuan

'Hegalak astinduz' diskoa aurkeztuko dute gaur Oñatin eta maiatzaren 22an, berriz, Bergaran

**A. A.** | OÑATI  
Gaztelekuko erabiltzaileekin egingo batzarrean jaso zuten hezitzaileek Hesian taldea Oñatira ekartzeko proposamena. Kasu eginga, musikariek harreman-

netan jarri eta gaur, egubakoitza, 22:30ean egingo dute nafarreko kontzertua. Sarrerak aurrez sei eurotan eskura daitezke, gaztelekuan, 20:00ak bitartean, eta leihatilan, bestela, zortzi eurotan.



Hesian taldeko kideak. | HESIAN

**ESANAK**  
**"Askotariko doinu eta formazioei egin diegu lekua"**

KARMELO ALBERDI | TEKNIKARIA

**"Musikaldikoa kontzerturik garrantzitsuena da guretzako"**

MARTA IZAGIRRE | A. M.

Goikobalu abesbatzak eta Arrasate Musikaleko orkestrak, berriz, apirilaren 24an San Frantzisko elizan egingo dute elkarrekin emanaldia: "Belaunaldi askotariko musikariak batzen dituen orkestra da gurea, ikasleek eta irakasleek parte hartzen dutena. Goikobalurekin egingo dugun emanaldia, orkestrarentzako, urteko kontzerturik garrantzitsuenetakoa izaten da. Handia da guretzako eskolako lana herri-tarrek partekatzea, eta are politagoa herriko bi taldek elkarlanean egindakoa bada", azaldu du Marta Izagirrek, Arrasate Musikaleko zuzendariak, eta zera gaineratu du: "Kontzertuak bi zati izango ditu: instrumentalak has-teko, eta ahotsekin lagunduta izango da bigarrena".

### Asteburuko protagonistak

Proposamen ezohiko batekin ekingo diote gaur zikloari, IKKO perkusio taldea izango da eta Kulturateko areto nagusian, 20:00etan. Estilo eta instrumentazio aberas-teko taldea da; xafrazko tresnak, larruzkoak, egurrezkoak eta bes-telako baliabide elektroakustikoak erabiliz, perkusio garaikideko hainbat alderdi ekarriko ditu Arrasatera, tradizionalak zein minimalistak.

Bihar, zapatua, gizezkoen ahotsekin abestutako askotariko estilo eta egileen kantuak entzuteko aukera izango da San Juan Batailatzailea parrokan, Arrasateko Txorbelaren eta Iruñeko Ahots Baxuen Abesbatzaren eskutik. Hamarna kantuko emanaldia egingo dute.

Zikloaren lehenengo asteburua borobiltzeko, baina, denboran atzera egiteko proposamena egin dute antolatzaileek domekarako. Enrike Soilinis bilbotarrak sortu eta gidatutako Euskal Barroken-semble taldearen doinuek hartu-

ko dute parrokan lekukoa. Barroko garaiko euskal konpositoreen obrekin osatutako emanaldi instrumentalean, askotariko autoreen lanak –Joanes Antxietarenak eta Francisco de Salinasenak, horien artean– eta kantu herrikoiak bilduko dituzte.

### Datorren astean beste bi

Herriko musikariren zapatuko emanaldiak zabalduko du Musikaldia bigarren asteburua; eta ganbera musika lantzen duen Zura laukotearekin amaituko da apirilaren 25ean, domeka, aurtengo egitaraua. Euskal Herriko zein atzerriko eskoletan ikasita-ko eskarmentuko musikari euskaldunek osatzen duten laukotea da Zura; gaur egun, musika eskoletako irakasleak dira guztiak. Hari-tresnen doinuekin, Jesus Guridi, Eduard Toldra eta Philip Glass autoreen lanak interpretatuko dituzte Kulturateko areto nagusian.

### 'Hegalak astinduz' lanarekin

Musika indartsua eta bizia, bes-teak beste, haize-tresnekin, nes-ken eta mutilen ahotsekin osatutako pop-rock eta punk-rock melodiko estilokoa da Hesianek Oñatira ekarriko duena.

2006ko udaberrian Etxarri Aranatzan jaio zen taldeak 400 kontzertu baino gehiago eskaini ditu Euskal Herrian zein atzerri-ri. Estudioko bost disko argitaratu dituzte; *Maite dugu* (2007); *Herriaren Oihua* (2008); *Borrokatu eta irabazi*, (2010); *Hitzetik* (2011); eta iaz urrian kaleratu zuten *Hegalak Astinduz*. Azke-neko lanean oinarritutako kontzertua egingo dute, kantu zahar-rragoi ere lekua eginda. Horrez gainera, *Hemen eta orain* zuzeneko CD/DVDa ere badute, 2013an grabatutakoa.

### Zortzi musikari taularen gainean

Dantza girorik ez da falta izaten askotariko musikariek betetako oholtzaren gainean. Franen eta Zuriñeren ahotsei laguntzen izango dira: Eneko (trorpeta); Aitor (tronboia); Iker (gitarra); Aritz (bateria); Xabi (baxua); eta Igotxo (saxoa).

# Euskara oinarri duten hiru hitzaldi antolatu ditu Arrasateko Zuztarrak Errotuz taldeak

Bosgarren urtez antolatu dute historia zikloa, oroimen historikoa berreskuratzeko asmoz

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Arrasateko Zuztarrak Errotuz taldeak bosgarren aldiz antolatu du historiako hitzaldi zikloa: "Gure historian sakontzeko eta herriko kultur ondarea beste belaunaldiei transmisioa lantzeko helburuz". Xabier Zubizarreta da taldeko kide bat, eta, haren hitzetan, "Euskal Herriaren historiaren interpretazio propioa egitea" da euren helburua.

Aurten hiru hitzaldi antolatu dituzte, hirurak euskarari lotutakoak: Juan Martin Elexpuruk euskaren jatorriarekin lotura duen Iruña-Veleia auziari buruz berba egingo du eguaztanean; hilaren 29an, berriz, *Euskara eta Nafarroako estatua* izeneko hitzaldia egingo du Aitzol Altunak; eta maiatzaren 6an, *Eneko Aresta* hitzaldia egingo du Enerko Urta-sunek.

Hitzaldi guztiak 19:00etan izango dira Kulturateko areto nagusian eta herritar guztiei zuzenduta egongo dira. "Zabalkundea ere bada gure helburua, eta herritarrok ulertzeko moduko hitzaldiak dira", dio Zubizarretak.

JUAN MARTIN ELEXPURU | IDAZLEA

## "Ez da komeni argitzea eta gaiaren inguruan dagoen isiltasuna larria da"

*Iruña-Veleia. Zer gertatzen da?* izenburua duen hitzaldiak emango dio hasiera aurtengo zikloari. Juan Martin Elexpuru izango da hizlaria eta eguaztanean, hilak 22, izango da hitzaldia Kulturaten, 19:00etan.

**Horixe da galdera, zer gertatzen da Iruña-Veleian?**

2004tik 2006ra bitartean grafito batzuk aurkitu zituzten non euskal hitzak agertzen diren. Aurkezpena egin eta gutxira faltsuak zirela esan zuten. 2008an Arabako Aldundiak izendatutako batzordeak arrazoi horiek ontzat eman zituen eta orduko arkeologo taldea aztarnategitik bota eta itxi egin zuten. Harrezkero sei bat urte pasa dira eta auzia instrukzio fasean dago. Bitartean, bederatzia herrialdeko adituek hogeitxosten egin dituzte grafitoak benetakoak izan daitezkeela esanaz.


**Zortzi urtean, baina, ez da ezer argitu. Zergatik?**

Ez delako komeni. Faltsuak zirela esatean hanka leporaino sartu zuten eta horri buelta ematea oso gogorra litzateke askorendako, bai politikariendako, bai unibertsitateko katedradun askorendako ere.

**Euskararen jatorriari lotuta, zer erakusten dute grafito horiek?**

Egunerokoa erabiltzen diren hitzak eta esaldiak agertzen dira, adibidez: *arraina harrapa, jan da lo, aita, ama...* Ehun bat izen arrunt agertu dira eta beste hainbat izen propio, latindarrak eta judu-kristauak. Honek erakusten du garai hartan bazegoela alfabetatzeko gogoia eta idazteko borondatea. Garai hartan latinez baino ez zen idazten Europako sartaldean.

**Nola demostra daiteke grafitoak egiazkoak direla?**



GOIENA

Oso erraza da. Grafitoekin batera idatzita dauden 25 bat hezur ere aurkitu dira. Hezur horietako bati karbono-14 proba eginez gero, berehala jakingo genuke noizkoak diren eta horrek grafitoen adina jakiten lagunduko liguken.

**Noiz argituko da auzia?**

Argituko den esperantza badut, baina noiz, auskalo. Gai honen inguruan dagoen isiltasuna ere larria da. Bitartean, aztarnategia zabalik dago. Aldundiak unibertsitateari eman zion kudeaketa eta Julio Minguez izendatu zuen zuzendari. Eliseo Gil aztarnategitik botatzeko bitxosten sinatu zituen Minguezek.

Indusketa makinak sartu zituen eta 8.000 metro karratu aztertu zituen. Salaketa jarri genuen, baina ez digu kasu handirik egin. Bost kanpaina egin ditu, ganora txikiarekin, eta, egia esan, ez dakigu orain arte zer lan egin duen edo zer aurkikuntza egin dituen, prentsan gutxi idatzi da eta horri buruz.

**Zergatik diozu gaiari buruz gutxi hitz egiten dela?**

Horrela delako. Batetik, hanka sartu zutenak abertzaleak ziren. Arabako Aldundian EAJ, EA eta Aralar zeuden gobernuan erabakia hartu zuten. Kultura diputatua Lorea Lopez de Lacalle zen eta orain EH Bildun dago. Bestetik, indar espainiarrei ez zaie interesatzen euskaldunei hauspoa ematea; beraz, arku politiko guztia harrapatuta dago gai honetan, eta hori da oztopo handiena. Bestetik, lotsagarria da arkeologoen isiltasuna. Badakite auzi hau konpontzea erraza dela, baina, ofizialtasunaren kontra joatea eta diru laguntzak jokoan egonda, zaila da berba egitea. Egoera *kafkianoa* da.

## 265 ikasle kantuan eskolarteko abesbatzen 27. topaketan

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI  
IKASTOLA | DEBAGOIENA

Bihar, zapatua, egingo da aurtengo eskolarteko abesbatzen topaketa, Amaia antzokian. Aurtengo gaia *Rock-and-rola euskaraz* izango da, eta zazpi taldek hartuko dute parte.

Arizmendi Ikastolako ikasleek gainera, Oñatitik ere hiru talde etorriko dira: Txantxiku Ikastolatik, Urgain herri eskolatik eta Elkar Hezi ikastetxetik, hain zuzen ere. Gure ikastolatik, berriz, Olarte gunekoak, Gazteluondokoak, Santa Teresa-koak eta Almen eta Gaztelupe gunetako DBHko taldeak izango dira bihar Arrasateko antzokian.

**Sarrerak 3 eurotan**

Talde bakoitzak bina abesti kantatuko ditu; hauek aukeratu dituzte, besteak beste: *Erdu gugana, Euskaraz blai, Repe rockeroa, Txoriak txori, Rock around the clock, Let's get together, Ongi etorri, Alferraren astea, Esperantzara kondenatua, Amets bat, Nik zu behar zaitut eta Bizipoza*. Amaitzeko, talde guztiek elkarrekin *Guk euskaraz, zuk zergatik ez?* abestuta borobilduko dute emanaldia.

Ekitaldia 17:00etan izango da eta sarrerak hiru eurotan eskura daitezke leihatilari. Ikastolak topaketa antolatuzeko laguntzaile izan ditu Arrasateko Udala eta Kutxabank.



Orain bi urte egin zuten eskolarteko abesbatzen topaketa. | ARIZMENDI IKASTOLA

## Eskoriatza plato erraldoi bihurtuko du bihar Einginke taldearen Ti-Tau! film lehiaketak

Izena emateko eta informazioa eskuratzeko 'Einginke.org' atarian

A. ARANBURUZABALA | ESKORIAITZA

Einginke gazte taldeak umorezko film laburren bosgarren Ti-Tau! rallya egingo du bihar, zapatua.

Goizeko bederatzietan Zaldibar antzokian elkartuko dira parte-hartzaileak; han, gaia, oinarriak eta film laburrean erabiliko beharreko objektua jasoko dituzte, eta ondoren, 19:00ak bitartean izango dute lanak entregatzeko epea. Epaimahaiak irabazleak aukeratu bitartean, lehiakideentzako luntxa egongo da, 20:00etan, Hotelean. 22:00etan lan guztiak erakutsi ondoren, 22:30ean banatuko dituzte Zaldibarren sariak. Gaueko ekitaldia herritar guztiendako da.

**Euskaraz eta umorez**

Antolatzaileak gustura dira orain arteko harrerarekin: "Oraingoz, sei talde ditugu: herriko bi, Arrasateko bat eta Oñatitik hiru talde etorriko dira. 40 bat lagun etorriko direla badakigu, beraz. Hala ere, gaur gauerdia bitartean dago izena emateko aukera, *Einginke.org* atarian, bertan dago bete beharreko inprimakia eta beharrezko informazioa", azaldu du Miriam Isasmendik.

Aurreko edizioetan moduan, taldeka zein banaka aurkez daiteke, eta euskaraz egindako umorezko lanak izan behar dute; beste hizkuntzaren bat erabiliz gero, azpigituluak erabiltzeko derrigorrezko baldintzarekin.

Erabili beharreko tresneria dagokionez, kamera edo grabatzekeo bestelako euskarriak eta ordenagailua erotea lehiakideen ardura da eta antolatzaileek, berriz, Ibarraundi museoa jarriko dituzte muntaketa lanetarako beharrezko direnak.

**Gaur, film labur erakustaldia**

Biharko lehiaketarako motorrak berotzeko, aurreko Ti-Tau! lehiaketako film laburrik eta beste hainbat euskal ekoizpen erakutsiko dituzte gaur, egubakoitza, Zaldibar antzokian, 22:00etan. "Bosgarrena izanik, zerbait berezia egin gura genuen. Martitzenean, Kepa Errastiren *Aitona Mantangorria* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* lanak erakutsi genituen. Jende askorik hurbildu ez bazen ere, bildutakoak gustura izan ginen".



Gose taldeari esker

'Gosariak' kontzerturako

sarrerak ditugu.

Gaztetxea, Arrasate  
Apirilaren 25ean, 22:00etan

**PARTE HARTZEKO: APIRILAREN 22 BAINO LEHENAGO**

SMS: KLUBA [gosariak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA gosariak [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatutako baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburua bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.  
Eskubidea izango duzu dituzten sarrerak, hilek auzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

goienakluba



Oihana Aldai kirolari gaztea, Aretxabaletako parrokia atzean duela.

Oihana Aldai | Futboleko atezaina

## "Conquis'-etik bueltan hiru hilabete egin nituen errehabilitazioan, eta poliki-poliki oneratu naiz"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aurpegi ezaguna da Oihana Aldai (Aretxabaleta, 1992), eta ez herrian bakarrik; izan ere, ETBko *El Conquistador del fin del mundo* saioak egin du ezagun. Añorgako futbol taldeko atezaina da, baita entrenatzailea ere, eta erizain ikasketak egiten dabil.

**Azken hilabeteotan famatu egin zara. Jendeak ezagutzen zaitu?**

Bai, saioa jende askok ikusten du-eta... Kanean bakarrik ez, sare sozialen bitartez ere jende asko hurreratu zait eta babes mezu asko jaso ditut.

**Egiteko gai zarena erakutsi barik alde egin behar izan zenuen ETBko lehiaketatik...**

Pena galantarekin! Min hartu nuelako utzi behar izan nuen eta horrek baino pena handiagoa eman zidan saioa utzi beharrak. Ondo lehiatzeko gai ikusten nuen nire burua, ahal nuen guztia ematera joan nintzen-eta. Baina... **Zer izan da politena?**

Jendea ezagutu izana. Eta bes-tetik, kontu txikiak gehiago baloratzen ditudala orain: jatekoa, erosotasunak... Uste dut pertsona batek esaten duena baino gehiago ikusteko gai naizela orain, begiradari, keinuei erreparatuta.

**Eta zer izan da gogorrena?**

Lehenengo egunetan jatekorik ez izatea; lau egun eta erdi egon ginen ezer jan barik, eta gero sardina bat izan genuen bi egunerako. Baina ondoren ohitu egin nintzen, eta antxo bat eman zigutenean biren artean jateko gordetzea erabaki genuen. Hala ere, gogorrena buruak egiten duen lana da. Denbora luzea pasatzen genuen egitekorik gabe eta buelta asko ematen zaizkio buruari.

**Bizitako esperientzia honetan zerekin geratuko zinateke?**

Munduaren beste aldean dagoen lurralde bateraino joan izanarekin eta jendea ezagutu izanarekin. Esperientzia polita da, kirola

gustuko izanez gero eta sufritzeko gaitasuna izanez gero. Pentsa, berriro joango nintzateke...

**Lehiaketaren jarraitzaile sutsu zinen aurretik ere, ezta?**

Orain dela lau urte inguru zaletu nintzen eta aurreko edizioa ere aurkeztu nintzen. Orduan ez ninduten hautatu, baina oraingoan bai.

**Sare sozialetan asko ibiltzen zara.**

Bai, baina ez orain, lehen ere bai. Orain, beharbada, jarraitzaile gehiago ditut eta horiekin harremana izaten saiatzen naiz. Twitter bidez, esaterako, babes mezu mordoa jaso nituen lehiaketatik kanporatutakoan.

**Intimitatea galtzeak ez dizu beldurrik ematen?**

Interneten zerbait sartuz gero, intimitatea galdu duzu. Facebooken, esaterako, lagunak eta ezagunak bakarrik dauzkat.

**Añorga futbol taldeko atezaina zara, baina lan handia eginda iritsi zara bertara.**

Kurtzebarri eskolan hasi nintzen eta gero Arizmendin hiru urte egin nituen. Ondoren Mondrara joan nintzen eta Eibartik deitu zidaten; urte eta erdi egin nuen han eta Mondrara itzuli nintzen gero. Eta azken bi denboraldietan Añorgan nabil.

**Aurten min hartuta egon zara...**

Bai, *Conquis*-etik bueltan hiru hilabete egin nituen errehabilitazioan. Kolpea hankan hartu nuen, baina kolpearekin bizkar osoa mugitu zitzaidan eta arazo handiak izan ditut. Poliki-poliki oneratu naiz, baina ondo kostata.

**Partiduak jokatzeko bazabiltza, ezta?**

Bai, bai. Lau hilabete eta hamar egun egin nituen jokatu barik, eta, horren ostean, lehenengo Athleticean aurka izan zen. Akatsak egin nituen, baina gustura geratu nintzen, eta orain ere oso gustura nabil.

**Futbolaz gain, beste kirol batzuk ere gustuko dituzu...**

Bai, oso kirolzalea naiz. Bizikletan ibiltzea dut gustuko Tafyd modulua ikasi nuenetik. Orain, Donostian, gimnasia ere joaten

naiz, baina edozertarako nago gertu: piraguan ibili, surfean egin, frontenisean... Eta snowboarda ere atsegin dut.

**Entrenatzailea ere bazara.**

Bai, kadete mailako neskek entrenatzen ditut, 14 eta 15 urte artekoak. Oso gustura nabil, ikasteko gogo handia dute-eta. Nik beti esaten diet: "Gustuko baduzu zerbait, jarraitu hor eta gozatu horrekin".

**Entrenatzaile famatua dutelako pozik daude?**

Oso pozik. Ez nien esan lehiaketara nindoanik, hilabete batzuetan ez nintzela egongo bakarrik, eta saioa hasi zenean harrিতuta geratu ziren. Neuk baino emozio handiagoarekin jarraitu dute telebista saioa.

**Eta erizain izateko ikasten zabilta. Gustura?**

Bai, aurretik kirolaren gaineko modulua egin nuen, eta hori bukatutakoan hasi nintzen. Hirugarren urtean nago, eta oso gustura. Askok ikasi behar da, baina praktikak ere baditugu lanbidea gertuagotik ezagutzeko, eta oso pozik nabil.

### PERTSONALA

**Telebistako saio bat:** *Conquis*.

**Egin gura duzun kirola:** Triatltoa.

**Kirolari gustukoena:** Claudio Bravo atezaina.

**'Conquis'-eko lagun bat:** Cris eta Killa.

**Bizi izateko leku bat:** Aretxabaleta.

**Bidaia gustukoena:** Patagoniara.

**Musika talde gustukoena:** Berri Txarrak.

**Lana non:** Buruko gaixotasunak dituztenak dauden zentro batean edo kirolarekin zerikusia duen nonbait.

**Jaso duzun mezu bat:** Momentu gogorretan jasotakoak, asko izan dira.







ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Xabier Kortabarria**  
**Otxoa-Aizpurua**  
Apirilaren 6an, 7 urte.  
Zorionak, Xabier! Urte askotarako. 7 urte, ze handi! Ze azkar pasatzen dan denbora! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



**ARRASATE**  
**Ibai Alberdi Segovia**  
Apirilaren 5ean, 6 urte.  
Zorionak, txapeldun! Sei urte egin dituzu. Oso handia zara! Besarkada bat, denon partetik.



**ARRASATE**  
**Irati Arribas Abad**  
Apirilaren 5ean, 4 urte.  
Zorionak, printzesa eta patxo potoloa. Ondo-ondo pasatu zure egunean, etxeko guztien partetik.



**ANTZUOLA**  
**Maddi Alonso**  
Apirilaren 5ean, 5 urte.  
Zorionak, potxola. Muxu handi bat Xabiren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Martin Berezibar Arealo**  
Apirilaren 5ean, 10 urte.  
Zorionak, fenomeno! Jarraitu horrela eta urrun helduko zara!



**BERGARA**  
**Anouk Muruamendiaraz Arealillo**  
Apirilaren 4an, 6 urte.  
Zorionak, polit hori! Urkoren eta etxeko partetik. Disfrutatu zure eguna. Muxuak.



**BERGARA**  
**Ainere Gallastegi Lete**  
Apirilaren 4an, 2 urte.  
Zorionak gure etxeko printzesari! Konturatu orduko bi urtetxo gure neska handiak. Primeran pasatu eta mila muxu, etxeko danen partetik.



**BERGARA**  
**Naia Unamuno Martinez**  
Apirilaren 4an, 7 urte.  
Zorionak, printzesa! Patxo potolo bat denon partetik; bereziki, Marenek.



**ARRASATE**  
**Oihana Ezkurra**  
Apirilaren 4an. Etzaitugu prozesioan atarako, baina zu izango zara tragoa ordainduko diguna. Muxu handi bat Liherren, Zekeren, Itziarren eta Anertxoren partetik.



**ANTZUOLA**  
**Maria Maiztegi Arruti**  
Apirilaren 4an, 3 urte.  
Zorionak, Maria! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



**ARETXABALETA**  
**Anje Herrasti Errarte**  
Apirilaren 4an, 2 urte.  
Zorionak, Anje! Muxu potolo-potolo bat eta besarkada handi bat familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Maddi Blazquez**  
Apirilaren 4an, 8 urte.  
Zorionak, *guapetona*. Azkenian heldu da eguna! Zortzi muxu potolo etxeko guztien partetik eta ondo pasatu zure eguna.



**ARRASATE**  
**Aratz Sanzberro Iria**  
Apirilaren 4an, urtebete.  
Zorionak, pirata! Patxo potolo bat etxeko eta, bereziki, lllagiren partetik!



**ARRASATE**  
**June Urionabarrenetxea eta Maren Etxabe**  
Apirilaren 3an, Junek 6 urte eta Marenek 9. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguna eta baita oporrek ere!



**ARETXABALETA**  
**Nahia De la Torre**  
Apirilaren 3an, 6 urte.  
Zorionak, maitia! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Unax Gonzalez Garcia**  
Apirilaren 3an, 8 urte.  
Zorionak, Unax! Oso ondo ospatu zure eguna, etxeko guztien partetik! Zortzi belarri tirakada eta laztan handi bat!



**BERGARA**  
**June Osa Jimenez**  
Apirilaren 2an, 3 urte.  
Zorionak, June! Besarkada handi bat eta musu asko! Ondo pasatu zure eguna. Aimarren eta Bergarako familiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Lucia Luarizaristi**  
Apirilaren 2an, 2 urte.  
Zorionak, printzesa! Bi urte betetzen dituzu! Oso ondo pasatu urtebetetze egunean eta familia osoarekin ospatu! Ask maite zaittugu!



**ARETXABALETA**  
**Irati Betegi Jausoro**  
Apirilaren 2an, 6 urte.  
Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu pilo bat etxeko danon partetik!



**ARRASATE**  
**Maider Barbero Chaves**  
Apirilaren 2an, 10 urte.  
Zorionak, neska! Ondo pasatu zure egunean eta patxo potoloa familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Illare Zabala Arabalozaga**  
Martxoaren 31n, 2 urte.  
Zorionak, Illare. Ondo pasatu zure urtebetetze eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.



**ARETXABALETA**  
**Intza Atxaga Arrese**  
Martxoaren 31n, 5 urte.  
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Marrubizko muxu pilua. Zure familiaren partetik.



**BERGARA**  
**Aitana Aristegi**  
Martxoaren 31n, 8 urte.  
Zorionak, maitia! Gure printzesa neskato bihurtu da. Segi horren liraina izaten. Biziki maite zaitugu, bihotza. Aroa, Ender, amatxo eta aitatxo.



**BERGARA**  
**Olatz Arregi Eguren**  
Martxoaren 31n, 10 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, Olatz! Ondo pasatu eta ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik!



**ARRASATE**  
**Naroa Balerdi Berezibar**  
Martxoaren 31n, 9 urte.  
Zorionak, maitxi! Jarraitu horrelakoa izaten. Ask maite zaitugu!



**ARRASATE**  
**Uxue Auzmendi Berezibar**  
Martxoaren 30ean, urtebete. Zorionak etxeko pototari! Muxu handi bat etxeko partetik.



**ARETXABALETA**  
**Ariadne Caballero Berrocal**  
Martxoaren 30ean, 9 urte. Zorionak, *prexiaxo*! Oso ondo pasatu zure eguna! Patxo potolo bat familiaren partetik.



**BERGARA**  
**Eider Olabarria**  
Martxoaren 29an, 9 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien izenean. Bereziki, ahizpa Iratiren eta lehengusu-lehengusina Eneko eta Arnairen partetik.



**OÑATI**  
**Ane Ormazabal**  
Martxoaren 29an, 22 urte. Zorionak, Anettu! Ondo pasatu zure eguna eta jueraga on batekin zelebrau! Musuak!



**OÑATI**  
**Danel Guridi Olalde**  
Martxoaren 29an, 4 urte. Zorionak, Danel pirata! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo pila bat etxeko partetik eta txokolatzeko muxu bat Nahiairen partetik.



**BERGARA**  
**Naroa Calles Moreno**  
Martxoaren 28an, 9 urte. Zorionak, maitia! Egun ederra pasa dezazula. Aita pontekoan eta familiaren partetik, zorionak, polit hori!



**ESKORIATZA**  
**Danel Nuño Otamendi**  
Martxoaren 28an, 3 urte. Zorionak, maitia. Hiru belarri tirakada handi, etxeko guztien partetik.



**ARRASATE**  
**Aner Gracia Ezkurra**  
Martxoaren 28an, urtebete. Zorionak, Anertxo! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Jarraitu beti bezain irribarretsu! Etxekuen partetik.



**ARRASATE**  
**Ixone Garitaonandia Uriarte**  
Martxoaren 27an, 11 urte. Zorionak, Ixone! Oso ondo pasatu zure egunian eta oporretan!



**OÑATI**  
**Enara Kortabarria**  
Martxoaren 26an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Etxekoen eta, bereziki, Garaziren eta Haizearen partetik. Patxo handi bat!



**ARETXABALETA**  
**Jokin Bernal Osa**  
Martxoaren 26an, urtebete. Zorionak etxeko guztion eta, bereziki, aitona-amonen partetik. Muxu handi bat!



**ARRASATE**  
**Maddi Vicente**  
Martxoaren 25ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Txokolatzeko muxu pila bat, bereziki, Unairen partetik. Ask maite zaitugu!



**OSINTXU**  
**Oihan Gainza Urtzelai**  
Apirilak 22, 4 urte. Zorionak pirata! Segi horrela, txapeldun! Txokolatzeko patxo handi bat etxeko danon partetik!



**ARRASATE**  
**Lide Azkarate Ojanguren**  
Apirilaren 18an, 9 urte. Zorionak, Lide! Garaziren, amatxoren, aitatxoren eta lehengusu Oihanen eta Hegoiren partetik.

**Urte askotarako!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ASTEA GOIENAN



## Arrasateko osoko bilkura ikusgai gaur

Atzo, eguena, izan zen Arrasaten osoko bilkura, eta osorik eskainiko dute. Besteak beste, Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Duintasuna elkarrekin aurkeztutako mozioa izango da berbeta gai, sendagaien berrordainketa ezabatzea eskatzen duena. **'Osoko bilkura'** Egubakoitza, 22:00



## Alex Sardui 'Galdegazte'-n

Gartibu taldeko abeslari Alex Sardui izango da datorren eguaztean Goiiena telebistako *Galdegazte* saioan. Musikaren alorrean ez ezik, telebistan ere aritzen den Euskal Herriko pertsona ezagun hori elkarrekin dute Bergarako Ipintzako ikasleek. **'Galdegazte'** Eguaztena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

## EGUBAKOITZA, 17

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Galdegazte  
13:00 Sasoi betean  
13:30 Aizank!  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Amaia DJ  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Aizank!  
17:30 Bertso saioa  
17:55 Ur eta lur  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Galdegazte  
19:30 Amaia DJ  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Osoko bilkura: Arrasate  
23:00 Debagoiena zuzenean  
23:30 Berriak  
00:00 Ahotsenea  
00:30 Debagoiena zuzenean  
01:00 Berriak

## ZAPATUA, 18

10:00 Amaia DJ  
10:30 Sasoi betean  
11:00 Debagoiena zuzenean  
12:00 Erremeixuak  
12:30 Galdegazte  
13:00 Onein  
13:30 Ahotsenea  
14:00 Ikusmira  
14:15 Ikusmira  
14:30 Erremeixuak  
15:00 Debagoiena zuzenean  
16:00 Osoko bilkura: Arrasate  
17:00 Ikusi irratia  
17:55 Zorion Agurrak  
18:00 Galdegazte  
18:30 Aniztasunetan bizi  
19:00 Debagoiena zuzenean  
20:00 Erremeixuak  
20:30 Amaia DJ  
21:00 Ahotsenea  
21:30 Galdegazte  
22:00 Debagoiena zuzenean  
23:00 Erremeixuak  
23:30 Ahotsenea  
00:00 Amaia DJ

## DOMEKA, 19

10:00 Debagoiena zuzenean  
11:00 Ahotsenea  
11:30 Amaia DJ  
12:00 Osoko bilkura: Arrasate  
13:00 Galdegazte  
14:00 Debagoiena zuzenean  
15:00 Erremeixuak  
15:30 Zorion Agurrak  
16:00 Bertso saioa  
16:30 Amaia DJ  
17:30 Galdegazte  
18:00 Bertso saioa  
19:00 Erremeixuak  
19:30 Ikusi irratia  
20:30 Bertso saioa  
23:45 Galdegazte  
00:00 Ahotsenea  
00:15 Amaia DJ  
00:45 Debagoiena zuzenean  
01:45 Ahotsenea  
02:15 Erremeixuak  
02:45 Galdegazte

## ASTELEHENA, 20

12:00 Debagoiena zuzenean  
13:00 Onein  
13:30 Zorion Agurrak  
13:30 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Ahotsenea  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Ikusmira  
17:15 Bertso saioa  
17:45 Aniztasunetan bizi  
18:15 Ikusmira  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Erremeixuak  
19:30 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
22:00 Harmailatik  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Harmailatik  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## MARTITZENA, 21

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Harmailatik  
12:55 Zorion Agurrak  
13:00 Bertso saioa  
13:00 Ur eta lur  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Harmailatik  
15:25 Zorion Agurrak  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Aizank!  
17:45 Ikusmira  
18:00 Harmailatik  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Galdegazte  
19:30 Harmailatik  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Erremeixuak  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Harmailatik  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## EGUAZTENA, 22

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Erremeixuak  
13:00 Aniztasunetan bizi  
13:30 Sasoi betean  
13:55 Zorion Agurrak  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Erremeixuak  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Bertso saioa  
17:30 Aniztasunetan bizi  
18:00 Galdegazte  
18:30 Berriak  
18:55 Zorion Agurrak  
19:00 Amaia DJ  
19:30 Erremeixuak  
19:55 Zorion Agurrak  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Galdegazte  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Erremeixuak  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## EGUENA, 23

12:00 Debagoiena zuzenean  
12:30 Galdegazte  
13:00 Bertso saioa  
14:00 Debagoiena zuzenean  
14:30 Berriak  
15:00 Galdegazte  
15:25 Zorion Agurrak  
15:30 Onein  
16:00 Debagoiena zuzenean  
16:30 Berriak  
17:00 Ikusi irratia  
18:00 Ur eta lur  
18:25 Zorion Agurrak  
18:30 Berriak  
19:00 Ahotsenea  
19:30 Galdegazte  
20:00 Debagoiena zuzenean  
20:30 Berriak  
21:00 Debagoiena zuzenean  
21:30 Berriak  
22:00 Amaia DJ  
22:30 Debagoiena zuzenean  
23:00 Berriak  
23:30 Galdegazte  
00:00 Debagoiena zuzenean  
00:30 Berriak

## ARRASATE IRRATIA

## Goseren gaztetzeko kontzerturako sarrerak zozketan

Arrasateko Gose taldeak kontzertua eskainiko du gaztetzean hilaren 25ean. Bada, bertara joateko sarrerak lortu nahi izanez gero, hartu parte Arrasate Irratiko zozketan 943 25 05 05 telefonora deituta edo [irratia@goiena.eus](mailto:irratia@goiena.eus) helbidera mezua bidalita. Animatu eta zorte on!

## Sexualitateari buruzko tailerra berbeta gai

Asteleheneko *Igo autobusera!* irratisaioan, Sexologia Bulegoko Montse Velasco izango da 107.7ko uhinetan, 11:00etan. Bertan hitz egingo du *Sexualitate aske eta osasuntsua eraikitzen* izeneko tailerrari buruz. Gurasoei zuzendutako tailerra izango da eta xehetasunak emango ditu.

## GAZTE INFORMAZIOA

## GAZTE OPORRALDIK

**Foru Aldundia.** 14-17 urte arteko gazteei zuzenduta, 7 edo 10 eguneko egonaldiak EHn eta estatuan. Zozketan izena emateko epea: apirilaren 13tik 21era.

## LANA

**Oñatiko Udala.** 2015eko arte begiraleen aldi-baterako kontrataziorako deialdia eta oinarri argitaratu dira. Izen emate epea: Apirilaren 10etik 27ra (biak barne).

**Oñatiko Udala.** 2015eko udal-leku irekietarako begiraleen aldi-baterako kontrataziorako deialdia eta oinarri argitaratu dira. Izen emate epea: Apirilaren 13tik 24ra (biak barne).

**Oñatiko Udala.** 2015eko kirol begiraleen aldi-baterako kontrataziorako deialdia eta oinarri argitaratu dira. Izen emate epea: Apirilaren 13tik 24ra (biak barne).

riak argitaratu dira. Izen emate epea: Apirilaren 20tik 30era (biak barne).

## BEKAK

**Euskal Herriko Unibertsitatea.** Uda ikastaroak eta Europar Ikastaroak. Beka eskaria, epe muga apirilak 24.

**XVIII. Igartza Literatura-Sorkuntzako beka idazle berrientzat.** Beasaingo Udala, CAF eta Elkar. Narratibako lanak, eleberri edo ipuin-bildumak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak. Edonork parte har dezake, baina egile berrientzat bideratuta dagoenez, lana entregatzean 35 urte bete gabe izatea eskatzen da. Proiektuak 2015eko ekainaren 30a arte bidal litezke [kultura@beasain.eus](mailto:kultura@beasain.eus) helbidera. Informazio gehiago: 943 02 80 63.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)  
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)

## ESKER ONA




## Uzuri Larrañaga Gantxegi



Eskerrik asko egun hauetan babes eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi, etxekoenez.

Bergaran, 2015eko apirilaren 17an.

## ESKER ONA



## Itziar Barrena Zabaleta



Bergaran hil zen 2015eko apirilaren 9an, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoiei eskerrik asko, sendikoenez.

*Beti izango zara gure bihotzean.*

Bergaran, 2015eko apirilaren 17an.

## OROIGARRIA

## Amaia Bao Gomez



*Eta koloreak pitzen dira  
laranja, gorri eta moreak.  
Utz nazazu ametsetan,  
infinituaren amaiera aurkitu dut eta.*

Arrasateko Ezker Abertzaleko lagunak.  
Arrasaten, 2015eko apirilaren 17an.

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



## Joxe eta Maite

Joxe Martinezek eta Maite Muxikak ezkondu zireneko 40. urteurren bate zuten apirilaren 12an. Familia giroan ospatu zuten egun berezia, mahaiaren bueltan. Zorionak eta patxo handi bat biei seni-deen partetik, eta, bereziki, Naia eta Maren biloben partetik.

URTEURRENA

**Agueda Zubia Leibar**



2014ko apirilaren 20an hil zen, 87 urte zituela.

Lehen urteurrenoko meza zapatuan izango da, apirilaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

*Beti izango zara gure bihotzean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko apirilaren 17an.

URTEURRENA

**Juan Campos Suarez**



Oñatin hil zen 2014ko apirilaren 15ean, 79 urte zituela.

Lehen urteurrenoko meza zapatuan izango da, apirilaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko apirilaren 17an.

URTEURRENA

**Rufina Aranzeta Aranzeta**



1927-08-31 / 2014-04-18

Lehen urteurrenoko meza domekan izango da, apirilaren 19an, 12:00etan, Elgetako Andre Mariaren eliza nagusian.

*Goresten zaitugu ama maitea maitasunaren eta ematearen ama pakearen eta itxaropenaren ama emaguztu isiltasunaren zure argia. Eskerrik asko, ama.*

Aldez aurretik eskerrik asko. Elgetan, 2015eko apirilaren 17an.

URTEURRENA

**Amaia Uriarte Urtaza  
Ane Miren Telleria Iñurritegi  
Mikel Urzelai Aiastui  
Aitor Oñate Aiastui**



2005eko apirilaren 20an hil ziren, auto istripuz, 24, 22, 22 eta 20 urte zituztela.

Hamargarren urteurrenoko meza domekan izango da, apirilaren 19an, 12:30ean, Oñatiko Bidaurretako elizan.

*Beti gure artean zaudete.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko apirilaren 17an.

URTEURRENA

**Antonio Garzon Canelo**



2014ko apirilaren 14an hil zen, 53 urte zituela.

*Beti izango zara gure bihotzetan.*

Arrasaten, 2015eko apirilaren 17an.

URTEURRENA

**Iñaki Aspiazua Iza**  
Arkitektoa



2014ko apirilaren 11n hil zen, 59 urte zituela.

Lehen urteurrenoko meza domekan izango da, apirilaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko apirilaren 17an.

ESKER ONA

**Telesforo Urcelay Ayastuy**



Oñatin hil zen apirilaren 9an, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Ondra-meza zapatuan izango da, apirilaren 18an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

*Zeruan jalgi zara orain, gu guztien gainean; zure poztasuna eta maitasuna... Desio dugularik izango zure irribarra, Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

*Zure familiak*


Oñatin, 2015eko apirilaren 17an.

HILDAKOAK

- Tamara Molodzova Dmitrievna. Arrasaten, martxoaren 25ean. 90 urte.
- M. Arantzazu Aristondo Berastegi. Arrasaten, martxoaren 25ean. 83 urte.
- Isidoro Gorospe Mugertza. Arrasaten, martxoaren 25ean. 100 urte.
- Juan Rikardo Lazpiur Alberdi. Arrasaten, martxoaren 26an. 63 urte.
- Felipe Gisasola Aranbarri. Bergaran, martxoaren 28an. 89 urte.
- Migel Larrañaga Garitagoitia. Bergaran, martxoaren 30ean. 81 urte.
- Xabier Linazisoro Lazpiur. Bergaran, martxoaren 30ean. 87 urte.
- Margari Alberdi Labaka. Bergaran, martxoaren 30ean. 59 urte.
- Fernando Romo Nieto. Arrasaten, martxoaren 30ean. 82 urte.
- Valentin Marrupe Rodriguez. Arrasaten, martxoaren 30ean. 85 urte.
- Juan M. Galfarsoro Jausoro. Arrasaten, martxoaren 30ean. 70 urte.
- M. Nieves Ezkurra Oiztegui. Arrasaten, martxoaren 31n. 91 urte.
- Serafin Diaz de Monasterioren Urtzelai. Arrasaten, apirilaren 2an. 92 urte.
- Alejandro Ormaetxea Luarizaristi. Bergaran, apirilaren 3an. 93 urte.
- Uzuri Larrañaga Gantxegi. Bergaran, apirilaren 4an. 57 urte.
- Juanita Lizarralde Ezkibel. Antzuolan, apirilaren 5ean. 88 urte.
- Pilar Velasco Gonzalez. Arrasaten, apirilaren 5ean. 87 urte.
- Jose Fernandez Fernandez. Arrasaten, apirilaren 6an. 89 urte.
- Jesus Angulo Perez. Arrasaten, apirilaren 7an. 78 urte.
- Diego Martin Sanchez. Arrasaten, apirilaren 8an. 78 urte.
- Antonio Aguila Fernandez. Bergaran, apirilaren 9an. 79 urte.
- Itziar Barrena Zabaleta. Bergaran, apirilaren 9an. 66 urte.
- Telesforo Urtzelai Aiastui. Oñatin, apirilaren 9an. 83 urte.
- Felipe Ramos Gutierrez. Arrasaten, apirilaren 10ean. 84 urte.
- Angela Tercero Navarro. Arrasaten, apirilaren 11n. 94 urte.
- Blasa Delgado Martin. Arrasaten, apirilaren 12an. 86 urte.
- Ramon Zubizarreta Elustondo. Bergaran, apirilaren 12an. 72 urte.
- Paula Rodrigo Hernando. Bergaran, apirilaren 12an. 74 urte.
- Feliciana Bengoa Elortza. Arrasaten, apirilaren 13an. 93 urte.
- M. Asuncion Roa Olazagoitia. Arrasaten, apirilaren 14an. 80 urte.

ESKER ONA

**Xabier Linacisoro Lazpiur**



Bergaran hil zen 2015eko martxoaren 30ean, 87 urte zituela.

Lerro hauen bidez Xabierren sendiak, banaka egin ezin izanagatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2015eko apirilaren 17an.

ESKER ONA

**Miguel Larrañaga Garitagoitia**



Osintxun hil zen 2015eko martxoaren 30ean, 81 urte zituela.

Hileta elizkizunetara etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkizugu enoi eskerrik asko, Olaniko sendikoen izenean.

Bergaran, 2015eko apirilaren 17an.

OROIGARRIA

**Isabel Diego Ortiz**  
1932-05-28 / 2010-04-19  
**Jose Ignacio Uribarri Jausoro**  
1941-06-26 / 2003-03-30



*Beti nirekin.*

Eskoriatzan, 2015eko apirilaren 17n.

OROIGARRIA

**Juanita Lizarralde Ezkibel**

Esteban Arangurenen alarguna

Antzuolan hil zen apirilaren 5ean, 88 urte zituela.



*Loratutako ezkien artetik zuhaitz lizarretan, Azaldittatik gara zoaz Arbasoen basorantz. Enbor senda indartsua, amandre zaindari hilezkorra. Gugan bego.*

Antzuolan, 2015eko apirilaren 17an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA





GOIENA

**OÑATI 'Argizaiola 2013' argazkiak**  
Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartek antolatutako 2013ko *Argizaiola* lehiaketako argazkiak ikusgai. Maiatzaren 3ra arte, Txandako dendatan.

**OÑATI 'Ispiluak' erakusketa**  
Oñatiko argazkiak, lehengoak eta oraingoak. Argazki zaharrak Oñatiko Udal Artxiboarenak dira eta berriak Ilunpetan argazki taldeko kideenak. Maiatzaren 3ra arte, Sancti Spiritus unibertsitatean.

**OÑATI 'Hysteron'**  
Nagore Legarretaren argazki erakusketa. Maiatzaren 3ra arte, kultura etxean.

**ARETXABALETA 'Emarock'**  
Euskal herriko hainbat emakume musikariren zuzeneko kontzertuetako argazkiak. Apirilaren 30era arte, Arkupen.

**OÑATI 'Bidean'**  
Miren Pastor argazkilariaren argazki erakusketa. Maiatzaren 3ra arte, Antixenan.

## GAZTELEKUAK

**BERGARA Fimo tailerra**  
Materiala ezagutu eta nork bere irudimenaren arabera lanak egingo ditu. Bihar, zapatua, Xabaloten, 17:00etan.

**ARRASATE Txokolate-tertua**  
Hilerokoaren gaineko tertulia egingo dute, 12-17 urteko arteko neskendako, eta Sexologia Zerbitzuko arduradun Montse Velas-

cok gidatuta. Deialdi irekia egin dute eta ez da alde zuretik izenik eman behar. Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean.

**BERGARA Wii jolasak**  
Taldekako eta banakako jolasak egingo dituzte Wii-arekin. Etzi, domeka, Xabaloten, 17:00etan.

## LITERATURA

**ELGETA Ipuinen ordua**  
3 urtetik gorako umeendako. Euskaraz eta doan. Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

**OÑATI Tertulia**  
Unai Iturriagak eta Alex Sanvik idatzitako *Haur besoetakoa* albuma aztertuko du Udal Liburutegiko euskarazko irakurle taldeak Unai Iturriagarekin. Apirilaren 21ean, liburutegian, 19:00etan.

**ARRASATE Pello Añorga**  
4 urtetik gorako umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du. Apirilaren 21ean, liburutegian, 18:00etan.

**OÑATI 'Badut' ipuin musikatua**  
Ipuin saio musikatua 6-10 urte arteko haurrentako. Apirilaren 22an, liburutegian, 18:00etan.

**OÑATI Liburuei usainak jarriz**  
*Lurrinak eta liburuak: liburuak usainduz* ekimena egingo dute eta literaturak duen usaina hartzeko saioa egingo dute. Apirilaren 22an, liburutegian, 19:00etan.

## IRTEERA

**OÑATI 'Fenologia, lurrari kasu eginez'**  
Pello Zabalarrekin irteera, klimak eta urtaroei eraginak erakusteko. Aldez aurretik eman behar da izena Arantzazuko parke txerara deituta: 943-78 28 94. Bihar, zapatua, Arantzazun, 10:30ean.

**ELGETA Elgetako kaleak gerra sasoiari**  
Intxortako Erresistenteen Egunaren harira, bisita gidatua. Bihar, zapatua, Elgetako kaleetan, 18:00etan.

## DEIA

**OÑATI Odol-ateratzea**  
Odol-ateratzea egingo dute Txantxiku ikastolako aretoan. Emai-

le berriei dei berezia egiten diete antolatzaileek. Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30etan.

**BERGARA Pazkoak antolatzenko batzarra**  
Haurrentako batzarra izango da. Gaur, egubakoitza, Oxirondon, 17:00etan.

**OÑATI Zuhaitz landatzea Aloñan**  
Urkiak (15) eta lizarrak (25) landatuko dituzte. Duru inguruetan dauden hutsuneak beteko dituzte. Gainera, itxiturretan haizeak eragindako kalteak konponduko dituzte. Etzi, domeka, Duru inguruan, 09:30ean.

**OÑATI Espeleotxiki abentura**  
Arrikruzteko pasarela kanpoko abentura familia osoarentako. Aurrez egin behar da erreserba 943-08 20 00 telefonon. Etzi, domeka, Arrikruzten, 10:00etan.

**OÑATI Estenopeika erraldoia udaletxean**  
Argazki kamera baten barruan zer gertatzen den bertatik bertara ikusteko aukera, Ilunpetan taldekoekin. Eguraldi ona behar da ekimena egiteko. Txarra egiten badu, bertan behera utziko dute. Etzi, domeka, udaletxean, 12:00etan.

**OÑATI Gonbidapen banaketa**  
Amaia Nekane ipuin kontalariak 3-6 urte bitarteko umeendako saioa egingo du apirilaren 30ean, baina gonbidapenak hileren 20tik aurrera jaso behar dira. Apirilaren 20tik aurrera, udal liburutegian, 17:00etan.

**BERGARA Pazkoak antolatzenko batzarra**  
Batzar orokorra izango da. Apirilaren 21ean, udaletxean, 18:30ean.

## IKUS-ENTZUNEZKOA

**OÑATI Argazki lanen bideo proiektzioak**  
Bilboko Argazkigintza Garaikideko zentroko ikasleen eta Madrilgo Blank Paper eskolako ikasleen argazkiak ikusteko aukera, ikus-entzunezko formatuan. Gaur, egubakoitza, Antixenan, 19:30ean.

## AZOKA

**ARRASATE Baseritarren azoka**  
Hileko hirugarren zapatua izaki, baseritarren azoka egingo dute

Seber Altuben. Besteak beste, sasoko produktuak erosteko aukera egongo da. Bihar, zapatua, Seber Altuben, 09:00etan.

**BERGARA Bigarren eskuko azoka**  
Elkartrukea, berrerabilera eta artzaintza sustatzeko azoka egingo dute. Etzi, domeka, San Martinen, 11:00etan.

## KIROLAK

**ARRASATE Udaltx mendia lasterketa**  
250 korrikalarik hartuko dute parte. 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa. Etzi, domeka, Herriko plazan, 09:00etan.

## BESTELAKOAK

**BERGARA Gaztetxoendako DJ jaialdia**  
Sarrera doan izango da. Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30ean.

**BERGARA Hari-instrumentuen gaineko tailerra**  
Musika eskolako eskutik. Apirilaren 21ean, musika eskolan, 17:45ean.

**ELGETA Odol-ateratzeak**  
Sendagile eta erizain taldea Elgetako udaletxean izango da. Apirilaren 21ean, udaletxean, 18:00etan.

**ARETXABALETA EH Bilduren zerrenda eta programa**  
Biak ala biak aurkeztuko dituzte herritarren aurrean. Apirilaren 21ean, Arkupen, 18:30etan.

**DEBAGOIENA Partaidetzako aurrekontuen proiektuak**  
Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuen proiektuko tailerak egingo dituzte herririk herri, herritarrek euren proiektuak aurkeztu ahal izateko. Antzuolan, hileren 22an, Orlanen, 18:30ean; eta Aretxabaletan, hileren 23an, Arkupen, 17:30ean. Gainerako herrietan apirilako azken asteetan eta maiatzeko lehenengoan egongo dira. Aipatutako lekuetan eta orduetan.

**ELGETA Dantza-afari tematikoa**  
Herrira dantzan ekimenak dantzan elkartzeko deialdi berezia egingo du. Portugal hizpide hartuta, hango dantzak erakutsiko ditu Patxi Monterok. Saioa maiatzaren 8an egingo dute, baina izena aurretik eman behar da [\*tzan/dantza-afari-tematikoa-portugal\* helbidean. Dantzan hasi aurretik, elkarrekin afalduko dute. Izen-ematea, 20 euro. Maiatzaren 8an, Espaloian, 21:00etan.](http://dantzan.eus/kidea/herrixadan-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

**ARRASATE Haurren danborradarako izen-ematea**

Apirilaren 20an hasiko dira izenak hartzen, SUDCEk Nafarroa etorbidean duen lokalean. Apirilaren 20tik, 17:00etan.

## LEHIAKETAK

**BERGARA Pazkoetarako kartel lehiaketa**

Apirilaren 24ra arte aurkez daitezke lanak. Irabazleak 400 euroko bonuak lortuko ditu Bergarako komertzioetan trukatzeko. Herritarrek ere botoa eman ahal izango dute Udalaren atarian, hileren 27ra arte. Apirilaren 24ra arte, kultura etxean.

## MENDIA

**ARRASATE Irteerak**  
Arabako lautada integralaren zortzigarren etapa egiteko irteera egingo du Besaidek: Galarreta-Larrea delakoa. Etzi, domeka, Garibain, 09:00etan.

**ARRASATE Kurtzetxiki**  
Apirilaren 26an Kurtzetxikira ibilaldia egingo du Besaidek. Herritar guztiak gonbidatu dituzte, eta umeekin egiteko ibilaldi aproposa dela diote. Ez da alde aurretik izenik eman behar. Apirilaren 26an, Herriko Plazan, 10:00etan.

## IKASTAROAK

**ESKORIATZA Sabel-dantza**  
Jaione Arrazolak emango du ikastaroa apirilaren 30ean eta maiatzaren 7an, 14an eta 21ean. Amuskako bazkideek 40 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, 45. Izena emateko azken eguna hileren 28a da.

**BERGARA Sendabelarrak**  
Bergarako Udalaren eta Biziklasiren eskutik sendabelarren gaineko ikastaroa egingo dute. Sendabelarren ezaugarriak eta onurak azalduko dituzte. Izen-ematea 943-76 93 94 telefonon. Izen-ematea aipatutako telefonon.

**ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA**

**09:00-14:00 Seber Altube Plaza**

**HILEKO 3. ZAPATUAN**

**2015**  
**apirilak 18**

**maiatzak 16  
ekainak 20  
uztailak 18  
irailak 19  
urriak 17  
azaroak 21**

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
■ Emplu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saia

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, harbitasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Arrasateko Erreka jatetxean gertatutako berenjena beteak platera.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:  
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 17

goienakluba

goiena

2015-04-17

BUKATZEKO

## Bretoierak eta euskarak badute zubia

- Bi hizkuntzen hiztegia egin du Padrig an Habask bretoiak eta Xabier Zubizarreta lagunari eskaini dio
- Kemperreko irakasleak hogeitau urte daramatza Arrasatera etortzen, urtero-urtero, ikasle talde batekin

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Aurten ere etorri da Padrig an Habask (Kemper, Britainia) Arrasatera. Ikasle kuadrilla inguruan hartuta etorri da 60 urteko irakaslea, azken hogeitau urteotan egin duen legez. Aurten, baina, oparia ekarri du esku artean: *Geriadur brezhoneg-euskareg, euskara-bretoiara hiztegia*.

### Bederatzi urtetako lana

Bederatzi urtetako lanaren fruitu txiki baina dotorea da hiztegia -Elkar liburu-dendan daukate salgai-. "*Euskara-bretoiara* atala bukatu nuen lehenengo, eta gero, alderantzizko lana hasi nuen. Baina konturatu nintzen 500 bat berba falta zirela, eta berriro hasi behar lanean...", dio irribarrez.

Euskara ikasi gura duen edozein bretoiendako lan-tresna dela dio An Habask-ek, eta gaineratu du: "Baita bretoiara ikasi gura duen edozein euskaldunendako ere". Txikia egin gura izan du, edozein ikasle samur erabiltzeko modukoa esku artean, baina, horretarako, ondo aukeratu behar dira hitzak: "Ez da izan samurra hitzak aukeratzea, adibideak eta esamoldeak zehaztea... Beste hiztegi batzuk hartu ditut eredutzat; *Lur hiztegia*, esaterako".



Padrig an Habask irakasle bretoiara hiztegia esku artean duela. | MIRARI ALTUBE

### Irakurri eta ikasi

Hizkuntzak maite ditu, eta horrek bultzatu du euskara ikastera. Baina zergatik euskara? "Hiztegiaren hasieran zera idatzi dut: *Euskal Herria eta Britainiaren arteko zubi bat eraiki nahi dut*. Benetan garrantzitsua da niretako hori", dio. Sasoi baten hainbat iheslari iritsi ziren Bretoi-

niara, eta orduan izan zuen euskararekin lehen harremana. Gero, bere kabuz ikasten hasi zen, batez ere, aldizkariak eta liburuak irakurritik: "Bosgarren Bakarka metodoarekin nabil eta aldizkariak irakurtzen ditut, baita Sarrionandia ere". Eta urtean behin Arrasatera etorritik praktikan jartzen du ikasitakoa.

Aspaldi etorri zen lehenengoz Arrasatera, ez du gogoan urtea: "Xabier Zubizarreta zen alkatea eta hark hartu gintuen". Hain zuzen, Zubizarretari eskaini dio hiztegia. Azken hamabost urteotan, oster, Arizmendi Ikastola-koek gonbidatuta dator.

### Herri txikiak elkartzeko deia

Bretoieraren egoerak kezkatzen du; asko, gainera. "Gure hizkuntzaren egoera larria da: ez daukagu ofizialtasunik; gure eskolak oso txikiak dira; irratian ezer gutxi entzuten da...". Bretoiaren irakasten duten Diwan eskolek 4.000 ikasle dituzte eta beste 15.000 inguruk bi hizkuntzatan dihardute eskola publikoan: "Baina bretoiara astean sei bat ordura dute murriztua. Askok diote eskolan emandakoarekin nahikoa dela, eta ez da egia". Euskararen egoera "oso ona" dela uste du, baina badaki iparraldean bestelako egoera bizi dutela, eta indarrak batzea ezinbestekotzat jo du. "Herri txikiok elkarrekin egin behar dugu lan, estatu frantsesa eta espainiarra indartsuak direlako".

Erretiratu egingo da datorren urtean, baina argi dauka lanean jarraituko duela, bretoiaren alde lanean.

AZKEN BERBA



AGURNE BARRUSO

Erramu Zapatua

Aste Santuko opor-aurrerako azken zapatua ospatu genuen Bergaran Erramu Zapatua. Aurten ere egun biribila; are gehiago, eguraldiak aspaldiko partez eguzkia ikusteko aukera ere eman zigulako.

Duela urte gutxi arte -8 inguru- Erramu Zapatua goizeko plana zen Bergaran. Azoka ikusi, zerbait erosi, normalean baino txikiteo luzeagoa egin eta etxera. Arratsaldean ez zegoen ezer.

Herriko kuadrilla baten inizatibaz hasi zen egun osoko jardun intentsoa izaten. Herri bazkaria, txaranga, arratsaldeko giro aparta eta gaueko parranda gehitu zitzaizkion.

Hasieratik izan zuen harre- ra bikaina inizatiba berriak. Herri-bazkarirako txartelak beste kide egon dira beti. Azkar ibili beharra dago tokirik gabe ez gelditzeko. Arratsaldeko txarangaren tourneak ere oso gogotsu hartu genituen bergararrok eta Erramu Zapatua beste zerbait da orain.

Aurten izan omen da kuadrilla hau antolatzaile-lanetan jardun duen azkena. Errelebo antolatu beharko dugu, galdu nahi ez badugu.

Eskerrik beroenak urte hauetan lanean jardun duzenoi eta ea datorren urterako beste kuadrillaren bat animatzen den.

EGUZKITAKO BETAURREKOAK  
deskontua  
% 30  
MODELO BERRIAK 2015

Ray-Ban  
Oakley  
arnette  
eta askoz gehiago...

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE  
Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

MULTIÓPTICAS  
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • DONOSTIA • ELIZAR • ERRENTERIA • LASARTE • IRUN • OROZKOA • TOLOSA  
Kontaketa itzasi zure jentzuan. Espainiaren eragileak. Eztingo da beste eskaintza batzuetan erabil.